

HAZIERA ETA HEZIKETA ALDIZKARIA **11. ZENBAKIA.** 5 €

# Hazi Hezi



GAIA:

**Mila koloretako  
familiak**

ELKARRIZKETA: MARI LUZ ESTEBAN  
**"Amok oraindik ere  
aitek ez bezalako  
exijentziak ditugu"**

SORMENA

**Pirritx, Porrotx eta  
Marimotots**

# 11. Hazi Hezi

haziera eta heziketarako  
euskal aldizkaria



Urteko harpidetza  
(lau aldizkari)  
20 euro

Hik Hasi, hezkuntzari  
garrantzia ematen  
diogunon **komunitatea**

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)



## Pluralean hobeto

**Z**er da familia? Zeinek osatzen dute familia bat? Zein da familia 'normal' bat? Usu, norbere esperientziatik abiatzen gara galdera horien erantzun bila. Ihardespenak beraz, hamaika izan daitezke. Bakoitzak bere familia-esperientzia baitu —eta badira, izan, familiarik ez dutenak ere—.

Familiez aritu gara **11. Hazi Hezi** honetan; ezin baita familiari buruz singularrean hitz egin, ez gaur eta ez lehen, **Marta Luxan soziologoak** gogorarazten digunez. Sorreratik, zenbaki guztietan izan dute isla sendi-eredu anitzek Hazi Hezin, guraso bakarrekoe, sexu bereko gurasodunek, adopzio edo harrera bidez osatuek... kalean, eskolan, gizartean duten adina presentzia izan zezaten orrialde hauetan. Onarpena eta ikusgarritasuna irabazi du familiaren adiera zabalak, baina oraino bada zereginik.

Kultur munduko bost pertsonaia ezagunen familiak ezagutu ditugu, jatorri desberdineko gurasoek osatua, odoletik haragoko egiturak, guraso bakarreko familia, sexu bereko gurasoak... Oztopo administratiboak, hezkuntzari loturikoak (odolezko aita-ama-eme-alabak egituradun testu-liburuak, etxerako lanak...), medikuntzaren ingurukoak... aipatu dituzte. Indar gehiagoz edo gutxiagoz, adorez egiten diete aurre traba horiei. Baina badira, egunerokoan, mina eta beldurra eragiten duten ezten txikiagoak: jendearen iruzkinak; "hau ez da zuen alaba!".

Bada zereginik. Badugu zereginik.

Familia-eredu anitzek, izan guraso bakarrekoe, sexu berekoek... gurasotasun-eredua pluralizatzea ekarri dute. Barruko bi elkarrizketetan ere, **Mari Luz Esteban antropologoari** eta **Raquel Royo soziologoari** eginikoetan, zuzenki eta zeharka, tradizionalak izan diren rolez hausnartzera eraman gaituzte. Bi atalen abiapuntua desberdina bazen ere, ezarritako rolek emakumeei eragiten dizkieten exigentziak eta erruntasun-sentimenduak aipatu dituzte biek, besteak beste: "Ama bati oraindik ere, aita bati eskatzen ez zaiona eskatzen zai", dio Estebanek; honakoa Royok: "Gizon batek eta andre batek pentsa dezakete maila berdinean daudela, baina familia bat osatzean sistema publikoak esaten die andreak direla zaintzaz arduratu behar direnak; gizonezkoei aitatasuna ukatzen die".

Badugu zereginik.

#### **Koordinatzaileak**

Joxe Mari AUZMENDI  
Ainara GOROSTITZU  
Arantzazu MUÑOA

#### **Idazkaritza**

Uxue UGARTEMENDIA

#### **Erredakzio-taldea**

Nerea AGIRRE  
Kontxi AIZARNA  
Mila APEZETXEA  
Ainhoa AZPIROZ  
Izame GARMENDIA  
Iñigo LARRAÑAGA  
Aritz LARRETA  
Josi OIARBIDE  
Josu TXAPARTEGI  
Arantxa URBE  
Ankelo USOBIAGA

#### **Kolaboratzaileak**

Alex BARANDIARAN  
Gotzon BARANDIARAN  
Aitziber ESTONBA  
Carmen FERRO  
Libe GARMENDIA  
Patxi IZAGIRRE  
Lourdes MUELA  
Juanjo QUINTELA

#### **Argazkiak**

Hazi Hezi  
Ainhora AZPIROZ  
Izame GARMENDIA  
Maite OLAZIREGI

#### **Diseinua**

Graf!k

#### **Inprenta**

Antza

#### **Elkarlanean**



# AURKIBIDEA





20



54

EDITORIALA

3

LABUR-LABUR

6

PROPOSAMENAK

8

GAI NAGUSIA

**Mila koloretako  
famiak**

10

KONTSULTAK

18, 38, 44

ELKARRIZKETA

**Mari Luz Esteban**

20

ASTEZ ASTE,

URTEZ URTE

27

**Gurasoak mintzo**

40

EZTABAIDAGAI

**Kontziliazioa II**

46

JOLASAK

50

HALA BAZAN, EZ BAZAN

**Gotzon Barandiaran**

52

SORMENA

**Pirritx, Porrotx eta  
Marimotots**

54

IRITZIA

**Zihara Enbeita**

58



## BERRIKUNTZA, HAURREN ESKUBIDEAK BERMATZEKO ZUTABE

Azaroaren 20an, haurren eskubideen egunean, Unicef-ek aurkeztu zuen txostenaren arabera, haurtzaroko arazoei aurre egiteko ideia eta proiektu berrien premia larria dago. Azken 25 urtean osasungintzan, hezkuntzan eta ur-edangarria eskuragarri izateko zereginen aurrerapauso ugari eman badira ere, Unicef-ek adierazi duenez, konponbideak ez dira "goitik behera" etorriko, behetik gora erakitako komunitate-sare berrietatik baizik. Izan ere, oraindik asko dago egiteko, eta horren erakusle da, adibidez, haurren heriotza-arriskua: munduko haurrik behartsuenen % 20k lehen bost urteetan hiltzeko duen arriskua munduko haurrik aberatsuenen % 20k duenaren bikoitza da.

## HAZI HEZI, ASTIGARRAGAKO HEZKUNTZAREN GAINEKO ZIKLOA IREKITZEN

Haurren hazierarekin eta heziketarekin loturiko hitzaldi-tailer zikloa antolatu du Astigarragako Udalak 2014ko azarotik 2015eko maiatzera bitartean. "Informazioa eta hezkuntza, guraso izatearen

oinarri" izenburupean, Hazi Heziko kideek eman zioten hasiera zikloari. Informazio landua eta egokia helarazteko zereginen al-dizkariak betetzen duen funtzioa azaltzeaz gain, Miren Camison haur-filosofian aditua guraso bezala kontzientzia hartzeak duen garrantziaz mintzatu zen. Datozen hilabeteetan, besteak beste, Juan Carlos Alonso psikologo, Nerea Mendizabal psikopedagogo, Paco Gascon pedagogoa edota Amaia Vazquez sexologoa ariko dira hizlari lanetan.

# LABUR-LABUR

## NORVEGIAN 14 ASTEKOA IZANGO DA AITATASUN-BAIMENA

Aitatasun-baimena bi aste luzatuko dute Norvegian eta 12 astekoa izatetik 14 astekoa izatera igaroko da. Baimen hori bikotekideak hartu beharko du, ezinbestean, eta ezin dio amari transferitu. Izan ere, amek beste 14 asteko baimena dute eurentzat bakarrik. Orotara berriz, orain arte 47 asteko baimena hartzeko eskubidea zuten gurasoek eta hemendik aurrera 49koa izango dute, soldata osoa kobratuz (eta 59 astekoa soldataren % 80 kobratzea erabakitzen badute). Guraso bakoitzari dagozkion 14 aste horiez gain har ditzaketan gainontzeko egunak, gurasoek eurek erabaki bezala bana ditzakete. Neurri horren bidez haurren zaintzan gizonezkoen parte-hartzea handiagoa izatea lortu nahi dute batetik, eta alor profesionalean gizonezkoen eta emakumezkoen artean bereizketa gutxiago egotea, bestetik.



## Jostailuek sexismoa susta dezaketela ohartarazi du Emakundek

Haurrei zuzenduta egiten diren jostailuen publizitate-kanpainak feminitate eta maskulinitate-eredu tradizionaleri iraurarazten dietela, eta jostailuek sexismoa susta dezaketela ohartarazi du Emakundek, haurtzaroan garatzen baita genero identitatea: "Jostailuek eta iragarriek garrantzi handiko eginkizun sozializatzailea dute haurtzaroan; haien bidez ikasten dute nola jokatu, zer desiratu..." lazko Gabonetan egindako ikerketa baten arabera, neskak protagonista diren iragarkien % 62,7k panpinak saltzen dituzte; kasuen % 70ean berriz, jostailuetan arrosa kolorea agertzen da, *off-eko* ahotsaren tonua leuna da, eta ekintzak etxeko giroan gertatzen dira. Mutilak protagonista diren iragarkien erdietan, bestalde, ekintza figurak eta ibilgailuak saltzen dituzte; *off-eko* ahotsak tonu serioa edo autoritarioa erabiltzen du kasuen % 70ean, eta kontrola nahiz lehia dira islatutako balioak.

## AUZO BIZI-BERRITZEKO 'GOIAN' PROIEKTUA ABIATU DUTE GASTEIZKO ALDE ZAHARREAN

Orain dela urte asko hasi ziren Gasteizko Alde Zaharrea komunitatea saretzeko lanean. Garaia-aren arabera, hainbat pertsona eta talde aritu dira asmo horrekin ekinean. "Goian" proiektuak tradizio horretatik edan du, eta bide berriak garatu ditu. Haur eta nerabeentzat eskolaz kanpoko jarduerak eskaintzen hasi zen, hainbat balio oinarri hartuta, hala nola, elkarbizitza, aniztasuna edota euskara.

Baina, urteetako bilakaeraren poderioz, helduentzako jarduerak ere baditu. Iaz, 271 umek eta 120 helduk baino gehiagok hartu zuten parte auzoko ekintzetan. Hala ere, jarduera horiek ez dira helburu, tresna baizik. Proiektuaren koordinatzaileek azaldu bezala, eurak ez dira eskolaz kanpoko ekintzak sustatzen dituen guraso elkarte, ikuspegi komunitarioa duen giza taldea baino.

## LANA ETA FAMILIA BATERATZEKO LAGUNTZA BERRIAK ZEHAZTEN

Eusko Jaurlaritzak lana eta familia uztartzeko laguntzen oinarriak aldatzeko asmoa du. Errentaren arabera eman nahi ditu laguntzak. Dekretu berriaren zirriborroa prest du dagoeneko, eta 2015 erdialderako nahi dute indarrean araudi berria. Besteak beste, Jaurlaritzan landutako ideietako bat da lehen umeagatik ematen den diru kopurua kentzea eta "ahalegin ekonomiko handiagoa" egitea ume bat baino gehiago izateko hautua egiten duten sendiekin. Diru-laguntzez aparte, neurri berrien artean zerrendatzen dira beste hainbat ere; hala nola, umeak edo adinekoak zaintzeko lan murrizketak eta eszedentziak, eta etxeko babesgabeenak zaintzeko pertsonen kontratazioaren zama ekonomikoa arintzeko laguntzak.



# PROPOSAMENAK



## Nestor Basterretxearen erakusketa

*Lehen oroimenaren pisua* erakusketa zabaldu dute Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. Nestor Basterretxeak etxean gordeta zeuzkan lanak ditu oinarri eta artistaren bizitza osoko obraren ikuspegi zabal bat ematen du. 150 lan inguru daude, eta horien erdiak aurretik inon erakutsi gabeak dira. Otsailaren 14ra arte ikus daiteke erakusketa, asteartetik ostiralera bitartean 16:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Sarrera doakoa da. Bisita gidatuak erreserbatzeko [kmk@komazk.com](mailto:kmk@komazk.com) helbidera idatzi edota 678 204 635 telefonora dei daiteke. Zehazki, abenduaren 23an 11:30ean haurrentzat prestatutako tailerra egingo da euskaraz; urtarrilaren 10ean, 17:30ean berriz, familia osoari bideratutakoa.

## Pailazoen ikuskizun berria

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek *Txo, Mikmak Txikia* ikuskizun berria eta diskoa estreinatu dituzte, Euskal Herriko itsas-kultur tradizioa oinarri hartuta. Txo Mikmak indioa da, eta itsasoaren bestaldetik etorri da Euskal Herrira, bere arbasoen herria ezagutzera. Ozeanoa zeharkatu eta Albaolara ailegatuko da. Han Roke aitonaekin egiten du topo, baita Hermelinda batelariarekin eta pailazoeekin ere; hondartza garbitzera joanak dira Albaolara, plastikozko zabortege bihurtzen ari baita itsasoa. Horretan ari direla, balea bat gaixorik iristen da hondartzara. Horixe du abiapuntu ikuskizunak. Abenduan, besteak beste, Zea-nurin, Eibarren, Zizur Nagusian, Amurrion, Usurbilen, Lesakan, Bermeon, Durangon, Ordizian, Azkoitian edota Zarautzen egingo dute emanaldia.



## Mendi buelta Aizkorri aldetik



Urtea ondo amaitzeko edo berria ondo hasteko, ohitura da, mendira joatea. Jende ugari aukeratzeko duen tontorretako bat da Aizkorriko gaina. Eguraldia edo sasoi lagun ez ditugulako puntaraino iritsi ezean ere, goiz pasa ederra egin liteke San Adrian inguruan. Zegamatik edo Etzegaratetik barrena, Otzaurtera joan eta handik Aldaola magalera igo liteke eta bertan kotxea utzi. Handik oinez 20-30 minutu nahikoa dira San Adriango tunelera iristeko. Haur txikiek ere erraz egiteko moduko bidea da. Historia oparoa du tunelak, handik igarotzen baitzen Erdi Aroan Gaztela Frantziarekin lotzen zuen erregebidea. Egun, garai hartako aztarna handirik agerian ez badago ere, toki aproposa da, aterpean eta haizebabesean hamaiketakoa egin eta atsedean hartzeko.



## PROPOSAMENAK



### Durangoko Azokara bisita

Abenduaren 5etik 8ra, 49. aldiz egingo da aurten Durangoko Azoka, inoizko parte-hartzaile kopuru handienarekin. 245 stand egongo dira Landako gunean, 330 nobedade aurkeztuko dituzte bertan, 150 kultur ekitaldi antolatu dituzte orotara eta 500 sortzailerren bilgune ere izango da azoka. Bertan adin guztietako haur, gazte eta helduentzat hamaika liburu, disko, joko, film... ikusi eta erosteko aukeraz gain, hainbat ikuskizunetan parte hartzeko modua ere izango da. Zehazki, Saguganbara gunean familian gozatzeko moduko aurkezpenak, tailerrak eta ikuskizunak antolatu dituzte egunero; hala nola, "Gu ere sortzailer" eta "Egun batez idazle" tailerrak; Pirritx, Porrotx eta Marimototsen azken lanaren aurkezpena; edota "Xaldun Kortin, jolastu gurekin" proiektua.

### Geure eskuz egindako Olentzero

Eskuz, oso modu errazean, hurrek euren gustuko Olentzero egin dezakete. Burua egiteko, globoa puztu eta haren gainean egunkari paper zatiak kolarekin itsasi; hainbat geruza jarri ostean, lehortzen utzi; gogortuta dagoenean zuriz margotu eta barruko globoa kendu; ondoren, aurpegia pintatu eta begiak, ahoa, ilea... egin. Burua amaitutakoan gorputzarekin hasi: arropa egokiak aurkitu, alkandora eta prakak elkarrekin josi, eta arropa barrutik egunkari paper bolaz bete, potolo-potolo jarri arte; eskularru batzuk periodiko-paperez bete eta alkandorako besoei lotu; galtzerdiak ere paperez bete eta hanketan jarri eta ondoren abarkak jantzi. Txapela, zapia, arrautzak, saskia, belarritakoa... bakoitzak nahi adina apaingarri jarri eta prest dugu gure Olentzero!



### Familian dantzatzeko erromeriak

Hainbat erromeria antolatzen dituzte Euskal Herriko txokoetan. Aiko taldeko kideak dira animatzaile lanean aritzen direnetako batzuk. Dantzatzeko bereziki eginiko zuzeneko musikarekin, dantzan gozatu ahal izateko modua egiten dute, azalpenak emanaz eta koreografia errazak momentuan erakutsiz, dantza beste modu batez ulertzeko eta bizitzeko. Xedea da dantza eginez ikastea, ikasiz ondo pasatzea, eta ondo pasatuz dantzatzea. Abenduan eta urtarilean hainbat dantzaldi-erromeria egingo dituzte Errenterian, Durangon, Ondarroan... Eta zehazki, abenduaren 27rako familian dantzan egiteko tailerra antolatu dute Bilboko Bizkaia Aretoan goizeko 11etan hasita. Doan, ariketa fisikoa eginaz eta jende berria ezagutzuz ondo pasatzeko aukera paregabea da.

GAI NAGUSIA: mila koloretako familiak

# Hain ezberdin hain berdin



**Familia bakoitza bat eta bakarra da, beraz, sendi guztiak, definizioz anitzak dira. Gaur egun eredu klasikotik ateratzen diren familiak inoiz baino gehiago dira, eta kopurua handitzearekin batera, onarpena eta ikusgarritasuna ere ugaltu da. Baina ez dago dena egina: mila koloretako familien ereduak onartzeko eta aniztasuna aberastasun gisa bizitzeko, urratsak falta dira oraino.**

Hezitzaileari kexuka joan zitzaizkion hainbat guraso udalekuen amaieran, euren seme-alabei ez sartzeko "ideia arrarorik" buruan, ez jorratzeko mila koloretako familiei buruzko gairik, bi amadun sendiei buruz hizketan, "nahasturik" itzuli zirela haurrak etxera, eta "gisa horretako sendirik ez dagoenez" ez kontatzeko halakorik euren seme-alabei. Deskribatu bezala gertatu da pasadizoa. Agian isolatua da, sexu bereko gurasodun familiak euskal herri gehientsuenetan baitaude, eta baita guraso bakarrekoak, seme-alabak adopzioan hartuak, harrerakoak... eta beste hamaika koloretako sendi ugari ere.

Diskurtso-mailan, bederen, Euskal Herrian onartuak daude mila koloretako familiak, Marta Luxan EHUKO irakasle eta demografoaren arabera, "gauzak aldatu dira, familia-eredu anitz asko ditugu; kopurua ugaltu egin da eta horrek, batetik, ikusgarritasuna ekarri du eta baita onarpena ere, nahiz eta egon badauden oraindik ere familia-eredu anitzekiko baztertzailak diren praktikak eta iritziak".

*Familia*-ri buruz beharrean, gaur egun, *familiei* buruz hitz egin behar da. "Familiari buruz singularrean hitz egitea akats bat da", Luxanen arabera. **Familia** eta **aniztasuna**, berez, elkarrekin doaz. Bai ereduak anitzak direlako —gorago aipaturikoez gain, banaketen edo alarguntzearen ondoren berregituratuak, jatorri edo kultura desberdinetako gurasodunak, seme-alabarik gabeko familiak, gurasoetatik harago doazen familia-unitate zabalak, gurasoak hemen eta seme-alabak jatorrian dituzten sendiak, ernalketa artifizialaren bidez osatuak... — baina baita familia

bakoitza, berez, aldamenekoaren ezberdina delako ere. "Bakoitzak bere familiaren esperientzia propioa dauka, antzeko eredu bateko familieren oso desberdina izan daitekeena".

Baina mila koloretako familia ez da gaurko kontua. "Aniztasuna iraganean ere present zegoen. Hospizioko seme-alabak etxe askotan zeuden, eta ama bakarrak ere, betidanik egon dira, izan alargunak, senarrak itsasoan edo Ameriketara zitutzenak... Gaur egun desberdina dena familia hauek sozialki daukaten onarpena da". Demografoaren arabera, onarpen hori kopuruak eta ikusgarritasunak ekarri dute alde batetik, "eredu klasikotik ateratzen diren familiak ez dira ezkututzen, eta hori garrantzitsua da, bai euren esperientziari begira, baina baita gizarteari begira ere". Datuek argi erakusten dute aita-ama eta seme-alabak osatzen duten egitura klasikoak azken hamarkadetan hegemonia galdu duela: **1991n eredu klasiko horretakoak ziren familien erdiak baino gehiago Euskal Herrian eta, gaur egun, hiru senditik bakarra da horrelakoa**. 1991z geroztik, beraz, gehiago dira bestelako familia-unitate batzuk; seme-alabarik gabeko bikoteak, guraso bakarrekoak, dibortzioen ondoren berregituratuak...

Familia-eredu anitzek gizarte-mailan daukaten onarpenak, halaber, zerikusia dauka hautatzeko aukera izatearekin: "Gaur egun

familia askok bestelako ereduak dituzte aukeraz, eta ez halabeharrez; emakume asko guraso bakar dira, esate baterako, hala izatea erabaki dutelako, ez senarra galdu dutelako; eta hori aldaketa garrantzitsua da".

#### **Aniztasuna ikusgarri**

Hezitzaile hari kexatu zitzaizkien familiei eta antzekoei, egon badaudela, badirela eta asko direla mila koloretako familiak erakusteko, hainbat aurpegi ezagunen etxeetan izan da **Hazi Hezi**, familia-ereduen aniztasunari izen-abizenak jarri, ahotsa eman eta ikusgarritasuna emate aldera. Aniztasuna zentzu zabalean hartuta, egitura klasikotik haragokoak, koloretik haragokoak, jatorri, eredu eta kultura aniztasuna erakutsi nahi izan dugu 11. zenbaki honetako gai nagusian. **Xabier Euzkitze, Amaia Agirre, Jon Arretxe, Itxaro Borda eta Txuma Murugarre-**

**"Familiari buruz singularrean hitz egitea akats bat da, bai orain eta bai lehen. Gaur egun desberdina dena familia hauek daukaten onarpena da"**

**Marta Luxan  
(demografoa)**



## Beldur bat, atximurkada bat bailitzan

"Gure kaxa ezin haurrik ekarri / bi emakume izaki / ta intseminatze-prozesua da / gure ezinen estalki". Halaxe kantatu zuen **Amaia Agirrek** azken Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan Hendaian jokatu zen kanporaketan. "Ama izan nahi det / baina ondoan / gizonezkoak lagata. / Bai haurdun gaude hau egia da / zeinen amets on, aparta!". Neskalaguna, **Ainara Mantzizidor**, haurdunaldi benetan zail baten ondorioz ohean lagata joan zen saio hartara. "Egoera horretan ezin nuen besterik kantatu; ez nintzen kontziente zer esan nuen ere". Askok hala eskertu bazioten ere, ez zuen aldarrikapen gisa egin: natural atera zitzaion barruan zeramatenez tabladuan kantatzea. Bikote lesbianaren baitan haur bat ekartzeko pausoa eman zuten naturaltasun berberaz. "Argi geneukan ume bat eduki nahi genuela elkarrekin, eta ez genuen zalantzarik izan", azaldu du Mantzizidorrek. Tabladutik jaistean, zorion eta esker mezuak

jaso zituen bertsolariak, "esan gurasoei ez dela ezer txarra!" eskertu zion 82 urteko andre batek, hunkituta.

Jare jaio eta urtebete honetan ere harrera abegikorra izan dute. "Baina nik badut beldur bat", aitortu du Agirrek, "batzuetan atzetik dudana eta bestetan aurrean jartzen zaidana: ikastolan hastean, edo ezezagunekin topatzean galderak edo komentario desatseginak entzun beharko dituela eta gaizki pasako duela". Erreparo horrek, atximurkada bat bailitzan, gogorarazten die oraindik ere "normatik", "ohikotik" ateratzen dela euren familia, baita eguneroko detaile txikiek, galderek, komentarioek ere; "baina espero dugu gure egoeraren antzekoak ere normalizatzen joango direla; pentsa garai batean zeinen arraroa zen guraso bananduak edukitzea, eta gaur egun gelaren laurdena hala da! Denbora beharko da, baina etorriko da".

**nen familieek** zein ezberdin eta zein berdin diren azaldu dute.

Elkarrizketatutako familien kasu gehienetan bi hitz kasik antonimo erabili dituzte familia barruko esperientzia eta kanpokoa deskribatzeko. Naturaltasunez bizi dute euren familiaren izaera, izan kolore, jatorri, odol desberdinekoa... "Argi geneukan ume bat eduki nahi genuela elkarrekin, eta ez genuen zalantzarik izan; naturaltasunez eman genuen urratsa". Naturaltasun hori, gura-

soentzat bezain "osasungarria" da seme-alabentzat eta ingurukoentzat, Itxaro Bordaren arabera.

Baina, era berean, ukazio-iruzkinak ere entzun behar izan dituzte: "Umea bakarrik egin nuelakoan, egoista eta ebasle bat nintzela erraten zidaten", kontatu du Bordak. Edo, "hau ez da zuen alaba!" eta antzeko iruzkin mingarriak ere aditu beharra izan dituzte askok: "Askotan helduek, gu ezagutu ere egin gabe egiten dituzten galderek

min handia egiten dute, "batez ere haurraren aurrean edozer galdetzen dutenean". Egitura klasikotik atera diren familia hauen kasuan, oro har, kanpora begirako prozesua zailagoa izan da etxe barrukoa baino: "Inguaruarekiko etengabeko egokitapen-prozesua egin behar duzu", kontatu du Txus Manterolak, Xabier Euzkitzeren emazteak.

**Hazi Hezi**ren bisita onartu duten bost familieek, oro har, gaitzespen nabarmenik jaso ez badute ere, bada



## “Jarri musika, baina amaren hizkuntzan”

Errumanieraz agurtu dute ama Marak eta Mateik eskolatik atera direnean, eta euskaraz aita. 4 urte egiteko ditu Marak eta 6 Mateik. “Esaten dute nik oso barregarri egiten dudala errumanieraz —dio txantxetan **Txuma Murugarren** kantariak—, baina bai hizkuntza eta bai beste kultura bat barneratzea oso aberasgarria da familia osoarentzat, bestelako moduz ikusten duzu jendea, eta ez soilik errumaniarra. Beste kultura batzuk balioesteko ere balio dizu”. Aniztasuna jatorrian du familia honek. Bucarestekoa da **Alina Ivan**, Murugarrenen bikotekidea, eta 16 urte daramatza Euskal Herrian. Euskaraz jori eta oparo mintzatzen da, eta hori izan da, bikotearen ustez, Ivani hemen atea ireki dizkiona. “Alina errumaniarra eta euskalduna izaki, jendeak eskertu ere egiten dio gure kulturara etorri izana”. Alta bada, errumaniarra dela esaten duenean jendea harritu egiten da, ez baitu bat egiten jendeak errumaniarrez daukan

estereotipoarekin. “Hemen bizi den alemaniar bat edo daniar bat, jendearen begietara, ez da etorkin bat, baina errumaniar bat bai, atzerritar pobrea da errumaniarra jendearentzat; horrek esan nahi duen guztiarekin”. Bikotearen arabera, hainbat politikarik eta komunikabidek indartu egiten dute etorkin batzuekiko mespretxua, estereotipoak indartuz; “badakigu ez dela egia, baina krisi garaian jendeak are gehiago sinesten ditu halakoak”. Txirotasuna lotzen da errumaniarrekin, baina kultur aniztasuna aberastasun gisa bizi du Murugarren-Ivan familiak, bateko eta besteko onena hartzen dute. Hemen sentsibilizazio handiagoa bizi dute genero berdintasunarekin, tratu txarren aurka edo homosexualiekiko. Kulturalki, Balkanetako musikak, ipuinek eta oro har kulturak estimu handia du etxean. Hurrek hala esaten diote aita kantariari sarri: “Jarri musika, baina amaren hizkuntzan”.

zer eginik oraindik. Sexu bereko gurasodunen familiek besteek ez dituzten oztopo administratiboak dituzte, kasu, ezkondu edo izatezko bikote izan behar dute erditu ez den ama gurasotzat hartzeko, adibidez. Ipar Euskal Herrian berriki aitortu diete bikote homosexuali bikotekidearen seme-alabak adoptatzeko eskubidea, eta urtebete eskas besterik ez da ezkontza homosexualak onartu zituela Frantziako Estatuak. Hegoaldean, berriz, atzera egiteko arriskua dago, Madrilgo Gobernuak

bikote heterosexuali soilik onartzen die ernalketa lagundua ospitale publikoetan egiteko aukera, guraso bakarrak edota sexu berekoak aukera horretatik kanpora utzirik, eta Nafarroan erabat betetzen da bazterkeria hori, Osasunbideak lehen egiten zuen bezala bikote heterosexuali kide ez diren emakumeei laguntza ukatzen diete; Osakidetzak haatik, emakume guztiei ernalketa lagundua egiten jarraitzea erabaki zuen. Mundura begira, oraindik ere 78 estatutan legez kanpokoa da

homosexualitatea eta zazpi herrialdetan heriotzaz zigortzen da sexu aukera hori.

Komunikabideak eta eskola aipatzen dituzte gaurko familia-ereduetara egokitze premia duen gune garrantzitsu gisa, aniztasunaren isla gero eta handiagoa bada ere, txikia baita oraindik. Badira testu-liburuetan mila koloretako familiak agertzeko ahalegin batzuk, kultur aniztasuna sustatzeko... baina Asfamogi Gipuzkoako Gurasobakarren

Hil ala biziko erronka zen, **Itxaro Borda**rentzat, ama izatea. "Normaltasunaren bidea urratzea igurikatzen baldin banuen iruditzen zitzaidalako ez nuela sekula haurrik munduratuko". Artean ez zen "lesbiana deklaratu", baina jada lesbiana baten ikuspuntutik idazten zuen Amaia Ezpeldo detektibea sorturik. Ainara 1987an sortu zen; estatistiken arabera, Frantziako Estatuan, garai hartan familien hamarretik bi guraso bakarrekoa zen. "Euskal munduan familia eredu anitz baziren baina ezkontzaz finkatua hobesten zen". Euren sendiaren berezitasuna "elkarrengandik arras hurbil izanez" bizi dute: "Elkarren arteko dialogoaz, azalpenak emanez, ahalik argienak, ez zena erraz beti". Egunerokotasuna ondoko edozein familiaren antzekoa izan da Bordaren etxean. "Berdina da eguneroko bizitzako puntu askotan: amodioa bada, haurra hezteko nahikundea eta jendartearekiko harremanetan jartzeko xedea ere bai". Galderak, ordea, ugariagoak ziren, bai Bordak lanlekuan erantzun beharrekoak, edo alabak ikastolan: "Hautzaroan galderak egiten zizkidaten ikaskideek, baina gero berehala naturaltasunak irabazten zuen, ezberdintasuna ahanzten zela". "Umea bakarrik egin nuelakoan —azaldu du idazleak— lantokian adibidez, egoista eta ebasle bat nintzela erraten zidaten. Eredu nagusitik baztertzea bekatua bailitzan. Solasaldi luzeak

## "Estereotipoek gaituzte ez-normalak sentiarazten"



genituen haur-psikiatra batzuei aitarik edo gizezkorik gabe familia orekaturik ez zela hazten ahal entzuten genienean. Teoria zen eta bizitzen genuen errealtatea, perfektua ez izan arren, ez zen hain desorekatua ere". Ama-alaben hurbiltasunaz gain, naturaltasuna gako garrantzitsua izan da. "Familia-molde ezberdinekoak naturaltasunez bizitzea osasungarria da. Diskurtso sozial nagusiak barreatzen dituen estereotipoek gaituzte ez-normalak sentiarazten. Gertatzen zaigu zenbaitetan estereotipo horiei egokitu ezinez, gurekiko antsiak, gaitzespenez eta frustrazioz betetzea, orduan bai haurrak gurasoa bezainbat sufritzen duela...".

Gauzak aldatu dira, orduz geroztik, onarpen handiagoa dela diote ama-alabek eta lege aldetik ere egoera hobetuz doala nabarmen-tzen du Bordak. "Eragozpenik ez da Ipar Euskal Herrian lege aldetik. Familiak osatzen ahal dituzte, ezkontzea zilegi da, bikoteko beste kidearen umeak adoptatzea, auzitegien erabakien ondorioz". Bide asko bada egiteko oraino, ordea: "Medikalki lagundu ernalketak eta adopzioak baimentzea adibidez". Oro har, hondar urteotan sendi-eredu patriarkala indartzen ari dela iruditzen zaio idazleari, "hain zuzen ere errealtatea arras alde-rantzizkoa denean, familia homosexual, monogurasoz, familia berrosatuz emokatua".

Elkarteak, adibidez, eskola eta testu liburuak gizartearen atzetik doazela dio, "eskolan familia eredu klasikoa agertzen da nagusiki". Badira sexu aniztasuna lantzeko unitate didaktikoak, Gehituk egina, kasu... Baina oraindik ere zenbait ariketak familia eredu klasikoa dute buruan, adopzioan edo harreran hartutako haurrek erantzun ezin dituzten galderekin osatuak (jaio zirenean zenbat pisatu zuten, bularra ala biberioa hartu zuten jaiotzeko argaz-

kiak, zuhaitz genealogikoa osatzea..., esate baterako). Ume Alaiak haur adoptatuen gurasoen elkarrekin aha-lerin berezia egin du testu-liburuetan eta ipuinetan familia-eredu anitzen errealtatea ager dadin, eta era berean, irakasleak sentsibilizatzen. "Irakasleak oztupo edo lagun izan daitezke, 'marraztu zure aita eta ama' esan beharrean, 'marraztu zure familia' esatean".

Eskolaz gain, kalean jartzen dute

fokua mila koloretako familiek, jendartearen. Iruzkinek, galdera sarkorrek, begiradek, estereotipoek... ematen dute min. Eurek, ordea, aberastasun gisa bizi dute aniztasuna, "beste kultura bat barneratzea oso aberasgarria da familia osoarentzat, bes-telako moduz ikusten duzu jendea", azaldu du Txuma Murugarrenek. Jon Arretxek ere antzeko iritzia du: "Batuketa bat bezala bizi dugu adopzioarena, hemengoa gehi hangoa da, ez dago kenketarik".

Beltza da Atikilt, begibistakoa da. Horixe da **Jon Arretxe eta Cristina Fernandez**en familiaren berezitasuna, eta, era berean, aberastasuna. "Beltza da, eta atentzioa ematen du, zoazen lekura zoazela ere. Behin ezagututa Atikilt da eskolan edo herrian, Arbizun beste bat gehiago da; baina ezezagunen begietara beltz bat da, afrikarra, horrek esan nahi duen guztiarekin". Futbola eta saskibaloia gus-tatzen zaizkion 8 urteko haur bat da Atikilt, pianoa jotzen ikasten ari dena, aita idazlea eta ama ilustratzailea izanagatik ere, liburuak oso atsegin ez dituena, kazetariari irribarre txikiz aitortu dionez. Duela bost urte Etiopiarra joan eta semearekin itzuli zirenean, bazuten kezka gurasoek, semea nola egokituko zen eskolara, herrira... "baina harrera oso ona izan zen, eskolan laguntza jaso genuen irakasle eta hurrengandik, eta hori oso eskertzekoa da". Gerora ere, familia-eredu anitzak eta adopzioa bera ere landu izan dituzte ikastolan, eta gaiaz hitz egitea aberasgarri eta beharrezko ikusten dute gurasoek. Adopzioarena prozesu gisa bizi du familiak, "ez da bukatzen haurra iristean; unean-unean galdera berriei erantzun behar zaie". Bai Atikilt beraren itaunei, baina baita jendearenei ere. Jakin-mina normala iruditzen zaie, baina harago doazen galderek, "askotan helduek, gu ezagutu ere egin gabe egiten dituztenek" min handiagoa egiten dutela diote, "batez ere haurraren aurrean edozer galde-tzen dutenean". Naturaltasunez eta soseguz erantzuten saiatzen dira, baita Atikilt buruan galde-  
ra edo kezka dituela etortzen denean ere, eskolan Afrika leku gatazkatsua dela, beti gerran dau-  
dela edo pobrea dela entzunda etortzen denean, adibidez. Oroz gain, haren ongizatea zaintzen saiatzen dira gurasoak, indartzen, adoretzen, hango gauza onak erakustarazten...  
Eurek, izan ere, aberastasun gisa

## "Zorte handia da Afrikaren parte bat geure etxean izatea"



bizi dute semea afrikarra eta euskalduna izatea: "Zorte handia da Afrikaren parte bat geure etxean izatea; batuketa bat bezala bizi dugu adopzioarena, hemengoa gehi hangoa da, ez dago kenketarik", dio idazleak. Familiari Afrikarekiko sentsibilizazio berezia sortu dio Atikilt etorrerak: "Semea hango izateak begi bereziarekin begiratzera zaramatza, bai hango berriak gehiago jakitera, baina baita hemen Afrikaz eta afrikarrez zenbaitek daukaten irudiagatik mintzera ere".  
Minak baino handiagoak izan dira

pozak oraingoz. Beldurra etor daitekeenari diote, Altsasura edo Iruñera edo Bilbora lagunekin joaten denean... nerabezaroan... "horrek bai, beldur apur bat ematen du; nerabezaroa aje guztiak eta adopzioaren plusa izango dugu; horixe da gure ezaugarria, familia guztiek dituzten gorabeherak ditugu, adopzioaren plusarekin". Atzera begira, ordea, haurra adoptatzea erabakitzea, tramiteak, Etiopiaraino joan eta haurrarekin itzultzea, eskolatzea... "orain artekoa uste baino errazagoa izan da".

## “Mila kolore familia’ bat gara, baina praktikan, familia normal baten funtzionamendua dugu”

Elurrek ematen dizkio lanak **Xabier Euzkitze eta Txus Manterolaren** familiari. Gainontzean begibistakoa da harmonia. Kolore ezberdinetako begiak dituen zakurkumeak ordea, oraintxe jauzi, oraintxe jolas, apur bat aztoratzen du familia. Mila koloretako familia bat da hau. Aner seme biologikoa, Garazi Kolonbiatik adoptatua eta Jon txikia harreran hartua dute. “Alde horretatik bai, *mila kolore familia* bat gara, baina praktikan, egunerokotasunean, familia normal baten funtzionamendua daukagu, gurasook tratamendu berbera ematen diegu bai Joni, bai Garaziri eta bai Anerri, jatorri eta abizen desberdinak izanagatik”. Eta hala izan da Senegaldik edota Saharatik denboraldiak pasatzera etorri izan zaizkien haurren kasuan ere, “gure teilatuean dauden bitartean eskubide eta betebeharrak berberak dituzte guztiek”.

Baina etxetik kanpo jende zenbaitek bai, egin izan dizkiete bereizkeriak: “Askotan entzun behar izaten ditugu, ia egunero, ‘zuek bat bakarra daukazue’, eta antzeko komentarioak —azaldu du telebistako aurkezleak—; eta guk ezetz, guk hiru ditugula erantzuten dugu, ‘baina zuena-zuena bat bakarra da’. ‘Gureak-gureak inor ez’, pentsatzen dut neure artean, ‘bakoitza bera da, baina gure etxean hiru dira’. Hemen odolak dauka, nonbait, inportantzia!”. Ez gurasoei bakarrik, haurrei ere egiten dizkiete halako iruzkinak: “Garazik hiruzpalau urte zituela, elkarri eskua emanda gindoazen kalean, eta adineko emakume batek gure umeari begiratu eta esan zigun, ‘hau ez da zuena!’; ‘izango ez da bada, bestea bezalaxe!’ ‘Ez, ez, ez! —jarraitzen zuen hark— hau ez da zuena’, eta Garazi defenditu egin zen: ‘Ni Kolonbian



jaioa naiz baina zarauztarra naiz’; eta emakumea jo eta ma gelditu zen”.

Familia odoletik harago osatzea, harrera eta adopzioko seme-alabekin osatzea, Manterolaren arabera, ez da norbere sendiaren baitan egin beharreko prozesua soilik, “inguruarekiko etengabeko egokitzapen-prozesua egin behar duzu”. Eurek hasieratik present izan zuten aukera. “Harrera-etxeetako errealitatea ezagutu genuenean, ez genuen atzera egiteko biderik izan. Hainbeste ume ikusten dituzu, jaioberriak, urtebetekoak, seikoak... eta bakoitza bere motxilarekin...”. Jon ezagutzen hasi zirenean, hala esan zien Alex izeneko mutiko batek, orduan 6 urte zeuzkanak:

“zer, Jon zuen etxera joango al da? Jo! hori suertea! ni ez nau inork eraman nahi”.

Bost urte igaro dira ordutik, eta orain beste galdera bati erantzun beharra izaten dio bikoteak, honakoa, kalean jendeak egina: “Eta gero, kentzen badizute?”. “Baina zer kendu?”, erantzuten du amak: “Sekula ez da moztuko lotura hori; egunen batean guraso biologikoak Jon hartzeko moduan baleude, tragedia horri buelta eman diotelako izango da, eta bitartean behar zuena, familia bat, goxotasuna, giro normalizatu bat eskaini dizkiogu, ez dago kenketarik: eman egin diogu, eta berak are gehiago eman digu. Jendeak uste duena baino naturalagoa eta sinpleagoa da dena”.



✓ Irudien beldiruz gaureraz

**kolorekolore.com**

**k**

## Nire familia!

**Osatu zure familia. Hemen dituzu nini, haur eta heldu ereduak. Behar dituzun adina fitxa inprimatu edo zure kabuz marraztu eta zure familiako kideak irudikatu. Bukatutakoan moztu panpintxoak eta zure gelan itsasi, bata bestearen ondoan eskutik helduta!**



heldua  
moztu



haurra  
moztu



ninia  
moztu

**hh**  
hik hasi  
k **sustatzailea**

Nire familia! - Egilea: nini\_bot

## ELIKADURA


### JANARI OSOA

Entzun izan dut osasunerako askoz hobea dela arroz zuria jatea baino integrala jatea. Horrenbestearainoko diferentzia al dago bien artean? Zein elikagai daude osoak direnak baina askotan finduak jaten ditugunak? Zer garrantzia du osoa jateak?

**BAI, IZUGARRIZKO** diferentzia dago. Zereal osoak, bitamina, mineral, zuntz eta substantzia fitokimikoetan aberatsak dira. Finduak aldiz, kanpoaldeko azala eta zahirik ez izatean, propietate horiek galtzen dituzte. Adibide bat jartzearen, ogi osoak 800 substantzia fitokimiko ditu eta zuriak soilik 8.

Azken urteotan zereal osoak gure gorputzean nola eragiten duen asko ikertu da. Hona hemen ondorioetako batzuk:

- Egunean 3 anoa zereal oso jateak, gaixotasun kardiobaskularretako heriotza prebenitzen du.
- Zereal finduak osoagatik aldatzeak, heriotza goiztiarra



izateko arriskua gutxitzen du.

- Idorreriaren prebentzioan eta tratamenduan laguntzen du.
- Odoleko zirkulazioa hobetzen du.
- Diabetea eta kolesterol altua prebenitzen ditu.
- Hainbat minbizi izateko arriskua gutxitzen du.
- Pisu egokian mantentzen laguntzen du.

Aipaturiko guztiagatik, zerealak osorik jatea oso garrantzitsua da. Orokorrean zereal ohikoenak (pasta, ogia, arroza edota gosaritako zerealak) findurik kontsumitzen dira.

Beraz, garrantzi handia du etxean zerealak osorik jateak, haurrek txiki-txikitatik ezagutu ditzaten eta horietara ohitu daitezten.

### GABONETAKO GOZOAK

Gabonak gainean ditugu, eta gure etxean dagoeneko hasi gara turroi, txokolate eta gainontzeko gozoak jaten. Haurrei asko gustatzen zaizkie eta neurria hartzea kostatzen zaigu. Horien pareko jaki osasungarriak gomendatzerik izango zenuke?

**TURROIA, MAZAPANA,** polboroiak... Gabonetako jaki ohikoak badira ere, horien kontsumoa ahalik eta txikiena izatea gomendatzen da. Horiek azukre eta gantzetan aberatsak baitira. Horretarako, etxean horrelako gozorik ez izatea edota neurrian edukitzea komeni da. Etxean haurrak gozoak ikusten baditu edota etxeak kontsumitzen ikusten baditu, ziurrenik berak ere nahiko ditu. Debekatzea ez da soluzioa. Horregatik, etxetik kanpo jango dituela baldin badakigu, etxean hobe ez kontsumitzea.



Txokolate beltza eta algarroba, turroia edota polboroiak baino aukera egokiagoak dira. Nahiz eta merkaturako turroi azukre gabeak edota gantz gabeak gozoak ere aurki ditzakegun, jaki osasungarri bezala ezin ditugu kontsideratu.

Bestalde, gozo horiez gain badira Gabonetako otorduetan postrean kontsumitzen diren beste jaki osasungarri batzuk: fruta (mazedonia, konpota...), datilak, fruitu lehorrak...

Gabonetan mahai gainera horrelako jakiak ateratzeko ohitura hartzea komeniko litzateke.

## ELIKADURA



**Libe GARMENDIA**  
Dietista-Nutrizionista

### SOLIDOAK

*Gure semeak 5 hilabete ditu. Noiz has gaitzke elikagai solidoak ematen? Zein jakirekin has gaitzke?*

**HAURRAK 6 HILABETE** inguru dituenean solidoak eskaintzen hasteko momentu egokia da. Elikagai solidoak jaten hasteko hiru ezaugarri erakutsi behar ditu:

- Euskarri baten laguntzarekin eserita eta burua zutik mantentzeko gai izatea.
- Begiak, eskuak eta ahoa koordinatzea; janaria begiratu, hartu eta ahoan sartzeko.
- Elikagai solidoak irensteko gai izatea, instintiboki kanpora bota gabe.

Ezaugarri horiek eman arte amaren esnea edo formulako esnea soilik hartzea oso garrantzitsua da. 6. hilabetea baino lehenago solidoak edo esnea ez den beste likidoak emateak, edoskitzaroaren amaiera eragin eta haurraren-gan arazoak (obesitatea, alergia...) sor ditzake.

Ikerketek erakutsi dute, solidoak ematerako garaian ez duela garrantzirik zein elikagairekin hasi; munduko leku batzuetan haragiarekin hasten dira, beste batzuetan berriz zerealekin... Euskal Herriko kasuan fruta edo



zerealekin hastea da ohikoena. Garrantzitsuena, jakiarekiko duen tolerantzia ikusteko, poliki-poliki eta progresio batekin abiatzea da.

Ez dugu ahaztu behar, solidoak ematen hasteko prozesua edoskitzaroaren osagarri izan behar duela.

### FRUTA

*Gure alabak ia ez du frutarik jaten. Horregatik, gosarian laranja-zukua eta arratsalde batzuetan frutazko zukuak ematen dizkiogu. Ondo ari al gara?*



**FRUTA ZUKUTURIK** hartzea edo fruta osorik jatea, nutrizionalki ez da gauza bera. Baso bat fruta zuku egiteko, fruta bat baino gehiago zukutu behar izaten da. Hori kontuan izanik, baso bat fruta zuku edatea kaloriatan aberatsagoa da, fruta pieza bat osorik jatea baino. Azukre kantitatea ere, nahiz eta zukua naturala izan, altuagoa da. Zuntz kantitatea aldiz, txikiagoa. Zuku artifizialen kasuan, azukre eta kaloria kantitate altuagoak dituzte. Asetasunean ere badago

diferentzia; fruta osorik jatean mamurtzea lantzen da eta honela, asetasun handiagoa lortzen da.

Fruta zukuen (naturalak eta artifizialak) ohiko kontsumoak obesitatea eta diabetea izateko arriskua handitzen du. Hortaz, fruta zukuen kontsumoa noizean behin izatea gomendatzen da eta ez egunerokoa.

# “Emakumeak oso kontrolatuak gaude orokorrean, eta amatasunari dagokionean ere bai”

MARI LUZ ESTEBAN

Euskal Herrian amatasunaren gaia oso gutxi ukitu dela dio EHUko Gizarte Antropologiako irakasleak: “Ama onaren ideia oso sartua daukagu”. Ideologia gogor hori ukitu ezean, emakumeek traba asko izaten jarraituko dutela irizten dio. Erdigunean amatasuna ez, umeen zaintza jartzearen aldekoa da.

“Ama-maitasunean barneratua daukagu ematearen ideia, guk ematen dugu eta ez dugu ezer eskatu behar, eta ideia hori arriskutsua da”

EHUko Gizarte Antropologia arloko irakaslea eta Ikasketa Feministak eta Generoa masterreko koordinatzailea da, besteak beste, Mari Luz Esteban baina Familia Plangintzako mediku izan zen lehenengo. Amatasuna ikergai izan du sarri, emakumeen mendekotasunaren aitzakiatzat erabilia izan baita historikoki gai hori. *Amaren heriotzak libreago egin ninduen* poemarioa du lilburu berriena, eta oihartzun handia izan du, halaber, duela hiru urte argitaratutako *Crítica del pensamiento amoroso* saiakerak ere. Bietan amatasuna aipagai du.

**Gurasotasunaz, amatasunaz, amatasunez, aitatasunez... gutxi eztabaidatzen dela esan izan duzu. Zein alderdi kuestionatzea interesatzen zaizu?**

Niri asko interesatzen zait umeen zaintzaz hitz egitea. Uste dut gehiago hitz egin behar dela umeen zaintzaz eta gutxiago amatasunaz. Nola antolatu, orokorrean, umeen zaintza,

eta horren barruan, noski, amatasuna sartzen da. Jarraitzen badugu amatasunaz bakarrik hitz egiten, aitatasuna beti osagarri moduan ikusiko dugu eta ez diogu umeen zaintzari bere osotasunean begiratuko. Abiapuntua umeen zaintza da, eta hor gurasoak daude, gizartea dago, antolaketa eskatzen du... hainbat alderdiri begiratu behar zaie; ez ginateke amatasunetik begiratzen hasi behar.

Orain, amatasunaren gaira etorrita, kezkatua nago, amatasunari buruzko ideologia kontserbadore bat zabalitzen ari dela ikusten dudalako, gero eta indartsuago, orokorrean, eta Euskal Herrian ere bai eta feminismoaren barruan ere bai. Ideologia kontserbadore hori oso naturalizatzailea da, hau da, sozialki dauden ezberdintasunak (zaintza-lanen banaketa, etab.) natural moduan irudikatzen ditu, berezkoak bailiran; ideologia horri jarraitzen badiegu, emakume eta gizonak gero eta



Mari Luz Esteban Galarza (Burgos, Espainia, 1959), Basaurikoa da.

diferenteago egongo gara, eta horrek, pertsonalki kezkatzen nau.

Halere, ideologiak —edo diskurtsoak— eta praktikak begiratu behar direla uste dut. Amatasunaz oso ideologia gogorra daukagu, “ama onaren” ideia oso sartua daukagu, eta horren aurrean praktikak oso anitzak dira. Jendeak zer zailtasun, zer kontraesan eta zer estrategia erabiltzen dituen aztertu eta kontatu behar da. Hori interesatzen zait.

**“Feminismoa eta amatasunaren gaia eskutik joan dira betidanik, emakumeen mendekotasunean gai horrek izan duen eta duen garrantziagatik”. Zer nolako garrantzia izan du? Dauka?**

Amatasunaren gaia, emakumeak ama ginelako pentsatzea, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna garatzeko ardatzetako bat izan da historikoki. Beti egon da amatasunaren ideologia naturalizatzaile bat, baina

azken 20 urteetan zergatik hartu du, bat-batean, halako garrantzia ideologia horrek? Elisabeth Badinterrek *La mujer y la madre* liburuan oso ondo kontatzen duen moduan, hain justu, feminismoak aurrera egin duenean gizentzen joan da ideologia hori. Badinterren ustez, hor badaude faktore batzuk kontuan hartzekoak: alderdi askotan aurrera egin dugu; baina nora goaz? Ondo gaude? Parekidetasuna lortzen goazen neurrian zalantzak sortu dira; dena ez dago lortuta. Ziurgabetasun egoera horretan, emakume batzuek esaten dute, “zaintza gure arloa izan da beti eta hor ekarpenak egin ditugu, zergatik alde batera utzi, zer etorriko den jakin gabe?”, eta horri ideologia zientifikoa gehituz, ikaragarri gizentzen da amatasunaren ideologia gogor hori.

***Crítica del pensamiento amoroso* liburuan diozu maitasun-pentsamendua desberdinkerian oinarrituriko**

**ordena soziala ezartzeko zutabe izan zuela Garai Modernoak, eta jarraitzen duela izaten. Maitasun-pentsamendua emakumeak menpeko, ez-oso egiten dituela diozu. Ama-maitasuna non kokatzen duzu gizarte-antolaketa eredu horretan?**

Gizaki baten ibilbidea markatzen joango den pentsamendua da maitasun-pentsamendua. Puzzle bat bezala da: pertsona —subjektua— izaki emozional bezala bizitzean, maitasuna erdigunean duena, bikotea eta ezkontza ulertzeko modu batekin lotzen duzu; seme-alabak baldin badituzu, amatasuna eta gurasotasuna ulertzeko modu zehatz batekin lotzen da gero. Azken batean, antolaketa sozialaren muina bihurtzen da maitasuna erdigunean duen subjektu hori. Horrek sortzen du bikotea, familia, elkarbizitza... ulertzeko eredu bat, eta eredu horren ideal bat antolatzen du. Horren gainean diskurtso adituak sortuko dira, beraz, badoa osatzen bizitza ikusteko

**// Amatasuna eta aitatasunaren idealizazioa ez badatoz bat, desoreka bat sortzen da //**

**// Ama bati oraindik ere, aita bati eskatzen ez zaiona eskatzen zaio. Ikaragarriko esijentziak ditugu //**

**// Segun non zauden, ama izatea, gaur egun arrisku bat da. Egoera ikaragarria da //**

modu bat. Eskola batean ume bati galdetzen badiozu bizitza zer den, antzeko zerbati erantzungo dizu: "Ikasi, gero lan bat topatu, ezkondu eta umeak edukitzea". Errealitatean bizitza ez doa beti horrela, aukera ezberdinak daude, baina ibilbide ideala eraikitzen da maitasun-pentsamenduaren gainean, gizakia ikusteko modu bat baina baita gizartea antolatzeko ordena ekonomiko, politiko eta sozial oso bat ere.

Maitasun-pentsamendua desberdin aplikatzen zaie emakumeei eta gizonei. Emakumeei exijitzen zaiena ez zaie exijitzen gizonei, eta oinarri horretan desberdinkeria handia dago. Horregatik diot nik, zer da emakume izatea? Maitasuna erdigunean duen izaki bat. Egongo dira gizonak "emakume" direnak, baina salbuespenak dira, nahiz eta gizonak oso maitekorrak izan, zaintzaileak izan, maitasuna erdigunean dutenak oso gutxi egongo dira; nik neuk ez dut bat bera ezagutzen, bai maitasunari garrantzia handia ematen diotenak eta konprometitzen direnak, baina bere bizitza horren inguruan osoki antolatzen duenik ez; aldi, emakumeak, bai.

Hiru esparrutan du, nire ustez, eragin handiena maitasun pentsamenduak: bikotean, zaintzan eta amatasunean.

#### **Nola eragiten du maitasun-pentsamenduak amatasunean?**

Ama-maitasunean —beste maitasun motetan ere bai— oso barneratua daukagu ematearen ideia, eta oso arriskutsua da. Guk ematen dugu, eta ez dugu ezer eskatu behar, umeak ume direlako, eta bikotea bikote delako... eta ideia horrek oso egoera ahulean jartzen du emakumea. Zuk ama ona izateko dena eman behar baduzu, eta gero ez baduzu eskatzerik, bada, normalean ez zaizu ezer etorriko bueltan, edo beste maila batean etorriko zaizu. Hori arazo bat da, eta hori oso barneratua daukagu gizartean: ama ama dela, eta amak beti egon behar duela hor, hiltzen den arte. Ama onaren ideia hori oso kaltegarria iruditzen zait emakumeentzako. Era berean, ama ahalguztidunaren ideia ere badugu, eta hori oso indartsua da afektiboki, baditu bere alde onak, baina kate bat da, azken finean.

#### **Liburuan diozu XIX. mendeko subjek-**

**tu feminista Emakume Ama izan zela. XX. mendekoa, berriz, Emakume Ez Ama, Simone de Beauvoirren ideien haritik. Asko dira amatasuna oztotzat biziz hazi direnak.**

Nik hori ezagutu nuen, eta horri buruz asko hitz egiten zen mugimendu feministan sartu nintzenean. XX. mendeko diskurtso hori beharrezkoa izan zen momentu hartan, amatasuna beste nonbait kokatzeko beharrezkoa zen, eta emakumea eta amatasuna bat zirela zioen diskurtsoa hausteko. Baina esango nuke gaur egun ez dagoela presente, emakume feministei ez zaie transmititzen ama ez izateko ideia, gure garaian bezala.

Guk, hemen, maila batean behintzat, alboratua dugu Emakume Amaren ideia ere. Gaur egun, Euskal Herrian gurasoek ez dute nahi euren alabak ezkondu eta umeak edukitzea bakarrik. Aita edo ama batek, ahal badu, bere alabak ikas dezan nahi du, eta autonomia edukitzea. Hori orekatu dugu. Orain, ama eta emakumea banatu dugula ikusten dut, baina uste dut ez dugula orekatu emakumea eta maitasuna. Feminismoan, askok jarraitzen dute pentsatzen emakumeok ekarpen bat egiten diogula gizateriari, sentiberatasunaren aldetik. *Amatasuna* eta *emakumetasuna* derrigorrez ez doazela batera erakutsi dugu, baina *maitasuna*, *zaintza* eta *emakumetasuna* bereizi direnik ez dut uste. Igual hori da orain dugun erroka, zintzilik dugun erroka.

#### **Euskal Herrian ere, maila teoriko edo diskurtsiboan amatasuna idealizatzen dela diozu. Matriarkatuaren diskurtsoa erabat lurperatu gabe dagoelako?**

Euskal Herrian amatasunaren ideologia oso gutxi ukitu dela iruditzen zait, feminismotik bai baina, orokorrean, ez. Ama indartsu horren bertsio diferentek ditugu, eta bertsio horiek izan dezakete zerbait interesgarria, baina ama ahalguztidunaren ideiak kalte handia egiten du, eta nik esango nuke gai hori ukitu gabe dagoela. Hori ez bada ukitzen, traba izango dugu emakumeok. Arlo batzuetan *aurrera* egiten ari gara, gauzak lortzen ari gara, baina amatasunaren ideala ez badugu ukitzen edozein gaitan aterako da, presoen gaian edo zaintza-lanak banatzerakoan, berdin da... Matriarkatuaren ajeak ba-



daude, nahiz eta argi egon ezin dela demostratu, beti aterako zaizu norbait esanaz hemen matriarkatu bat egon dela.

### **Zein arrisku ikusten dizkiozu amatasunaren idealizazioari?**

Arrisku asko ikusten dizkiot. Amatasunaren idealizazioa eta aitatasunaren idealizazioa ez badoaz bat, desoreka bat sortzen da, eta gizonak eta emakumeak diferente ikusteko bide bat sortzen da, betebeharrak eta eskubideak beste era batera ikusteko bide bat. Emakumetasunaz eta gizonetasunaz zer ulertzen den ezberdina da.

Amatasunaren idealizazioa ematea da, "eman, eman eta eman, eta ezer ere ez eskatu". Horrek apurtzen du, nire ustez, gizarte batean funtsezkoa den elkarrekikotasuna. Umeak, noski, ez dizu emango zuk ematen diozun neurrian, baina zure inguruneak eta gizarteak nolabait bueltatu behar dizu zuk emandako hori. Hor egon behar dira elkarrekikotasun-harremanak. Hori,

gainera, mundu mailan da inportantea. Amatasunaren idealizazioak, nire ustez, apurtzen du hori. Jartzen gaitu emakumeak elkarrekikotasun horretatik kanpo, edo oso ahul behintzat.

Beste problema bat honakoa da: zuk zure burua emakume gisa ikustean erdigunean amatasunajartzen baldin baduzu, non gelditzen dira beste proiektuak? Maitasuna eta ama-maitasuna beste proiektuekin batera doan zerbait izan beharko lirateke. Amatasunaren idealizazioa, printzipioz, horren kontra doa, pisu guztia amatasunari ematen baitio. Nik uste dut egunerokotasunaren kudeaketan mugak jarri behar zaizkiela hainbat gauzari, adibidez, seme-alabei, emate horri.... Amatasunaren idealizaziotik zaila da mugak jartzea, dena eman behar baitiozu eta etengabe. Kultura batean, non etengabe guztia ematera bultzatzen gaituzten, mugak jarri behar ditugu. Beste kultura batean biziko bagina, gauzak beste era batera izango lirateke. 30-32 urte bitarteko gazteekin (gu-

txik zituzten umeak) ikerketa bat egin dugu, batzuek esaten ziguten, "emakumeek eskubidea daukate ama izateko eta lana edukitzeko, eta eurek erabaki behar dute"... hori zen diskurtsoa; baina gero, amatasunari halako garrantzia ematen zaionean, non gelditzen da aukeratzeko eskubidea? Argi dago korrante ezberdinak daudela Euskal Herrian gaur egun, jende gehienak ez duela pentsatzen emakume izatea ama izatea denik; baina, hala ere, ideologia horrek, nire ustez, oraindik pisua du.

### **"Amatasunaren ideologia atzerakoia defendatzen duen ofentsiba oso bat" eratu dela diozu. Zein dira ofentsiba horren ezaugarriak?**

Hori argi dago, nire ustez. Komunikabideetan presente dago amatasunaren ideologia atzerakoi bat, zeharka edo zuzenean. Ama onaren ideia oso presente dago. Hainbat hedabidetan ateratzen dira aitak, baina nagusiki ama onaren ideologia hori zabaltzen da. Zientifikoki ere, pediatarrengana

// Haurrarentzat ona den guztia, ongizate psikologiko eta fisiko guztia, edoskitzetik datorrela esatean arazo bat ikusten dut. Hori da nire kritika //



// Ez ditugu gizonak behartzen ezertarako ere; borondate kontua da dena //

// Zaintza nola egin hitz egin behar dugu, eta horren barruan gurasotasunaz eta parekidetasunaz //

joaten bazara, adibidez, oso argi eduki behar dituzu zenbait gauza haien aurrean hitz egiteko. Haietako batzuek ere amatasunaren ideologia atzerakoia transmititzen dizute, ama onateza zer den eta zer ez den transmititzen dute. Kolektibo horiek oso presente daude orokorrean gizartean, eta baita sare feministetan ere. Ofentsiba horretan daudenak, gainera, kexatzen dira ez daukatela hitzik, baina babesak dute —babes zientifikoa, medikua, soziala, hezitzaileen babesak...—.

**Baina adibidez, lan merkatua kontra daukate amek. Azken aldiko adibideak aipatuz, Espainiako enpresarien zirkuluko presidentek esana du haurdunak ez dituela hartuko, Apple eta Facebookek amatasuna atzeratzeko obuluak izoztu nahi dizkiete emakumezko langileei...**

Bai, jakina, ados nago horretan. Bai, segun non zauden, ama izatea gaur egun arrisku bat da. Egoera ikaragarria da. Amatasunaren ideologia hain da bortitza jendeak dioela, "ba orain, umea daukadala, umea zainduko dut eta lana utziko dut edo lana bilatzea atzeratuko dut".

Kontuan izan behar dugu amatasuna oso esperientzia anitza dela, eta guk homogeneizatzeko joera dugula, nik ere bai. Amekin hitz egiten baduzu, esperientziak ikaragarri anitzak dira, ama oso diferenteak daude. Baina, oroko-

rrean, lehentasuna umeak zaintzeak dauka, lana galtzearen aurretik. "Umea zainduko dut, eta gero topatuko dut lana"; bai, baina ikusiko dugu gero.

**Baina gaur egun, haur-eskolan daude ume gehienak lau-sei hilabeterekin.**

Ideologia eta praktika bereizi behar ditugu. Ideologiak denongan du eragina, kontzientzia handia dugu denon ere bai. Ideologia begiratu behar da, zein diren diskurtsoak... eta beste gauza bat da jendeak zer egiten duen, eta hor klase sozialaren arabera, adinaren, ideologia feminista ala ez feministaren arabera, formazioaren arabera... praktika desberdinak egongo dira. Eta hori, igual ez daukagu nahikoa aztertuta jakiteko jendeak zer egiten duen. Euskal Herrian ikerketek erakutsi dute emakumeek estrategia oso ezberdinak dituztela umeen zaintza eta lana bateratzeko. Normalean esango nuke estrategia horiek gizonekin partekatzen direla, baina ez erdi-bana, gizonak nahiko periferian gelditzen dira, eta askotan emakumeen artean bilatzen dira irtenbideak. Edo kontratatzen da beste emakume bat, edo amonengana jotzen da, batzuetan aitonengana ere bai. Bereizi behar da ideologia —eta ideologiak praktikan zer eragin daukan— eta praktika.

**Amek asko hitz egiten dute erruduntasunaz; idealizazioak eta ama onaren**



### **ideiak eraginik ba al du erruduntasun-sentimendu horretan?**

Ama bati, oraindik ere, aita bati eskatzen ez zaiona eskatzen zaio. Ikaragarriko exijentziak ditugu amekiko. Horrek erruduntasun-sentimendua dakar, eta aldatzea zaila da. Erruduntasuna oso zabaldua dago emakumeengan, baina gizonengan ez. Gizon errudunak ez ditut ezagutzen, egongo dira, baina oso gutxi. Hori zaintza alor guztietan gertatzen da. Gizonak, zaintzen ez badute ere ez dira errundun sentitzen; izango dituzte euren kontraesanak, baina emakumeak errundun sentitzen gara. Hori ideologiaren eta diskurtsoen eragin soziala da, emakumeen eguneroko praktikak ideologia atzerakoien kontra joan arren ere, emakume horiek badute "gaizki" egiten ari direnaren sentimendua.

Gizartean presio handia dago amen gain. Ez da bakarrik hedabideetako presioa, edo diskurtso mediku-zientifikoarena... inguruko presioa handia da. Ama bati edozeinek ematen dizkio aholkuak.

### **Eta zergatik dauka gizarteak amatasunean eta umeen zaintzan hainbeste sartzeko zilegitasuna?**

Emakumeak oso kontrolatuak gaude orokorrean, eta amatasunari dagokionean ere bai. Ama onak izateko exijentzia ikaragarria daukagu, eta ama onak izate hori zer den besteek —pediatrek, komunikabideek...— esaten digute. Normalean emakumei errazago esaten zaie zer egin behar duten eta zer ez. Infantilizatuago gaude sozialki; orduan, adituek esaten digute zer egin behar dugun, eta aditua ez den edozeinek ere bai. Dena den, nire inguruan dauden aitek, aita-aita-zaintzaileak direnek ere esaten dute parkera joatean guztiek esaten dietela zer egin behar duten umea negarrez hasten denean, adibidez.

### **Naturalismora bueltatzearen kritika egitean, "edoskitzearen kolonialismoa" aipatzen duzu horri loturik. Zergatik diozu edoskitzea kolonialismoa izan dela?**

Aztertzeke dagoen zerbait da, baina uste dut froga batzuk badaudela. Nondik etorri da Esnearen Ligaren diskurtsoa? Elkarte hori Estatu Batuetako Familia Kristauaren Mugimendu delakoan sortu zen 50. hamarkadaren

erdian. Haiek lehengo hippiekin aliatu ziren, baina gero aliantza apurtu zen muturreko katolikoak abortuaren kontra zeudelako. Hortik joan zen hedatzen eta hortik etorri zaigu diskurtso hori; gerora diskurtso mediko-zientifiko gogor bat batu zaio. Nik neuk gogoan dut diskurtso hori zabaltzen ari zen Esnearen Ligako lehenengo emakumea ezagutu nuela, emakume iparramerikar bat zen; kanpotik etorritako bat zen. Hemen amatasunaren ideologia gogorra daukagunez, matriarkatuaren ajeetako bat hori delako, pentsatu behar dugu nahiko erraz sartu zela Esnearen Ligako diskurtsoa, eta gure beste diskurtso batzuekin konbinatu zela. Baina ez da guztiz hemen sortu, horregatik erabiltzen dut kolonialismoaren ideia. Matriarkatuan amari boterea ematen diogu, baina horrek ez du esan gura ama ona denik, baizik eta ama boteretsua dela esaten ari gara. Hemen bi gauzak konbinatu dira.

### **Dena dela, hemen eradoski lehen ere egiten zen.**

Bai, baina halako garrantzirik eman gabe. Ni edoskitzearen aldeko diskurtsoa egiten dutenekin oso kritikoa naiz. Ez nago edoskitzearen kontra, noski ezetz. Baina hainbeste mitifikatzearen alde ere ez nago. Eman emakumei eradoskitzeko erraztasunak, baina ez inor behartu. Gero, bi, hiru, lau urtez eradoskitzea zentzuzkoa da? Zientifikoki zentzuzkoa da? Niri hor zalantzak sortzen zaizkit.

### **Baina kontrako kolonialismoaz ere hitz egin izan da... Biberoko esnearen aldeko kanpaina handia egon da urteetan, baita Euskal Herrian ere.**

Bai, Nestle eta halako esne-industrien kolonializazioak garrantzi handia izan zuten mundu osoan, baita gurean ere.

Edoskitzearen gaiak ari garelarik, ñabardura bat egin gura nuke: Nik uste dut ezin dela egin edoskitzeari buruzko teoria mundialik, testuinguru historiko eta kulturalaren arabera begiratu eta printzipioak ezarriko nituzke. Eta, nire ustez, printzipio bat da edoskitzea eskubidea izan behar dela eta ez betebeharra, eta diskurtso naturalizatzaile horrek, batzuetan, nire ustez, betebeharrak bihurtzen du bularra ematea: "egin behar duzu, bestela umeak problemak izango ditu...".

Edoskitzea ona da bai, baina emakumeek zer egiten dute? Estatistikak begiratzen badituzu, ikusiko duzu hila bete batzuetan ematen dutela eta gero biberora pasatzen direla. Batzuek luzatzen dute, beste batzuek hasieratik ez dute ematen. Baina sortzen baduzu ideologia bat esanaz edoskitzea funtsezkoa dela, hortik datorrela haurrarentzat ona den guztia, ongizate psikologiko eta fisiko guztia... hor arazo bat ikusten dut nik, edoskitzea eskubide bat ez eta betebeharrak bihurtzen baita emakumeentzat. Hori da nire kritika. Eta interesgarria iruditzen zait ikustea ideologia hori nondik datorren eta nola garatzen den.

### **Emakume askok jabeakuntza-prozesu bezala bizi izan dute edoskitzea, euren gorputza ezagutzeko prozesu gisa, autosufizientzia-ariketa gisa, erosotasuna...**

Ikusi egin behar da jendeak nola bizi duen, praktikan; emakumeek zer egiten dute edoskitzearekin? Zer problema dituzte? Zer zailtasun? Nola egiten diete aurre zailtasun horiei? Horri guztiari buruz hitz egin behar da. Batzuentzat ahaldundua da edoskitzea eta beste batzuentzat ez.

Testuinguruak begiratu behar direla esatean, adibidez, Vanessa Maherrek Marokoko esperientziak aipatzen duena dut gogoan. Testuinguru horretan, emakume batzuek uko egiten zioten eradoskitzeari eta gurago zuten biberora ematea, era horretan esnea erosteko dirua ematen zitelako, eta diru hori eurek kudeatu zezaketelako.

### **Edoskitzea zalantzan jartzen da haziera eta zaintza parekide baterako traba gisa. Askok erabiltzen dute argumentu gisa "ez diot bularra eman, biberora emango diot aitek ere parte har dezan eta haziera parekidea izan dadin".**

Edoskitzea hautu pertsonala da. Dena den, nire ustez, bikote parekideak (hetero zein homoparentalak) edoskitzearekin edo gabe, berdin izango dira parekideak.

### **Amatasun naturalistaren ezaugarri gisa, edoskitzeaz gain, erditze naturala aipatzen duzu. Erditzearen jabe egitea ez ote da jabeakuntza-prozesua?**

Nahastu egin dira gauzak. Nik uste dut ez dela nahastu behar erditzea eta

edoskitzea; batera doazen gauzak dira, baina bereizita eztabaidatu behar dira. Gaur egun gehiengo den erditzeaz, uste dut, oso-oso arrazoizko kritika egiten dela: gehiegizko medikalizazioa izan dugu eta dugu, besteak beste, zeresarea-kopurua handia, eta emaginak eta medikuak ere ohartu eta arduratu dira. Bide horretan egiten den guztia gutxi da. Kanpotik egiten den kritikak, gainera, balio du medikuntza barrutik aldatzeko eta hori garrantzi-tsuia iruditzen zait. Dena den, azken denboretan aldatuz joan dira gauzak.

Baina lortu nahi dugunari nik ez nioke erditze "naturala" deituko, "teknologia gutxiko erditzea"-edo deituko nuke. Oso zaila da esatea zer den *naturala* eta zer *artifiziala* bizi dugun gizartean, naturaren kontzeptua oso puztuta eta kutsatuta dugu. Esku-hartzea gutxitzea eta teknologia gutxitzea garrantzitsua iruditzen zait. Argi utzirik erditzeak zaindu behar direla, eta teknologia eta esku-hartzea gutxitu behar dela, nik ez nioke erditzeari garrantzi handiagoa emango. Bestela ematen du erditzetik datorrela dena eta oso mugatzailea iruditzen zait ideia hori. Gainera, haurdunaldi eta erditze esperientziak ere oso anitzak dira.

### **Esan duzu hasieran umeen zaintzaz gehiago hitz egin beharko litzatekeela.**

Bai, gehiago hitz egin beharko genuke gai horri buruz testuinguruz testuinguru. Zaintza-lanak nola egin behar ditugun hitz egin behar dugu, eta horren barruan gurasotasunaz, eta horren barruan parekidetasunaz. Geruzak dira. Ume bat ekarri baldin baduzu, hemen, nahi duzulako da, ez zaude behartuta, baina umeak, nire ustez guztionak dira; noski, ardura desberdinak daude, ez da berdina gurasoen eta lagun batzuen ardura. Baina hori guztia nola antolatu hitz egin behar dugu, eta umeen zaintzari buruzko eztabaida erdigunean jarri behar dugu. Kontua da lan hori amaren esku gelditzen dela normalki. Euskal Herrian garen gizartearekin zer egin daiteke? Haur-eskolak hasieratik egotea zaindu behar da, gurasoentzat baimenak nola dauden ikusi behar da... horretan ere atzera egin dugu.

### **Baimenen inguruan zer iritzi duzu? Badago baimenak handitzeko aldarrikapena, kontziliazio-laguntzak**

### **ugaritzeko eskaera, baina egia da, soldata gabeko baimen horiek gehienbat emakumeek hartzen dituztela eta horrek, kasu askotan, zailtzen duela zaintza parekidea.**

Gizon eta emakumeen arteko diferentzia hori guretzat "eredu" den ipar Europan ere ematen da, eta oso zaila da horri nola egin aurre ikustea.

Nik, dena den, uste dut formula ugari egon behar direla umeak zaintzeko. Haur-eskolak, gurasoentzako baimenak... Orain, lehentasunak jarri behar dira, eta nik uste dut zerbitzu publikoek dutela lehentasuna, edo bestela, tarteak; Frantziako Estatuan, adibidez, badute zaintzaileek euren etxetan ume txiki bat baino gehiago zaintzeko aukera, eta hori nahiko neurri onatzen dut. Umearentzat ere nahiko adeitsua ikusten dut hori.

Baimenez hitz egiteko enpleguaz eta lan merkatuaz ere hitz egin behar da. Emakume batek urtebeteko edo bi urteko baimena hartzen badu, eta lehenago ere, bere lan ibilbidea gizonetzko batena baino ahulagoa bada, hor arrisku argian sartzen da. Baimena eskatzen duten emakumeak arriskuan daude; hori nola konpentsatzen da? Hemen ere aldrebes hasten dugu eztabaida: kontua ez da gure seme-alabak zaintzeko eskubidea dugula, kontua da gure seme-alabak eta lana bateratzeko eskubidea izan beharko genukeela euskal gizartean. Konbinazio guztiak egon behar dira mahai gainean, baina niretzat baimen luze bat ordaintzearen aurretik dago zerbitzu publiko egokiak bermatzea. Haurren zaintza lehentasuna da, baina gurasoen eta amen eskubide indibidualak ez dira zertan mugagabeak izan.

### **Ez ote litzateke borroka egin behar gizartearen zutabeak apur bat mugitze-ko eta lan merkatua beharrean zaintza erdigunean jartzeko?**

Asko gustatzen zait Badinterrek *La mujer y la madre*-n dioen hau: "Amatasunaz eztabaidatzen ari garen bitartean gizonak isilik daude, oso eroso daude, komeni baitzaie". Ez ditugu behartzen gizonak ezertarako ere, dena borondate kontua da. Gutxi batzuek borondatez zaintzen dituzte haien umeak edo baimenak hartzen dituzte, baina besteak oso trankil daude, orokorrean.

### **Aita arduratsu horiek zertan aldatu dute panorama?**

Zirkulu txikietan aldatu dute panorama. Eta sozialki oso inportantea da, sinbolikoki bada ere. Erakutsi dute benetan gurasotasuna ez dela ezer biologikoa, aitarekiko atxikimendua berdin-berdin garatzen dela argi dago. Lagin txikia daukagu, dena den.

### **Emakumeen menpekotasun-eredua lausotzea posible da?**

Ez dago dudarik, borondatea da goenean karga oso banatuta dago. Haur baten zaintza eta heziketa lan handia da, eta ikaragarria da hori guztia pertsona batekin (edo batzuekin, maila ezberdinetan) partekatzea, plazer bat. Batzuetan emakume asko oso bakarrik sentitzen dira, eta ardura hori partekatzen duzula sentitzeak ez du preziorik. Konprometitu den gizona betirako konprometitzen da, ez hasieran bai eta gero ez. Orokorrean, esango nuke behin konprometitzen zarenean, betirako dela, edozein dela eredu (hetero edo homoparentala) eta edozein dela egoera (bikoterik edo ez...).

### **Eta horrek ekarriko luke amatasunaren idealizazioari eta naturalismoari galga jartzea? Edo, nondik etor liteke ideologia horren apaltzea?**

Hortik bai, baina aita arduratsuen oso kopuru txikia denez, zirkulu txikietan bakarrik ikusten da, nahiko testimoniala da. Ondo dago, ereduak behar direlako. Kritika egin behar da, kritika soziala beharrezkoa da, eztabaidatu egin behar da, kontraesanaz eztabaidatu behar da, praktikak pentsatu behar dira... Arlo askotako borroka da, baina zail daukagu emakumeok. Krisia leuntzen bada igual, baina nik ez dut oso argi ikusten aldaketa badatorrenik.

### **Eta familia-eredu berriek, guraso homoparentalek, hautuz ama bakarra duten familiek... zer ekarpen egin dute?**

Guraso-eredu ezberdinak ditugu eta zenbat eta eredu anitzagoak eduki zure inguruan, hobeto; hartara norberari iristen zaionean guraso izateko unea, eredu anitzak izango ditu aukerak, eta horien konbinazioak ere sortu daitezke. Zure ikasgelan halako familia bat baldin badago, guztiontzat suerte bat da. Euskal Herrian familia-eredu anitzak nahiko onartuta daudela iruditzen zait.

# astez aste, urtez urte

## HAURDUNALDIA

Erdiminari aurre egiteko prestatzen

## LEHEN URTEAK

Negarra, lehen erreminta

## URTE GOZOAK

Heriotzean ere haurrak partaide

## NERABEZAROA

Kontsumitzen ikasteko  
ereduen premian

## HAURDUNALDIA

# “Erdimina beste minekiko desberdina da: mina areagotzea hobera doanaren seinale da”

Korrikalaria maratoirako prestatzen den bezala, andrea ere psikologikoki eta fisikoki presta daiteke erditzeko minari aurre egiteko, bukaeran saria duten min bakanak baitira, **Carmen Ferro** emaginaren arabera. Prestaketaren abiapuntua beste minekiko desberdina dela ulertzea da, hasiera eta bukaera dituen prozesua dela.

**H**aurdunaldiko beldur nagusietako bat erdimitari izua izatea da. Alta bada, erditzeko mina ohiko minetatik bereizteak lagunduko dio andreaki erdimina ulertzen eta hobeto bizitzen, igarotzen den minutu bakoitza, bukarara iristeko falta den minutu bat gutxiago baita, maratoi bat egiten ari den korrikalariaren kasuan bezala. Carmen Ferrok hogeita hamar urtetik gora daramatza andreei eta haien bikotekideei haurdunaldiari, erditzeari eta erditze-osteari loturiko prestaketa-lanetan laguntzen, eta egiteko horretan toki berezia egiten die erdimitari loturiko beldurrei.

**“Min tradizional gisa bizi baduzu erdimina, hilko zarela senti dezakezu; beldur horrek zurruntasuna dakar eta mina areagotzen du”.**

### **Nolako harremana dugu erdimitarerekin?**

Andre askok eta askok beldurra diote erdimitari, haurdunaldiko beldur tradizionaletako bat da. Erditzeari begira dugun izurik handienetako bat minari diogun beldurra da.

Haurrari edo guri zerbait gerta dakigukeela pentsatzeak ere beldurtzen gaitu, baina batez ere min fisikoari



**“Erdimina, nagusiki, buruak gidatzen du. Beldurrak lantzen baditugu fisikoki zurruntasun gutxiago izango dugu”**

**Carmen Ferro**  
(emagina)

beldurra da emakumeek haurdunaldian zehar izaten duten izu handienetakoa.

### **Haurdun den emakumea presta al daiteke erdimitari aurre egiteko?**

Nik uste dut baietz. Korrikalari bat maratoi baterako prestatzen den bezala, fisikoki eta psikologikoki presta gaitzke erdimitari aurre egiteko. Maratoian aurrera, esaten dute murru bat agertzen dela eta azken kilometroak minez egiten dituztela lasterkariak, beraz, psikologikoki prestatu egiten dira murru hori igarotzeko eta azken kilometroak minarekin korrika egiteko.

Nire ustez, oso garrantzitsua da emakumea erditzeko minari aurre egiteko prestatzea. Eta niretzat prestatzea, hasteko, ezagutzen ditugun minekin zerkusirik ez duen min bat dela ulertzea da, eta bigarrenik, nola egin dakioken aurre ezagutzea ere prestatzea da.

### **Ezagutzen ditugun minen antzekoa ez bada, nolako mina da erditzeko mina?**

Beste minekiko desberdina da, ez delako gaixotasun bati edo gaitz bati loturiko mina. Erditzean, mina



areagotzea hobera doanaren seinale da, eta hori ez da beste minekin gertatzen. Mina puntu gorenera iristen denean, orduantxe modurik onenean soluzionatzen da. Ulertu behar da min diferente bat dela, beste minekin zerikusirik ez duena, eta gero eta handiagoa izan orduan eta hobeto doala erditzearen prozesua.

Mina, izatez, alarma bat da, gorputzak zerbait adierazteko erabiltzen duen alarma oso garrantzitsua. Kontua da, normalki alarma horrek gure gorputzean zerbait gaizki dagoela adierazten digula, gero eta min handiagoa eta gero eta denbora luzeagoan sufritzen dugunean, prozesua gaizki doala adierazten digu alarmak. Baina erditzearen kasuan ez da horrela, gero eta min handiagoa izan, orduan eta hobeto da, aurreratuago baitoa prozesua, eta gero eta gertuago baitago zure haurraren jaiotza.

Maratoian ere, gero eta min handiagoa, orduan eta gertuago dute helmuga eta saria korrikalariek.

#### **Psikologikoki nola presta gaitzke min horri aurre egiteko?**

Lehenik eta behin, min on bat bezala ulertuz, eta ez min txar bat bezala.

Erdiminak zentzu bat du, eta hala ikusteak lagundu egingo digu egoera ulertzen. Hasiera eta bukaera dituen prozesua da, igarotzen den minutu bakoitza, falta zaidan minutu bat gutxiago da, ahalegin bakoitzean uteroaren lepoa apur bat irekitzen doa. Gero, mina bizi edo lausotu dezakezu pilotarekin, bainerarekin, erlaxazioarekin, epiduralarekin...

Erdimina bizitza osoan ahazten ez den ahots ozen bat da, ez da inoiz ahazten. Ziurrenik, asko kostatzen zaizkigun gauza horiek ditugu maiteen, eta horrekin ere badu zerikusirik erdininak: normalki asko kostako zaigu gure seme-alabak mundura ekartzea. Zure bizitza bitan hausten da, onerako hautsi ere, une horretatik aurrera haur bat izango duzu, eta horretaz jabetzen gara erditzearen prozesuan. Batzuek diote haurra gainean jartzen diotenean min guttia ahazten dutela; nik ez dut uste, mina ez zaizu bizitza osoan ahazten, baina merezi duen min bat da.

**Erdimina nolako izango den ez jakiteak, mina jasateko gai izango den ala ez jakiteak ziurgabetasuna eta urduritasuna eragiten dizkio haurdunari.**

*Minmetro* bat edukiko bagenu ere, ezingo genuke jakin zer ari den sentitzen erditzen ari den andre bakoitza. Kontrakzioak neur ditzakegu, presioaren intentsitatea merkurio milimetrotan neur daiteke monitorean bidez, eta jakin dezakegu nork dituen uzkurdura fuertekoak. Baina ezin dugu neurtu bakoitzak sentitzen duena, ezin ditugu neurtu mina eta nekea eta horrek guztiak ikaragarriko eragina dauka.

Minari buruz ari garelarik, garrantzitsua iruditzen zait naturari buruz hitz egitea. Hemen baldin bagaude, badezakegulako da. Nondik gatoz, bada? Ospitaleak eta epidurala oso gauza berriak dira, eta gaur arte, beti, gure gorputzek ahal izan dute, funtzionatzen dute, eta funtzionatzen dute badezakegulako, ahal izateko eginak gaude. Hortaz, ahal izango dugu? Bada, ziurrenik bai, agian ez, baina ziurrenik bai; eta ezer gabe ezin badut, ez da ezer gertatzen, bilatuko ditut bideak ahal izateko, eta era horretan bai, seguru ahal izango dudala, eta gaur egun inoiz baino gehiago. Bainera, pilota eta erlaxazioak ez badira aski, epiduralik gogorrena jarriko dut, baina bai, ahal

izango dut.

## **Mina saihesten saiatu behar dugu?**

Nahi izanez gero bai, noski. Mina saihestu nahi izatea oso erabaki errespetagarria iruditzen zait. Hala ere, argi izan behar dugu inolako minik ez edukitzea ez dela posible. Epiduralik gogorrena jarrita ere, edo zesarea hautazko bat eginagatik ere, ondorenean mina izango dugu, edo aurretik... eta bestela, hazieran izango dira une mingarriak, baina noski, baita une ederrak ere. Batere-batere minik jasan nahi ez duena, ez dadila haurdun gelditu.

## **Mina saihestu beharrean, beste aukera bat litzateke erdiminari aurre egitea edo gainditzen saiatzea?**

Hasi eta, behin ari zarelarik, ikusten da emakume bakoitzak nola darman prozesua. Aurretik ezin da jakin erditzeko unean andre bakoitza nola dagoen, zein zurrun edo gogor egongo den, ezta zurruntasun horrek nola biderka diezaiokeen mina ere. Beldurrek ere eragina dute, zurruntasuna areagotzen baitute. Zorionez, gaur egun laguntzak ditugu, eta hobe laguntza horiek egotea ez egotea baino; baina has gaitezen eta gero ikus dezagun....

Bada andrerik erditzea zerbait ja-sangarri egin dezakeena? Ozta-ozta, baina nik uste dut baietz.

## **Gero eta harreman txikiagoa dugu minarekin... nahi izanez gero ia-ia inolako harremanik izan gabe bizi gaitzke. Beraz, zaila da erditzean mina pasa behar dugula pentsatzea.**

Erditzeko mina da bizitzan merezi duen min bakarra, bukaeran jasoko dugunagatik. Horrek ez du esan nahi gero eta min handiagoa orduan eta erditze hobe, edo antzeko ezer; inondik ere! Bainera, epidurala edo ezer ere ez erabiltzea erabakitzea, nire ustez, andre bakoitzarena da eta erditze bakoitzeko erabakia, momentukoa. Une batean modu batean egon zintezke eta era batean bizi esperientzia hori, beste momentu batean, emakume hori bera beste egoera batean egon liteke. Sarri entzuten diet andreei, "oraindik ez dakit epidurala jarriko dudan ala ez" esaten. Bada hori momentuan erabakitzea oso hautu ona da. Batzuetan itxita joaten gara erditzera, epidurala nahi dugula, edo ez dugula nahi... Gero, ordea, batzuetan ezin izaten da jarri, edo unean bertan benetan jartzea nahi dugu... ate guztiak irekita uztea garrantzitsua iruditzen zait, zorionez irtenbideak baitauzkagu. Ahal izan, beti ahal izango dugu, gakoa esperientzia ona izatea da, eta momentuan ikusiko dugu.

## **Eta fisikoki, nola presta gaitzke erditzerako?**

Erdimina, nagusiki, buruak gidatzen du. Beldurrak lantzen baditugu, adibidez, fisikoki zurruntasun gutxiago izango dugu. Adibide bat jarriko dut: hatzak izozturik ditudala eskuan kolpe bat hartzen badut mina askoz handiagoa izango da kolpe hori hatzak epel, ur berotan ditudala hartuz gero baino. Kolpe berarekin min-sentsazioa areagotu edo baretu egin dezake aurrez dagoen tentsio muskularrak. Beldurrak hotzak bezala jokatzen du, hortaz, beldurrak baretzen baldin baditugu, beldurrak lantzen baditugu eta andrea erlaxatuago egon dadin lortzen badugu, uzkurdura datorrenean, ziurrenik, mina areagotzea baino baretzea lortuko dugu. Horixe da



baineran sartzean lortzen duguna: giharrak baretzea. Giharrak biguntzen laguntzen digun guztiak balioko digu mina hobeto eramaten eta arintzen edo txikitzen ere. Gero eta min handiagoa orduan eta tentsio handiagoa, eta gero eta tentsio handiagoa, mina ere handiagoa. Zirkulu hori eten behar da, tentsioa kendu mina baretzeko.

Eta noski, nor bere burua eta gorputza ezagutzeak asko laguntzen du, zerk egiten digun mesede eta zerk ez jakiteak, eta baita erditzearen prozesu osoa ezagutzeak ere, bai emakumeak berak eta ahal dela baita ondoan egongo denak ere, erabakiak hartzen lagunduko baitigu. Haatik, andre hori beldurturik baldin badago, eta hotza baldin badu, eta estresaturik baldin badago, edo haserreturik, edo emaginarengan konfiantzarik ez badu... horrek guztiak mina areagotuko dio. Arnasketak ere ikaragarri laguntzen du, eta oso komenigarria da aurretik lantzea. Mugimenduak eta erritmoak ere lagunduko digute... horrek guztiak erlaxatzen lagun-

tzen digulako. Guretzat egokienak diren posturak bilatzeak ere mesede egingo digu.

### **Nola eragiten digute "minez erdituko zara", edo erditzei buruzko beldurrezko istorioek, karga kulturalak, azken finean?**

Ikaragarriko kaltea egiten dio andreari erditzeari buruzko jarrera horrek, ikuspegi erabat negatiboa emateak. Transmittitu diguten pentsamendu hori alboratzea oso zaila da; horregatik, batzuetan, pentsamendu hori alboratu ordez lantzea hobea iruditzen zait, bestela oso frustragarria izan daiteke. Geuregan konfiantza eduki behar dugu andreok, geure gorputzean, geure naturan, funtzionatzen duela eta hemen baldin bagaude bidezakegulako dela argi izan behar dugu...

### **Minari buruz hitz egin behar dela uste duzu?**

Bai, gurasotasunerako-prestakuntza taldeetan mina landu beharreko gai garrantzitsu bat da. Minik txikiena

izanda ere, adibidez epidurala jarri aurreko mina, gaizki pasatzen baldin baduzu, ikaragarria izan daiteke. Min tradizional gisa bizi baduzu erdimina, hilko zarela senti dezakezu, min tradizionalaren atzean dagoen kezka sakon-sakonean, hiltzeko beldurra baita; haginak, buruak, saiheesak edo dena delakoak ikaragarri-ikaragarriko mina egiten badit sakonean dudak kezka zera da, zerbait txarra daukat? Beldur horrek zurruntasuna dakar eta mina areagotzen du.

### **Gure amen, ahizpen esperientziak iragar al diezagukete ezer gure erditzeari buruz?**

Bai eta ez. Nire amak 1,80 neurtzen badu, eta nik ere hala neurtzen badut, antzeko eskeletoa baldin badugu, bada ziurrenik gure konstituzioak lagundu egingo digu erditzean. Gure amen eta ahizpen antza izan dezakegu gorputz-konstituzioan, baina bakoitzak erditze bakoitzean sentituko duena, unean unean izango dituen beldurrak eta sentazioak oso pertsonalak dira, eta horrek guztiak eragina du erditze-esperientzian.



**EMAN ARGIA  
ZURE LANARI**

→ Lanari buruzko informazioa:  
[cafe@elhuyarsariak.elhuyar.org](mailto:cafe@elhuyarsariak.elhuyar.org)

→ Informazio guztia (web orria):  
[cafe@elhuyarsariak.elhuyar.org](http://cafe@elhuyarsariak.elhuyar.org)


elhuyar *efektua* Argiaren Nazioarteko Urtean

**CAF  
ELHUYAR  
SARIAK  
2014**

LAGUNTZAILEAK



MEZULAGUNA



## LEHEN URTEAK

# Negarra, haurraren lehen erreminta

Haur txikiak bizirauteko baliabidea du negarra, **Alexander Barandiaran Huheziko irakaslearen** arabera, bere kabuz ase ezin dituen beharrak, izan fisiologikoak edo psiko-afektiboak, aseko dizkion heldua erakartzeko tresna.

**M**ailu baten antza du haurraren negarrak. Ez da melodikoa, ez da gozoa; sarkorra da, are mingarria. Ez da kasualitatea. Helduarengan jokabide bat aktibatzeko erreminta da negarra haur jaiotze berriarentzat. **“Haurraren negarraren morfologia estridente horrek, zaintza jokabidea aktibatzeko funtzioa du”**, azaldu du **Alexander Barandiaran Huheziko irakasle eta Psikologian doktoreak**. “Haurrak, berez, jaiotzetik dakarren erreminta bat da negarra, irribarrea edota zizkadura diren bezala, heldua bere ondora erakartzeko eta bertan mantentzeko erabiltzen duen baliabidea da”.

Bizirauteko erreminta du, bada, haur txikiak negarra. Bere kabuz ase ezin dituen beharrak aseko dizkion heldua erakartzeko tresna baitu. Haurrak, gara dadin (“hazia haritz sendo bilaka dadin”) beharrezko du heldu esanguratsu batek behar fisiologikoak eta ondoren segurtasun beharrak asetzea. “Atxikimenduaren teoriak horrela esaten du —azaldu du Barandiaranek—: gizakiak, haziak, jaiotzerakoan, informazio genetiko guztia eta gaitasun erabatekoa dakartza haritz eder bat bihurtzeko; baina dena ez dago bere esku, testuinguruak berebiziko garrantzia du”.



Testuinguru hau, umearen kasuan, familia litzateke lehendabizi, gero eskola, eskola-komunitatea, herria... **“Hazi hori gara dadin, egin behar duen lehen gauza heldu batekin lotura afektibo esanguratsu bat eraikitzea izango da, gizakia ‘egin gabe’ jaiotzen baita”**. Garapen horretan, biziraun ahal izateko lotura afektibo esanguratsua eraikitzea gure espeziearen “estrategia” bat da, eta estrategia horretan negarrak duen funtzioa kontuan izanik, oso aintzakotzat hartzeko erreminta izan behar luke negarrak guraso

eta hezitzaileentzat, Barandiaranen aburuz.

### Moralitatetik biluztuz

Lantua, izatez, dei bat da, “eboluboki berengana joan daitezen garaturiko estrategia bat da”, mina, gosea, zikina, nekea... adierazten dio haurrak helduari negarraren bidez, baina baita segurtasuna, gertutasuna eta maitasuna eskatzen ere, behar fisiologikoak asetzea bezain garrantzitsu baitu behar afektiboak asetzea. Alta bada, moralitateak, gizarteak eta kulturak haurraren beharrekin ez eta nahikari eta intenzionalitateekin lotu izan dute negarra, eta horrek modu batera edo bestera jokatzera daramatza guraso eta hezitzaileak. **“Gure moralitatetik eta kulturak eraikitakotik biluzten bagara, negarrez ari den haurraren ondora joatera eta hartzera eraman-go gaitu negarrak, autoerregulatzen den sistema bat baita: haurrak negar egiten du heldua erakartzeko”**. Negarrez ari den haurra besoetan hartzean biziatu egiten dela esatea gizartearen moralitatearen araberrako aurreiritzi bat da, irakaslearen aburuz, “umeari buruzko irudi fidakaitz bati erantzuten diona”. Barandiaranek ikusten du negarraren inguruan deskonfiantza handia dagoela eraikia sozialki, “baina haur txikiak ez dauka intenzionalitate-



rik, haurrak beharrak ditu". Beraz, haurraren negarra ulertzeko, lehenik eta behin moralitateetik eta aurreiritzietatik biluztea gomendatzen du Psikologiako doktoreak.

Kulturalki negarrari buruz transmititu izan diren ideiek pisu handia dute zaintzan eta hazieran oraindik ere, eta guraso asko negarraren aurrean nola jokatu asmatu ezinik ibiltzera edo erantzuna saihestera daramatzate aurreiritziek. Alta bada, helduak haurraren negarrari ez erantzuteak ez du esan nahi beharra desagertzen denik, ez behar fisikoa eta ezta behar afektiboa ere, gertutasun eta segurtasun beharra ere. Haatik, helduak haurraren negarrari erantzuten ez dionean haurra helduarekiko irudi intsegurua ari da eraikitzen. **"Haurrak negar egiten duenean, eta beretzako esanguratsua den heldu hori etortzen zaionean, bere beharren aurrean erantzun bat jasotzen duela barneratzen du, eta horrek segurtasuna eta konfiantza ematen dizkio; bai helduarekiko eta baita bere buruarekiko ere;** aldiz, erantzunik jasotzen ez duenean, edo negar egiten uzten diotenean, intseguritatearen gainean hazten eta hezten ari da, intseguritatean eraikitzen ari da helduarekiko harremana eta ondorioz norbere buruarekikoa ere". Segurta-

suna garapenean beharrezkoa den heldulekua du umeak: "Biziraupen psikologikorako segurtasuna behar du haurrak".

Batzuetan, ordea, negarra instrumentalizatu egiten da, beste edozein jokabide bezala. Berezko negarrak haurrak behar bat duela esaten du, izan hotza, zikin dagoela, beldurra, intseguritatea... Barandiaranen esanetan, bizirauteko beharrei erantzuteko negarrak erantzunik jasotzen ez duenean, instrumentalizatu egiten da: **"Helduak kasurik ez egiteak ez du esan nahi haurraren beharra desagertzen denik; negarra desagertu daiteke bai, baina horrek ez du esan nahi beharra desagertu denik.** Orduan, haurrak beste estrategiaren bat erabiliko du helduaren arreta bereganatzeko. Horrela biziari egiten da jokabidea eta negarra instrumentalizatu". Goxoki bat eskatzen duen haurraren adibidea jarri du irakasleak: "Haurra negarraren instrumentalizazio bat ari da egiten; orduan zer, ez diot kasurik egingo? Ez, kasu egingo diot; baina horrek ez du esan nahi karamelua emango diodanik. Helduak bereizi behar du negarraren atzean noiz dagoen instrumentalizazioa eta noiz dagoen behar emozional bat, segurtasun behar bat, edo fisiologikoa...". Helduak mugak jarri behar dituela dio Barandiaranek,

bestela bere jarrerarekin negarraren instrumentalizazioa bultzatzen baitu: "Karamelua ez ematea muga bat jartzea da, bestela, haurrak ikasten du negarraren bidez nahi adina karamelu eskuratu ahal izango dituela eta negarra instrumentalizatzeak balio diola".

Helduak, batzuetan, ezintasuna sentitzen du haurraren negarraren aurrean. Baina nola dago heldu esanguratsu hori, gurasoa edo hezitzailea, haurraren negarrari erantzun ezin badio? "Gurasoa ondo baldin badago, ez zaio irteten bere seme-alabaren negarrari ez erantzutea; gaizki baldin badago bai, norbere beharrak ase gabe baldin baditugu bai, eta gaizki tratatzeraino iritsi gaitezke. Gurasoa ondo ez baldin badago, kontuz ibili behar da, negarrak zaintza aktibatu beharrean eraso aktiba baitezake". Eta gurasoentzat bezala, hezkuntzarako ere balio du negarrari buruz esanak; Barandiaranentzat, hezitzaileen kasuan ere arreta eskaini behar zaio negarrez ari den haurrari; "kontaktua eman behar zaio, beti segurtasun handiagoa sentitzen dugu kontaktua dagoenean, horrek ematen du segurtasuna. Helduen artean ere intimitatean, azala-azalarekin egiten ditugu harreman estuak. Batzuetan ezin da distantzian kontsolatu."

Barandiaranentzat haurraren garapenean giltzarria da hasierako harremanak ondo eta segurtasunean eraikitzea, eta ondorioz negarraren erramintari arreta eskaintzea. "Gizartearen exigentziek zaildu egiten dute haurraren benetako beharrei erantzutea, baina nik uste dut merezi duela, aurrez lantzen badugu, ondoren gutxiago egin beharko baitugu. Gakoa da hasierako harremana ondo eraikitzea, haurraren beharrak asetzea eta segurtasuna eskaintzea. Gero, umea ondo baldin badago, hazten doan neurrian nahiago izango du esploratu, mundua deskubritu gurasoaren magalean egon baino. Heldu esanguratsuak portu segurua eskainiko dio umeari, baina nahiago izango du beste ume batzuekin jolastu. Bizioa dator benetako beharrak asetzen ez zaizkionean eta helduarekiko mesfidantza garatzen duenean".



## URTE GOZOAK

# Heriotzean ere haurrak partaide

Errazena beste aldera begiratzea izan badaiteke ere, heriotzarekin loturiko gaitan inklusiozko jarrerarekin jokatzeko eta haurra gertatzen ari den horren parte egitea funtsezkoa dela uste du **Patxi Izagirre psikoklinikoak**, horrela soilik garatu ahalko baitu gertatzen ari denaren jabetza, kontzientzia eta onarpena.

**A**ma, zu ere hil egingo al zara?". Ez litzateke harritzekoa haurrak momenturen batean horrelako edo antzeko galderaren bat egitea. Adituen esanetan, normala, beharrezkoa eta unibertsala da adin batetik aurrera haurrek heriotzaren inguruko zalantzak eta kezkek azaltzea. Batetik, 6-7 urtetik aurrera pentsamendu abstraktua gartzaren ondorioz itzulezintasunaren kontzeptua barneratuta daukatelako; eta bestetik, akaso etxean, eskolan edota inguru hurbilean heriotza kasuren bat izan dutelako.

Nola erantzun, ordea, haurrei horrelako galderen aurrean? Baietz, ama hil egingo dela esan? Edo baietz, baina ez dela berehala izango? Bere atsekabea ulertzen dugula adierazi? Galderari iskin egin eta beste gai bat atera hizpidera? Zaila izan ohi da besteei erantzunak ematea norberak heriotzaren inguruan bizi dituen atsekabeentzat ere ihardespen errazik ez duenean. Litekeena da horrelako galderekin haurra laguntza eskatzen aritzea; bakarrik gainditzeko zaila den oztopo bati aurre egiteko laguntza eskatzen. Auzia itxi gabe uztea, baina, ez da lagungarria. Gaia ukatzeak edota heriotza ezkutatzeko saiakuntzak haurrari ez baitio atsekabe, ezintasun, min horren aurrean bere bitartekoak sortzeko biderik emango. Nola jokatu, hortaz?



Inklusioa. Horixe da gakoa **Patxi Izagirre psikoklinikoaren** ustez. Heriotzarekin loturiko gaitan ere, inklusiozko jarrerarekin jokatzeko eta haurra gertatzen ari den horren parte egitea oso garrantzitsua da, adituaren esanetan. **Etxean gertatzen diren gogorak jazotzen direnean ere haurrak familia barruan dagoela eta bera ere egoera horren partaide dela sentitu behar duela** dio, horrela soilik garatu ahalko baitu gertatzen ari denaren jabetza, kontzientzia eta onarpena. Sarri, ordea, kontrako jarrerara hartu ohi dugu, eta beldurragatik, haurra babestu nahi izateagatik edota egoera oso mingarria delako, gertatzen ari den horretatik baztertu egiten dugu haurra. Adibide bat jartzen du Izagirrek: "Demagun haur bati aitona hiltzen zaiola. Bazterkeria litzateke umeari aitona agurtzeko aukerarik ez ematea, hilerrira edo tanatoriora joaten ez uztea, doluan

parte hartzeko modurik ez eskaintzea, eta gainera, sufritu ez dezan, lagun batzuen etxera eramatea. Inklusiozko jarrera izanez gero berriaz, haurrari zer gertatu den azalduko genioke, eta esango genioke horrek ez daukala atzera bueltarik, aitona betiko utzi gaituela. Prozesu guztian zehar haurra gurekin izango genuke, babesa emango genioke eta segurtasunezko zein konfiantzazko giro bat sortuko genuke berak ere gurekin batera bere dolu-prozesua bizi dezan".

Sufrimenduarekin, galerekin, heriotzarekin eta doluarekin lotutako balioak, jarrerak, sentimenduak ez dira ia batere aztertzen, giza errealitatearen beste alderdi batzuekin alderatuta. Badirudi ezagutzen ez denak ezin duela min egin. Psikoklinikoaren aburuz, ordea, horrela jokatzeko ezin zaie haurrei eta gazteei hezkuntza integrala eman. Horrexegatik, txiki-txikitatik heriotzaren pedagogia lantzen hasi duen garrantzia azpimarratzen du: **"Gure helburuak ez luke izan behar haurra heriotzatik babestea, baizik eta txikitatik heriotzaren egiazko izaeraz ohar dadin laguntzea"**. Lanbidez ere horretan dihardu Izagirrek; urteak daramatza mina, heriotza, dolua, beldurra eta antzeko gaiak jorratzen, bai ikastetxeetan aholkulari lanak eginez edo saioak

eskainiz, eta baita kontsultan gai horrekin loturiko arazoak dituzten pertsonak artatuz ere.

Horretarako guztirako, baina, garrantzitsua da helduak ere heriotzaren inguruko bere etxerako-lanak eginda izatea. "Jaiotzetik heriotza zor; noiz ta nola ez jakin" euskal esamolde zaharrak iradokitzen duen moduan, heriotza bizitzako eguneroko gertakaria da, bizitzak heriotza berekin du. Maiz, ordea, heriotza estali egin ohi dugu eta bizitzaren gordintasunaren aurrean beste aldera begiratu. Izagirrenen hitzetan, teoriarik helduak baliabide gehiago ditu gertuko heriotza bati aurre egin eta atzera bueltarik ez duen egoera hori onartzeko, pentsamendu abstraktua garatua baitu. Hortaz, egoera baten aurrean sortu den frustrazioari, ezbeharrari, saminari aurre egiteko tresnak izango ditu; negar egin dezake haurraren aurrean eta adierazi triste dagoela maite duen norbait galdu duelako, baina, aldi berean, egoera horri buelta emateko gaitasuna duela erakutsiko du arrazionaltasuna erabiliz. Helduok kognitiboki horretarako prest gaude-la dio Izagirrek; haurrak aldiz ez, eta ereduak behar dituztela.

Aurrean eredu bat edo beste izan, modu osasungarriagoan edo kaltegarriagoan ikasiko du haurrak galerei aurre egiten: **"Batuetan pentsatzen dugu haurarentzat hobe dela mundu sinbolikora soilik jotzea —haurrari hildakoa zeruan dagoela, handik begira ari zaigula eta gu ere egunen batean berarekin egongo garela esatea—, eta errealtate mingarria saihestea. Baina, benetan uste dugu modu horretan egoerari aurre egiteko tresnak eskaintzen ari gatzaizkiola haurrari? Ez, noski.** Juxtu kontrakoa ari gara egiten. Haurra gehiegi babesten badugu eta errealtatea bizitzeak dakarren frustrazioa estaltzen badiogu, arriskua dago haurra atrofiatzea. Jakina da haurren ikaskuntzan funtsezko oinarriak behaketa eta imitazioa direla. Hori ulertzen baldin badugu, badakigu gure baitan dagoela hein handi batean haurrek heriotza barneratzea. Gure beldurrak haiengan proiektatzen baditugu, berriz, beraien bitarteko propioak sortzeko

aukera kentzen diegu".

Heriotza gai didaktiko ezin egokia-go, bete-beteaz hezitzailea, izan liteke Izagirrenen iritziz. Hasteko eta behin, heriotzak gizakia humanizatu egiten duelako, heriotzaren bidez pertsonok "tribu bateko kide" garela konturatzen baikara, eta "ondorioz, besteekin batzen baikaitu". Bizitzan sufrimendua ere badagoela kontzientzia hartu ostean, bizitzaren zutabe inportantea izan liteke heriotza gizatasunaz, baloreez, harremanaren garrantziaz edota emankortasunaz hitz egin eta hausnartzeko. Hortaz, zergatik landu modu didaktikoan heriotzaren gaia? Argi erantzuten du Izagirrek: "Ezbeharrean eta krisien aurrean erabilgarri izango zaizkigun norbere bitarteko eta erremintak garatzeko. Gainontzean, haurrek arazo bati aurre egin behar dioten unean — eskola-porrota, gurasoen banaketa, heriotza bat...— ez dira alfabetatuta egongo, hizkuntza hori ez dutelako behar bezala garatu. Hizkuntza baldin badute, egoera berdin-berdin izango da mingarria, baina min horretatik ateratzeko baliabide gehiago izango dituzte". Dolua modu osasungarrian lantzeak, bizitzan orain eta gerora negatiboa eta positiboa denari aurre egiteko indarra sustatuko duela gaineratzen du adituak. Bere hitzetan, heriotza bizitzaren iratzargailua dela erakutsi behar zaie haurrei, heriotzaren aurretik bizitza dagoela, eta garrantzitsuena bizitza hori disfrutatzea dela.

## HERIOTZA LANTZEKO GOMENDIOAK

Heriotzari buruz edo galera baten aurrean haurrekin hitz egiterakoan lagungarri izan daitezkeen zenbait jarraibide proposatzen ditu Izagirrek:

1. Haurren galderak entzun. Ez moztu gure beldurrekin.
2. Heriotzen aurrean, utzi doluaren errituetan parte hartzen, eurek hala nahi badute eta euren erara: marrazki bat eginez, lore batekin...
3. Ez sufritzeko intentzioz esaten dizkiegun gezurrak eta sortzen dizkiegun itxaropen faltsuak saihestu.
4. Emozioen adierazpena bultzatu ipuinen, marrazkien, musikaren... bidez.
5. Haurrak galdetzen duen puntura arte informatu.
6. Berak errurik ez duela adierazi, nahiz eta hildakoarekin haserretuta egon izan.
7. Hildakoa agurtu eskutitzekin, marrazkiekin, grabazioekin...
8. Galeraren errealtatea barneratzen duten eta komunikatzea ahalbidetzen duten metaforak erabili: ilargia, zuhaitza, hostoak... naturako elementuak.
9. Heriotza bizitzaren zati banaezin dela erakusten duten esperientziak erabili. Aitona, animalia bat, ezagun bat... hiltzen den unea aukera ona izan liteke bizitzaren eta heriotzaren zikloaz hitz egiteko.



## NERABEZAROA

# Kontsumitzen ikasteko ereduaren premian

Sarri, gazteei asko kontsumitzea, etengabe erosten aritzea edota beti gauza berriak eskuratu nahi izatea leporatzen zaie. Txikitatik horixe ikusi eta bizi izan dutela dio **Lourdes Muelak** eta helduen egitekoa dela haiei bestelako ereduak eta kontsumitzeko bideak ezagutaraztea.



**K**ontsumoan eta entretenimenduan oinarritutako demokrazia itxurako diktadura perfektua" deskribatu zuen **Aldoux Huxleyk** 1932an, *Brave New World* liburuan. 82 urte igaro dira ordutik, eta badirudi autore ingelesak bete-betea asmatu zuela etorkizunaren iragarpenean. Kontsumotik kontsumismora, XX. mendearen amaieran beste jauzi bat eman zuen **Zygmunt Bauman** pentsalari poloniarra. Liki-dotasunaren kontzeptuan oinarrituz, kontsumo gizartearen helburua behar berriak sortzea dela esan zuen, behintzat aldi batez, pertsonen arreta erakartzea, entretenitzea eta liluratzea, dena aldakorra, arina eta behin-behinekoa baita: "Kontsumismoa ez da ondasunak metatzea, baizik eta horiek erabiltzea eta gero horiek alde batera uztea ondasun berriei leku egiteko".

Jantzi berriak, sakelako berria, telebista berria, kotxe berria, ordenagailu berria, etxe berria... Erosi, erabili, bota... Erosi, erabili, bota... Erosi, erabili, bota... Noiz arte jarri ote dezake ibilian gurpil horrek? Gizakiaren kontsumo-nahi guztiak asetzeko beste ematen al du lurrak? Ekologiaren, humanitateen nahiz zientziaren hainbat arlotatik uneotan planetak eman dezakeena baino gehiago kontsumitzen dugula ohartarazten

dute. *hik hasi* aldizkarirako egindako elkarrizketa batean **Yolanda Jubeto ekonomialariak eta EHUko irakasleak** zioenez, "bizi-eredu honekin jarraitzen badugu eta planetaren mugak ez baditugu errespetatzen, gero eta arazo larriagoak izango ditugu". Ildo berean mintzatzen da azken aldizkarian **Jesus Mari Mujika Filosofiako eta Etikako irakaslea** ere; ezinbestean, gutxiagorekin bizitzen ikasi beharrean gaudela dio. Institutuzio politiko eta aginte ekonomikoko eremuetatik, ordea, kontrako ideiak bidaltzen dituzte etengabe eta krisi ekonomikotik ateratzeko gakoa kontsumoa sustatzera bideratzen dute.

Elkarren aurka dauden mezuak entzuten ditugu behin eta berriz: alde batetik, derrigorrez gutxiago kontsumitu beharrean gaudela bizirik iraun nahi badugu, behintzat; bestetik berriz, kontsumitzeko, kontsumoak egingo gaituela zoriontsu, eta gainera, horrela bakarrik aterako garela krisitik. Ideia kontrajarriak uneoro. Eta ez da erraza zurrumbilo horren erdian bidea egiten asmatzea, ez helduontzat eta are gutxiago gazteentzat. Baina egon daiteke erdibiderik: kontsumo arduratsua eta kontzientea.

Argia, ura, elikagaiak, arropa, altza-

riak, petrolioa... guztiok kontsumitzen dugu, askotan ohartu ere egin gabe. Kontsumoa jarduera normala eta beharrezkoa da **Lourdes Muela** gizarte berrikuntzaren eta iraunkortasunaren arloan diharduen **Ortzadar enpresako kideak** dioenez. Beste kontu bat da, ordea, kontsumismoa, hau da, neurririk gabe kontsumitzea. Besteak beste, Kontsumobiderentzat egiten du lan Ortzadarrek, eta haur zein gazteekin kontsumoarekin loturiko saiok egiten dituzte. Muelak azalduetako eran, **bi xede nagusi dituzte: batetik, gazteei kontsumo eta kontsumismoa bereizten laguntzea; eta bestetik, kontsumo kontzientziaduna eta arduratsua bultzatzea gazteen artean.**

Gabonetan, beherapenetan, uda aurrean, kurtso hasieran... Kontsumo bideratutako mezuak etengabeak dira. Komunikabideetatik, saltokietatik, aisialdi-guneetatik, eta hein batean, baita instituzioetatik ere kontsumorako deia egiten da eta erosteko erraztasunak ematen dira. Mezu horietako askoren jomugan gazteak daude, eta sarri, haiei leporatzen zaie asko kontsumitzea, etengabe erosten aritzea edota beti gauza berriak eskuratu nahi izatea. Baina Muelak gogorazten duen moduan, **neurritz kanpo kontsumitzea ez da bereziki nerabe**

**edo gazteen gauza, gizarte osoarena baizik:** "Gaurko helduek beste gizarte mota bat ere ezagutu zuten, hain kontsumista ez zena eta eskasia handiagoa zegoena; gazteek ordea ez, eta askotan ez daukate bestelako eredurik. Kontsumo gizartean jaio dira eta etxetik hasita horixe ezagutu dute. Haientzat normala da uneoro kontsumitu nahi izatea".

Izan ere, urte gutxiren buruan asko aldatu dira gauzak: gaur egungo gazteen guraso eta aitona-amona zenbaitek akaso ez zuten etxean telebistarik ezagutuko, ezta argindarririk edota ur-berorik ere; ordenagailurik, sakelako telefonorik nahiz bideo-kontsolarik ere ez zuten izango; eta orain pertsona gehienek izan ditzaketen arropen hamarretik batekin pasako zuten urtea. Gaur egun oso bestelakoak dira kontuak. Baina, benetan behar ote dugu daukagun guztia? Kontsumitzen dugun dena premiazkoa al dugu eguneroko bizitzarako? Galdera horien inguruan hausnartzeko bitartekoak eskaintzen dizkiete gazteei Ortzadarreko kideek. Kontsumitzen duten bakoitzean kontsumo horren inguruan pentsaraztea dute xede: "Adibidez, guk esnatu orduko argia pizten dugu. Ia konturatu gabe egiten dugun zerbait da. Hasieran eguneroko ekintza soilak izan daitezkeen horietan arreta jartzen saiatzen gara gu". Nondik dator energia? Zenbat kostatzen da? Hemen edo beste herrialderen batean ekoizten da? Nola garraiatzen da? Zer eragin du horrek ingurumenean? Eta ekonomian? Eta prozesu horretan guztian parte hartzen duten pertsonen lan- nahiz bizi-baldintzetan? Horrelako edo antzeko galderak planteatzen dizkiete gazteei eta horien inguruan pentsarazi. Argi dute ez dela samurra, are gehiago, gizartetik jasotzen diren mezuak kontrako norabidea markatzen dutenean. Hala ere, uste dute garrantzitsua dela gazteei kontsumoaren inguruko kontzientzia piztea. "Guk informazio argia ematen diegu, eta azaldu egiten diegu zein den guk kontsumitzen ditugun produktu eta zerbitzuen bizi-zikloa. Informazio hori oso garrantzitsua da kontsumo kontzientea eta arduratsua zergatik egin behar den ulertzeko".




Baina nola har dezakete gazteek kontsumo arduratsuen kontzientzia? Badute eredurik? Edota etxean, kalean, eskolan juxtu kontrakoa ikusi eta bizi dute? Teorian gauza bat ikasi arren gero horrek eguneroko bizitzan islarik ez duela ikusten badute, zein eragin izan dezake horrek? Sistematik bultzatzen den ereduak laguntzen ez badu ere, gazteei kontsumitzeko beste modu eta bide batzuk ere badaudela erakustea gomendatzen du Muelak; hala nola, bidezko merkataritzako dendak, gobernuz kanpoko erakundeak, tokian tokiko produktuak, bertako ekoizleak... **"Behintzat zein aukera dauden erakutsi behar diegu, kontsumitzeko eta bizitzeko modu desberdinak daudela, eta behin informazioa izanda, gero eurek hartuko dute erabakia"**.

Elikadura, berrerabilpena eta birziklapena, arropak, energiaren eta uraren zikloa, kontsumitzaileen eskubide eta betebeharrak, Internet eta bideo-jokoak... kontsumoari lotuta gai ugari eta era askotakoak jorra daitezke gazteekin. Horietako batzuk ezagunak dira nerabeentzat eta eskolan zein etxean ere lantzen dituzte. Aldiz, beste batzuk ez dituzte ezagutzen. Horietako bat da eskubide eta betebeharrei loturikoa. Nola erosi behar da? Lehen irakurrian galdera sinplea dirudi, baina sakonera joanez gero, ertz asko ditu. "Gai berria da gazteentzat: agiria

gordetzea, garantia, produktuen etiketak irakurtzea, iraungita dauden edo ez begiratzea, bueltak kontatzea... Gauza errazak dirudite eguneroko egiten ditugulako, baina ez dira ezagutzen eta garrantzitsuak dira". Marken inguruan ere ezezagutza handia dagoela uste du Muelak. Gazteengan eragin handia dute gainera, eta adituaren aburuz, haiek hitz egin eta markak desmitifikatzen saiatu behar genuke helduok. Bere esanetan, gazteei azaldu eta ikusarazi behar litzaieke marka ez dagoela, ezinbestean, kalitatearekin lotuta. Ildo berean, publizitateak jendearen emozioekin zer-nola jokatzeko duen gogoeta egitea ere garrantzitsua dela irizten du.

Bizirik gauden unetik kontsumitzen ari bagara ere, aisialdia da zuzenean kontsumismoarekin lotzen den eremuetariko bat. Helduek nola, gazteek ere hala hautematen dute aisialdia. Badirudi kontsumitu gabe ezin dela aisialdirik igaro. Muelaren esanetan, **gazteek aisialdian kontsumitu gabe ere ondo pasatzen jakin dezaten ereduak behar dituzte eta txikitatik horretarako aukerak eskaini behar zaizkie**. Seme-alabekin gauza horiei buruz hitz egitea funtsezkoa dela azpimarratzen du Ortzadarreko kideak, eta txikitatik, etxean bertan hasita, kontsumoan ere hezi egin behar direla haurrak, egunerokotasunak horretarako aukera ezin hobea eskaintzen baitu.



Juanjo QUINTELA  
Psikologoa

## ESFINTERREN KONTROLA

Zalantza dugu gure hurrekin pixontzia edo komun normala erabili. Batetik, benetako baliabideak erabiltzearen aldekoak gara; bestetik, ordea, ikusten dugu haurrak ezin duela komuna bakarrik erabili, eta hortaz, bere autonomia murrizteko arriskua dugula. Zein da zure gomendioa?

**AUZI HONI ZUZENEAN** erantzun aurretik, nahiz eta oso labur izan, esfinterren kontrola modu osasungarrian –osasungarria zentzu guztietan– eskuratzeko behar diren baldintzen inguruan hitz egin nahiko nuke:

- Lehenik eta behin, nerbio- eta muskulu-sistema egoki garatuta eta helduta izatea beharrezkoa da, hala garun-azalak igorritako aginduen bidez, esfinterretako muskuluak ireki eta ixteko mugimenduak nahi hala erregulatzeko gauza izateko. Esfinterren kontrola heldutasun hori gabe hastea, sinpleki, arazoak bilatzea da.

- Haurrak konturatu behar du berak sentitzen duen gogoak (pisa edo kaka egiteko) bere gorputzak uretratik edo uzkitik egozten dituen substantziekin duela zerikusia; hau da, pisa eta kaka gorputzak sortzen dituen substantziak direla.

- Haurrak eskatzen dioguna ulertu behar du, eta

- Azkenik, eskatzen diogun horretara egokitzeko desioa eduki behar du. Esfinterrak kontrolatzen ikastea, batez ere, bere izate guztia inplikaturik dagoen barruko bulkadekin dago lotua; gainontzean, kanpotik emandako lezioa litzateke. Helduek bezala egiteko desioa, haiekin identifikatzeko nahia, haztekoa... da prozesu guztia mugiarazten duen giltza.

Haurraren barneko atxikimendu, desio hori existitzen bada, pixontzia edo komun normala erabili, bigarren mailako auzia da: dena ondo joango da, hartzen dugun erabakia bat edo beste izan.

Ohikoena da "aitak edo amak bezala" egin nahi duten hurrek "aitak edo amak egiten duen tokian" egin nahi izatea, baina ez da beti horrela gertatzen. Adibidez, haur batzuei, arrazoi bat edo bestea tarteko, komunak ezinegonara eragiten die. Kasu horietan pixontzia erabili arren ez da ezer gertatzen. Zorionez pixontzi normal batek ez du asko balio (utzi albo batera pixontzi sofisticatuak: musikadunak, motor formakoak edo beste-lako tontakeriak dituztenak).

Oro har, haurrak ondo hartzen badu, hobe da komuna erabiltzea eta pixontziaren aldia ez egitea. Baina zuek ez daukazue jarraitu beharreko "arau" bat, zuek ume jakin bat daukazue, zuen umea.

Hala ere, komuneko lehen esperientziak onak izan daitezken, hainbat gai kontuan izatea komeni da:

- Komunerako egokitzailerik bat edukitzea komeni da, haurra erosotasunez eser dadin eta helduak eutsi beharrik izan ez dezan.

- Pixontziak duen abantaila da haurraren altuerarako egokia dela, umeak hankak lurrean ezarri ditzakeela eta ez dauzkala komunean bezala zintzilik (nahiz eta egokitzailerik erabili). Hasiera batean, badirudi pixontziaren ezaugarri horiek haurraren autonomiarik mesede egiten diotela; baina haurra bere kabuz komunean esertzea eta oinak zintzilik ez izatea erraz lor daiteke haurrari komunean arazorik gabe esertzen eta oinak apoiatzen laguntzen dioten aulki edota eskailera txikiak erabiliz.

Ez naiz haur txikiarentzako ekipamenduen inguruko publizitatea egitearen oso aldekoa. Uste dut gehienak ez direla beharrezkoak, eta batzuk, gainera, kalterako soilik direla; baina ideia onak ere aurki ditzakegu.

Aztergai dugun gaiari dagokionez, badaude eskailera bat txertatuta daramaten komunerako egokitzailerik batzuk, eta egokitzailerik bera pixontziarekin ere erabili daiteke. Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duenez, hemen daukagu adibide bat:



## PSIKOLOGIA

### HAUR-HIZKERA

**Ume txikiekin ari garenean ume-hizkerako hitzak (pupu, txitxi...) erabili behar genituzke? Badute abantailarik, komunikazioa errazteko, adibidez? Edota haurraren hizkuntza garapenean kalterako dira?**

**ORAIN DELA EGUN BATZUK** galde-  
ra honi zer eta nola erantzun neure  
baitarako pentsatzen hasi nintzenean,  
nire bilobak —19 hilabete dituenak—  
gako garrantzitsu bat eman zidan:  
aulki txiki batean eserita zegoen eta  
bere irismenean ez zeukan koaderno  
bat seinalatu zuen eta argi eta garbi  
esan zuen: "pe-ga-ti-na". Koaderno  
ireki nuen eta —harridura apur bate-  
kin— konturatu nintzen koadernoaren  
orrietan koloretako gometx pila ze-  
goela, egunez egun, pazientziaz, berak  
itsatsitakoak.

Segituan bata bestearen atzetik jarri  
nituen hiru hitzak: "pupu", "txitxi" eta  
"pe-ga-ti-na", eta neure buruari galdetu  
nion zein ote den haur txikiei hitz egiten  
diegunean erabiltzen dugun hizkun-  
tza sinplifikatu eta umetzeko arrazoa,  
eurek erakusten baitigute, nabarmen, ez  
dutela era horretako hizkuntzarik behar.  
Haurrek tamaina txikia izateak ez du  
esan nahi euren adimena ere txikia denik.  
Euren bizitzako lehen bizpahiru urteetan  
euren garunak bizitzako beste inoizko momentutan ez  
bezalako hazkunde-abiaduran egiten ditu erlazioak. Garu-  
nak bere tamaina bikoizten duen aroa da 0-3koa.

Haur batekin pasieran gabiltzala txakur batekin guru-  
tzatzen bagara eta "hara, txakur bat... begira nola egiten  
duen zaunka... guau, guau, guau" esaten badugu, ohikoa  
da handik hurrengo egun batean, beste txakurren bat  
gerturatzen ikusten duenean, haurrak txakur hori seina-  
latzea eta "guau" esatea. Horrek ez du inondik inora ere  
justifikatzen guk berari "bai, guau bat" esatea, "bai, txakur  
bat dator" esan ordez.

Haurrak zergatik esan du "guau"?, ez dakigu ziur; agian  
"guau" "txakurra" baino errazagoa delako; akaso txakurra-  
ren zaunka delako haurrarentzat deigarriena, "guau"-ak  
eraginkortasunez laburtzen duelako haurraren esperien-  
tzia. Edozein kasutan ere, bere inguruko hizkuntzaren



mundua behatu eta entzuteko etengabeko lanaren —be-  
hin behineko— emaitza da; horixe du haurrak bere lana.

Guk maitekiro, samurtasunez eta gozotasunez hitz egi-  
teko beharra daukate haurrek. Baina gure hitzaren eta  
ahotsaren egiazkotasuna ere behar dute. Ez da beha-  
rrezkoa haurrak bezala hitz egitea. Horrela hitz eginez  
ez gara gure hizkuntzan ari, baizik eta ume txikiei gusta-  
tzen zaiela uste dugunaren arabera artifizialki sortutako  
zerbaitetan. Zergatik izan artifiziala norbere umearekin?  
Zergatik ez erabaki bakoitzaren beraren ahotsa, hitzak eta  
hitz egiteko modua erabiltzea? Zergatik ez hitz egin hau-  
rrari norbere bikotekideari edo lagun bati bezala? Zergatik  
ez hitz egin ahots arruntarekin, txikigarririk gabe, falsettoa  
egin gabe, sasi-hitzik erabili gabe; egunen batean, —jada  
heldua delako— horrela ez hitz egitea erabakitzen dugun  
arte?



## GAIXOTASUN ARRAROAK

# ZIURGABETASUNA BIZIKIDE

Munduko biztanleen % 6k gaixotasun arraroren bat du. 188.000 pertsona inguru lirateke Euskal Herrian. Haien sendikoek pertsona horiek duintasunez bizitzeko eta besteek adinako aukerak izateko duten eskubidea aldarrikatzen dute.



Maite Urgoiti, Luisma Landaluze, Alfredo Montañes, Itsaso Lopez eta Juli Nofuentes agiri dira argazkian, hurrenez hurren. Gaixotasun arraroak dituzten haurren gurasoak dira bostak, eta haiekin batera da Nofuentesen alaba Ariane ere; fibrosi kistikoa izeneko eritasuna du.

J aio eta berehala zure haurrak arazoak dituela ikusten duzunean, eta lehen probak egin bezain pronto gaixotasun arraro bat duela esaten dizutenean, bizitza determinatzen hasten zaizu. Etengabeko ziurgabetasunarekin bizitzen hasten zara, mila zalantza dituzu eta erantzun bila batetik bestera abiatzen zara, baina inork ez dizu ezer ziurrik esaten. Eta pixkanaka bizitza beste era batera hartzen ikasten duzu".

**Luisma Landaluze** Beñaten aita da. 15 urte ditu semeak eta oraindik diagnostikatu gabeko gaixotasun arraro bat du, % 95eko desgaitasuna eragiten diona. Borroka gogotik egin behar izan du familiak Beñaten

eskubideak defendatuz bizitzan aurrera egiteko.

Baina ez da bakarra; Beñatek bezala gaixotasun arraroa duten pertsonaz osaturiko familia ugari dago Euskal Herrian. Angelman, Addison, fibrosi kistikoa, DiGeorge, Adamantinoma, Parry... Osasunaren Mundu Erakundeak munduan 7.000 gaixotasun arraro inguru zenbatu ditu. Gaixotasun arraroak gaitz kroniko larriak dira, eta jaiotzan zein helduaroan ager daitezke. Euretariako asko genetikokoak dira eta heriotza-tasa handia izan ohi dute. Europako Batasunean, gaixotasun arrarotzat jotzen dira 10.000 biztanletik bostek baino gu-

txiagok dauzkatenak. Gaitz arraroek munduko biztanleriaren %6ri eragiten diotela kalkulatzen da. Datuak Euskal Herrira estrapolatzen badira, 188.000 pertsona inguruk gaixotasun arraroren bat duela ondoriozta daiteke.

Gaixotasun arraroak dituzten haurren Derioko bost gurasorekin elkartu da **Hazi Hezi**. Gure Señeak elkarteko kide dira guztiak. Ezin da gaixotasun baten eta bestearen arteko konparaziorik egin, kasu bakoitza bakarra baita. Hala ere, bost familia horiek badituzte hainbat ezaugarri komun: euren haurren gaixotasunen errealtatea ez da ezagutzen, eta beraz, ezin



dute inolako aurreikuspenik egin; ziurgabetasunean bizi dira. Ondorioz, unean uneko erabakiak hartu behar izaten dituzte, egunean eguneko bizi. Ezinbestean, malgutasunez eta sentiberatasunez jokatzeko ikasi dute, eta inguruko jarrera hori bera eskatzen diete: **“Hezkuntzako, gizarte zerbitzuak, osasuneko... profesionalei, instituzioei nahiz gizarte oro har, entzun gaitzaitela eskatzen diegu, enpatiaz joka dezatela, ez ditzatela gure haurrak aurretik juzgatu, eta jarrera positiboa eta irekia izan dezatela.** Izan ere, edonori bizitzako edozein unetan gerta dakiok berari edo ingurukoren bati horrelako gaitzen bat diagnostikatzea. Ez da inolaz ere harrizkoa familian gaixotasun arraroren bat duen norbait edukitzea”.

Gaixotasun arraro batekin elkarbizi beharrak pertsona horren beraren nahiz familiako kideen bizitzako alderdi guztietan eragiten du: eskola, lagunak, aisialdia, lana, bizitza afektiboa... Aneri, esaterako, hegoak moztu dizkio gaixotasunak. Orain dela urtebete, 16 urte bete berritan, bizpahiru urtez hainbat sintoma nozitu eta gero, Addison izeneko gaixotasuna diagnostikatu zioten. “Asko kosta zitzaigun zer gertatzen zitzaien jakitea. Oso nekatuta zegoela esaten zigun eta jateko gogoia ere galtzen hasi zen. Batean eta bestean berarekin hitz egiteko aholkatzen ziguten, arazoren bat izango zuela eta gurasoon laguntza beharko zuela. Argaltzen hasi zen, ez zuen jaten eta jandako hura bota egiten zuen. Hasieran, anorexia diagnostikatu zioten, eta behartuta gaixotasun hori artatzeko zentro batean sartzekotan egon ginen. Asmo horrekin genbiltzala, egun batez, botaka, zorabiatuta, indarrik gabe geratu zen eta urgertzietara joan behar izan genuen eta hantxe esan ziguten zer zen”, kontatzen du **Itsaso Lopez** Aneren amak. Nekea eta ahulezia eragin dizkio gaixotasunak eta lagunek egiten dituzten hainbat ekintza ezin ditu egin... Hala ere, bizitza normalizatua darama. Anek eta baita bere familiak ere. Bere zaletasun handienarekin aurrera jarraitzea ere ez dio eragotzi gaitzak: gimnastika erritmikoa egiten zuen, eta horretan darrai.

## Gure Señeak elkarte

**Gaixotasun arraroak edo desgaitasun kasu bereziak dituzten haurren familien babeserako Derioko elkarte da Gure Señeak. 2010ean sortu zuen herriko haurren osasunaz eta ongizateaz arduratuta zegoen herritar talde batek. Mugimendu solidario gisa jaio zen eta gaixotasun arraroak edo desgaitasunak dituzten haurren eskubideak eta etorkizun duina defendatzea du xede. Gaur egun, Irrien Lagunen Gizartegintza Elkarte kide ere bada.**

**Elkartearen berezitasun nagusia da era askotako gaixotasunak eta desgaitasunak hartzen dituela barnean. Gaixotasun arraro bakoitzari dagozkion elkarteak badira bazterretan, baina Gure Señeak-en helburua da herrian egoera antzekoan egon daitezkeen familiei laguntzea eta batasuna eskaintzea. Familientzat babes handia da era horretako elkarte bateko kide izatea, laguntza ekonomikoa ez ezik, soziala eta psikologikoa ere bai baita haientzat. “Gutxienez hemen badakigu entzun eta ulertu egingo gaituztela”, diote gurasoek.**

**Elkartearen inguruko informazio gehiago [www.gureseneak.org](http://www.gureseneak.org) helbidean eskura daiteke.**

Beste batzuen kasuan, askoz ere gehiago baldintzatzen du bizitza familian gaixotasun arraroa duen norbait edukitzeak. “Bakardadea” hitza behin eta berriz agertzen da gurasoen ahotan. Etxean horrelako kasu bat izatean, hasieran behintzat, galduta, nora jo ez dakitela sentitu dira ia denak. Lagunartean, kalean, ingurunean, gaixotasun arraroen eta horrek izan dezakeenaren inguruko ezezagutza handia dagoela uste dute. Eta sarri politikoki zuzena den hori esaten den arren, gero errealitatea oso bestelakoa dela. “Gu lagunik gabe geratu ginen. Klaudiak beste haurrek egiten zituzten gauzak ezin zituen egin, eta zirkulu hartatik kan-

po geundela ohartu ginen. Nolabaiteko bazterkeria bizi izan genuen”, **Alfredo Montañesen** hitzak dira. Alaba zaharrena Klaudiak 14 urte ditu eta Angelman sindromea du. Ez du hitzik egiten eta gurgildun aulkia behar du mugitzeko. Sei hilabeterako haurrak arazoak zituela konturatzen hasi ziren eta urte eta erdirekin detektatu zioten sindromea. Orduz gerotzik alabari adi bizi izan dira etxean.

Montañesen lagunartean eragin zion Klaudiaren gaitzak, eta baita bere lan-arloari ere. Klaudia zaindu behar zuelako lanera ez joateagatik bi lan galdu zituen Montañesek: “Nik argi neukan zein zen nire lehentasuna”. Gaur egun, 14 urte ditu Klaudiak eta gaixotasuna nahiko egonkortu zaio. Hiru senide gazteago ere baditu, eta pixkanaka, etxean bizitza berregituratuz joan dira: **“Egunerokoa ahalik eta normaltasun handienarekin eramaten saiatzen gara, eta denbora librean familian gozaten. Aspertzeko betarik ez daukagu eta emozio fuertea bila joan beharrik ere ez, dagoeneko nahikoa badauzkagu-eta”.**

Dibertsitatearen, inklusioaren edota haur guztientzako aukera berdintasunaren inguruan asko hitz egiten da, eta gizarteko alderdi guztietatik aldarrikatzen da. Gauza bat da, ordea, hitzez esaten dena, eta bestea, praktikan egiten dena. Aniztasuna ezin da liburu bidez jaso, dibertsitatea errespetatzen ikasteko, dibertsitate hori ezagutu eta bizi egin behar da. Horrexegatik, gaixotasun arraroak dituzten haurrak ere gainontzeko haurrekin batera eskolaratzeko aldarrikatzen dute sendiek. Horixe da Asierren kasua. 8 urte ditu eta Derioko eskola publikoan dabil, gela arruntean, beste haurrekin batera. Ez du gaixotasun arrarorik, garun-paralisia baizik, hau da, jaiotzean oxigeno faltak eragindako eritasuna. “Atzerapen fisikoa eta psikikoa ditu Asierrek, baina azkenaldian aurrerapen dezente ari da egiten eta gu ez gaude kexatzeko. Eskolan bertan logopeda eta fisioterapeuta jarri dizkiote, eta gainontzeko ikasleekin batera dago eta haiekin elkarreragina izateak onura handia egiten dio”, azaltzen du **Maite Urgoiti** Asierren amak.

Asierrek bere kidekoekin duen hartu-

## ETXEKOAK MINTZO

emanetik asko ikasten duen moduan, beste haurrentzat ere ikaskuntzabide bikaina da desgaitasuna duen haur batekin gelan egotea: **"Berarengana gerturatzea, bera ere pertsona dela konturatzea, gaixotasun bat duela baina ez dela kutsakorra ikustea, eta berarekin egoteak inori kalterik ez diola egiten oharzteza... hori guztia aberasgarria da"**. Futbolean jokatzeko ere hasi da Asier. Partida guztietan denbora batez jokatu duela erabaki du entrenatzaileak. Gurasoak zoratzen daude, eskolaz kanpoko ekintzetan ere beste umeekin batera parte hartzean onera egin duelako umeak. Hala, Urgoitik dioen bezala, beste haurrek, haien gurasoek eta kaleko jendeak gaixotasun arraroen errealitatea ikusi egiten dute eta bertatik bertara bizi. Urgoitiren ustez, askotan, gaixotasun arraroak edota desgaitasunak dituzten pertsonen aurrean beste alde batera begiratzea da errazena, baina aurpegiara begiratu gero, gauzak beste modu batean ikusten dira eta horretantxe saiatzeko da bera.

Eskolako espazioari garrantzia handia ematen diote gaixotasun arraroak dituzten haurren gurasoek. Etxean ez ezik, eskolan ere haur horiek ongi, zainduta, seguru sentitu behar direla diote, eta inolaz ere ez baztertuta. Batzuetan, ordea, haurrek erruduntasun sentimendua izaten dute, ikaskideentzat edota irakasleentzat karga direla sentitzen dute, eskolako martxa normalerako oztupo. Arianek DBH hasi zuen iaz eta malda gora egin zitzaion ikasturtea: muga eta arau gehiago, etxerako lan mordoa, LHko familia giroa ez, irakasle asko ezezagunak, konfiantzazko heldurik ez... Sarri, ondoezak jota egoten denez, ezin izaten du eskolara joan, eta jarraipena egiteko laguntza berezirik ez duenez, nekeza ari zaio egiten gelako erritmoa jarraitzea: "Ez dut nahi beti lagunei galdezka ibili zer egin duten eta zer ez, eta irakasle batzuk ere paso egiten dute". Amarekin batera hitzordura etorri da. Lehen begiratuan ezer antzematen ez bazaio ere, fibrosi kistikoa du, gaixotasun genetiko bat da eta gorputzeko hainbat organori eragiten die: birikei, pankreati, digestio aparatuari... Eten-gabe zaindu beharreko gaixotasuna da eta pertsona horien bizitza kalita-

tea nahiz bizi-itxaropenari nabarmen eragiten dio.

Arianek txikitatik daki gaixotasunaren berri, baina adinean aurrera egin ahala, gero eta gehiago ari zaio kostatzen eritasunaren larritasunaz kontzientzia hartzea eta gaitzari aurre egiteko indarrak biltzea, eta horrek familiako bizitzan eragina du. Halaxe mintzo da **Juli Nofuentes** ama: "Oso gogor hitz egin behar izan diot behin baino gehiagotan, errealitatearen gordintasuna begi aurrean jarritz. Iaz, adibidez, depresioa izan zuen, jateari utzi zion eta ingresatu egin behar izan genuen. Argi esaten nion, jaten ez bazuen hil egingo zela. Pelikulako gaiztoaren rola jokatu behar izaten dut askotan, eta horrek frustrazio handia sortzen dit". Kudeatzeko ez dira batere egoera errazak izaten, familiako harreman-sare osoari eragiten baitio. Nofuentesek badu beste seme bat ere, eta batzuetan "erabat abandonatuta" daukala iruditzen zaio. Beste gurasoek ere partekatzen dute sentimendu hori. Gaixotasuna duen haurraren arreta gehiegi jartzen dutela pentsatzen dute sarri, nahiz eta garbi izan beste seme-alabak, nahiz bikote eta familia erlazioak ere zaindu beharrekoak direla.

### Errukirik ez

Euren haurren gaixotasunak tarteko, beste era batera bizitzen ikasi dute elkarriketatu ditugun Derioko bost

familiak, egunean eguneko gauza txikiak baloratzen, eta biharkoaren zain egon gabe gaurkoa disfrutatzen. Azaleko gauzei ez diete inportantziarik ematen eta "txorakeriengatik" ez dira arduratzen. Beste batzuentzat izugarriko buruhaustea izan daitekeena garrantzirik gabeko kontua da haientzat.

Hala ere, argi dute zailtasunak etxe guztietan izaten direla, eta egun batetik bestera edonori bizitza alda dakiokeela. Euri gaixotasun arraro batekin elkarbizitza egokitu zaiela diote, eta tokatu zaien horrekin ahalik eta hobekien bizitzen ikasi behar izan dutela. Baina ez dute horregatik inorengan penarik eragin nahi: "Batzuetan jendearengan errukia eragiten dugu. Eta guk ez dugu hori nahi. Sentimendu horrek guri ez baitigu batere laguntzen, eta ezta haurrei ere", argitzen du Landaluzek. Batera eta bestera joan behar izan dutenean "amargatutako" eta euren onetatik ateratako guraso bailiran tratatu dituztela salatzen dute: **"Guk ere asko maite ditugu gure seme-alabak. Gu ere ahalik eta bizitza normalizatuena egiten eta zorionsu izaten saiatzeko gara"**. Momentu batzuetan orain egin ezin dituzten hainbat gauza faltan botatzen badituzte ere, horiek burutik kendu eta euren errealitatera egokitzen ahalegintzen dira, eta apurka, gaixotasunak eragin ditzakeen zailtasunak gainditzen: "Gauza gutxiarekin izan gaitezke zorionsu".



8-12  
URTE

## Mundua baloi batean

Pazai Zubizarreta + Elena Ochozela

Nikolasen baloi batua eta perultra beltzaketa prest dago eta, baina, baloi bakoaren azalera egiten duen eta azalera jalki, abantzeko, bakoaren joko da, zeren zuzenaz baliaren bakoak baloia.



## ArgixorGIN

Estibalitz Vivanco + Joseba Larretxea

Hilari zuzenaz eta buruztas zuzen abenturak, baina ere, jende zuzen irakurri bakoaren, bakoaren eta bakoaren. Hori guzti, abenturaren bakoaren eta bakoaren. Hori guzti, bakoaren eta bakoaren. Hori guzti, bakoaren eta bakoaren. Hori guzti, bakoaren eta bakoaren.

## Ipurtargien herrian.

Ramoa Olasagasti + Mikel Valverde

Leia bakoaren bakoaren bakoaren. Gurek, bakoaren eta bakoaren eta bakoaren eta bakoaren bakoaren. Bakoaren bakoaren, bakoaren, joko min bakoaren eta bakoaren bakoaren bakoaren bakoaren.





Aitziber ESTONBA  
Sexologoa

### ORGASMOA

Zazpi urteko alabak orgasmoa zer den galdetu digu. Nola azaldu geniezaioke? Uste dugu bera dagoeneko masturbatzen dela. Haurrek izaten al dute orgasmorik?

**BI GALDERA EGITEN DITUZU.** Lehendabizikoari erantzunez, argitu nahiko nuke, zure alabak momentuz "orgasmoa" hitza ez duela sexualitatearen gaiarekin lotzen. Horregatik, hain zuzen, galdetu du hain erraz. Bestalde, zer den esatea gomendatuko nizuke. Bere hiztegia erabiliz, (teknikoegia ez izatea) eta batez ere bere bizipenetara egokitua. Une hau polita izan daiteke, plazera bere osotasunean azaltzeko eta berarekin gai hau lantzeko. Bigarren galderari dagokionez, triste den arren, umeen

sexualitateari buruz oso-oso gutxi dakigu oraindik. Momentuz ezin dugu ziurtatu orgasmorik duten ala ez, baina ume askok haien genitalak ukitzerakoan gorriak jartzen dira, intentsitate altua lortzen dute eta gero lasaitasun fase batera pasatzen dira.

Nahiz eta prozesu hauek bizi ditzaketela ikusi ahal izan dugun, ezin zaio horri orgasmoa deitu, ondoren haien esperientzia subjektiboa adierazteko gai ez direlako.

### GORPUTZA EZAGUTZEN

Haur Hezkuntzan lan egiten dut, eta askotan ikusten dut haurrek euren gorputza eta kideena ezagutzeko eta ukitzeko interes eta jakinmin handia dutela. Helduok sarri urduritu egiten gara, batez ere gurasoren bat aurrean denean. Azaldu nahiko nieke beste helduei garapenean garrantzitsua dela plazera... Zer nolako garrantzia du gorputza ezagutzeak sexualitate osasuntsu bat bizitzeko garaian?



**HAUR TXIKIEK HONEN BIDEZ,** haien gorputza deskubritzen, ezagutzen ari dira eta era berean, haien gorputzak ematen dizkien aukerak bizitzen. Plazera lortzen dutela argi dago, eta hau haien gorputzari esker denez, hau plazer iturriarekin lotzeko aukera ematen die. Zer onuragarriago gure gorputza maitatzeko eta onartzeko, hau plazerekin lotzea baino? Bestalde, askotan, tentsioak askatzeko balio izaten die.

Haur Hezkuntzako irakasleek paper garrantzitsua jokatzen duzue honetan guztian. Argi dago umeek eskolan denbora asko pasatzen dutela eta haien harreman asko bertan ematen direla. Nolabait eskolan (etxe txokoetan) ematen diren jolas sexualak oso aberatsak dira haientzat, eta hor ikasten dute, haien gorputzaz, bestearen gorputzaz, gustukoak dituzten gauzak, gustuko ez dituztenak,

komunikatzeko moduak, baita besteari mugak jartzen ere. Azken finean, nire eta bestearen beharraz, nire eta bestearen sentimenduez, nire eta bestearen gustuez... harremanen oinarriak dira.

Garrantzitsua izango litzateke, eskolaz kanpo ere, horrelako espazioak egotea, baina etxeetan geroz eta denbora gutxiago pasatzen dugunez, azkenean jolas hauek eskola giroan ematera murrizten dira.

Beste hainbat jolas sustatzen diren bezala, hauetarako tartea ere egon beharko litzateke. Nahiz eta hauek naturalki ematen diren, irakasleek edo eskolak, geletan hauek sortzeko giroa prestatzearen ardura izango luke: gelaren berotasuna, etxe txoko gehiago, psikomotritate saio gehiago....

# SEXUALITATEA

## EREDU PAREKIDEAK

Nolako garrantzia du sexu-hezkuntzak parekidetasunean? Zer egin dezakegu haurrek eredu parekideagoak izan ditzaten?



**AZALPENAREKIN HASI BAINO LEHEN**, esan beharra dut sexologiak parekidetasunari mesede asko egiten diola. Sexologiaren balio hau ulertu ahal izateko derrigorrezkoa da sexologiaren oinarrizko kontzeptu bat azaltzea. Sexologiak sexuak ikertzen ditu eta sexuak diot pluralean, ez baitago sexu bakarra. Nahiz eta gizakiak bi sexueta banatu, gizon eta emakume guztiak intersexualak gara. Hau da, gure baitan, kromosomikoki, hormonalki, genitalki, zerebralki, baita kanpoko ezaugarriei dagokionez ere, denok dugu gure osaketan beste sexuaren eragina. Beraz, gizon eta emakume gara, baina guztiak bakarrak eta errepikaezinak, eta gure baitan beste sexuaren osagaiak ditugu. Honekin, aniztasuna eta ondorioz aberastasuna lortzen dugu. Hau da, badaude elkar ezberdintzen gaituzten gauzak, baina beste hainbat ere bai elkartzeko gaituztenak eta gure baitan beste sexuaren osagaiak izateak, sexuen arteko ulermena errazten du. Hau da, azken finean sexologiaren funtzio garrantzitsua: sexuen arteko ulermena, bai bi sexuen artekoa, gizon eta emakumezkoen artean, baina baita norberak bakarrik bezala onartuz bere buruaren onarpena ere. Beste

hainbat korrontetatik sustatzen den sexuen arteko gerrak guretzat ez du zentzurik, azkenean, beste sexuaren aurka joatea, intersexualitatearen haritik, nire buruaren kontra joatea ekartzen baitu.

Hemendik abiatuta, aniztasunetik hain zuzen, denok eskubide berdinak izan beharko genituzke eta ez da bidezkoa, gure kondizio sexutua dela eta, honen arabera diskriminaziorik egitea, ez emakumezkoiei eta ezta gizonezkoiei ere. Horrez gain, eta intersexualitatea dela eta, ez du ez hankarik ez bururik gure kondizioa hau dela eta (emakumezkoa edo gizonezkoa) gizartean rol bat edo bestea jokatzera behartuta sentitzeak, edo modu batean edo bestean jokatzeko, gustu batzuk edo besteak izateak, edo gauza batzuk edo beste batzuk sentitzera behartuta egoteak....

Hezkuntza sexualaren funtzioa —eta honekin bigarren galderari erantzuten saiatuko naiz— mundu honetan emakume bezala edo gizon bezala bizitzeko norbere modua garatzeko (ez inposatutako modua) behar dituen elementuak sustatzea izan behar luke.

## SEXUA IKUSPEGI ZABALETIK

DBHn tutore naiz eta konturatzen naiz gazteek sexualitateari buruz asko dakiten arren, eredu oso genitalizatua eta koitozentrista daukatela buruan, helduok bezalaxe ziurrenik. Sexualitatea ikuspegi zabalagoetik landu nahi dugu tutoretza orduetan. Sexualitatearen irudi irekiago hori lantzeko gako batzuk ematerik izango zenuke?

**ZUK DIOZUN BEZALA**, Internet dela-eta, gazteek informazio ugari dute. Bide horretatik jasotzen duten eredu guztiz koitozentrista, heterozentrista da eta gorputz estereotipuetan eta sexuen harreman ez-osasuntsuetan oinarritzen da, beste hainbat eta hainbat ezaugarriaren artean.

Beraz, guraso eta hezitzaileen lana informazio eta eredu hori zalantzan jartzeko baliabideak ematea izan behar luke. Gazteak kontura daitezkeen eredu horrek norberaren bizipenak, desioak, nahiak, autoestima, etab. kaltetu besterik ez dituela egiten.

Sexu hezkuntza informazioa emateaz baino haratago doa, jarrerak lantzea du helburu, norberak bere sexualitatea modu osasuntsuan bizitzeko baliabideak emanez. Sarean ere, baliabide ugari lor daitezke, eredu hori zalantzan jartzen dutenak. Horrelako bideoak edo artikuloen bidez, gelan eztabaida piztu eta haiekin zein sexualitate mota nahi duten garatu hausnartzera, pentsatzera eta hitz egitera gonbidatuko nituzke.

# KONTZILIAZIOA II

## “Emakumeei euren nortasunaren parte balitz bezala eskatzen zaie zaintzaz arduratzea”



Lana, familia-bizitza eta bizitza pertsonala bateratzeko neurriei genero ikuspegitik begiratzen die Raquel Royo Prieto soziologoak. Erantzunkidetasunaren garaia dela dio, guraso biek euren seme-alaben zaintzaren ardura partekidea har dezaten, baimen berdintzeak sustatuz, genero-arauak irauliz, baina, lehenik eta behin, nork bere gurasotasun-ereduaz hausnartuz.

Deustuko unibertsitateko irakaslea da, eta *Amatasuna, aitatasuna eta kontziliazioa EAEn* liburua idatzi zuen, tesitik abiatu. Familiak desberdinkeria-eskola izaten jarraitzen duela dio, besteak beste.

**Zure ikerketako bi datu aipatu nahiko genituzke: familiako lanen parte hartzeari buruzko Europako inkestetan Euskal Herriko gizonak azkenetakoak ageri dira zerrendetan, batetik; eta bestetik, seme-alabak zaintzeko baimenak hartzen dituztenen % 95 emakumezkoak dira. Nola irakurtzen dituzu datu horiek?**

Eszedentziak hartzen dituzten gizonen kopurua oso eskasa da eta denboraren erabilerari loturiko inkestek erakusten duten desberdinkeriak, bestetik, agerian uzten dute lanaren banaketa sexuala desagertzetik oso urrun dagoela Euskal Herriko etxeetan. Egoera aldatu egin dela iruditzen zaio jendarteari, oro har, baina Amelia Valcarcelek esaten duen bezala, bizi duguna berdintasunaren ilusio bat besterik ez da, berdintasuna benetan dena baino handiagoa dela iruditzen baitzaigu. Gaur egun, oraindik, inertzia eta desberdinkeria asko bizi ditugu bai etxe-giroan eta baita lanean ere, esparru batak besteari eragiten baitio.

**Nola eragiten die emakumeei seme-alaben zaintzagatiko baimenak eurak hartzeak eta lan munduan etenaldia egiteak?**

Neurri horrek emakumeengan dituen ondorioak ugari dira. Batetik, lan merkatuari dagokionez, emakumeak lanera sartzan direnean, Maria Pazosek esaten duen bezala, badi-rudi honako afixa hau daramatela: "prestutasun gutxiago". Emakume izate hutsagatik zaintzaren ardura-dunak izan behar gara pentsatzen da gutaz, eta horrek lan munduan eraginkortasun gutxiago dugula sinestaraztera darama. Pentsa horrek zer nolako kaltea egiten dien emakumei! Horrek lotura estua dauka gizonen eta emakumeen soldaten artean dagoen aldearekin. Emakumezkoak lanaldi murriztuetan egoteak —autore batzuek langabezia murriztua esango lukete— zer esan nahi duen ere ulertu behar dugu, horrek emakumeen autonomia ekonomikoan duen eragina handia baita.

Baliabide ekonomikoek eragina dute gero emakume horrek har ditzakeen erabaketan, bai bikote barruan, baina baita bikotetik kanpo ere; adibidez, banaketa kasu batean nola gelditzen da haurrak izan ostean lanaldi murriztuan ari zen andrea? Alarguntze-kasu batean... Lana eteteak edo murrizteak eragina du, baita ere, pentsioetan eta kotizazioetan. Zaintza-lana gizartearentzat funtsezkoa dela esaten dugu, baina zaintza hori egiten dutenak, hau da emakumeak, txirotze-prozesuetara behartuak daude. Lan honek ez dauka gizartean baliorik, ez prestigiorik ezta ordainsari ekonomikorik ere. Puntu garrantzitsua da, baita ere, maila pertsonalean, nortasunari nola eragiten dion. Adibidez, zaintza-lanen ardura duten emakumeek gizonen baino aisialdi gutxiago izaten baitute.

**Zer du egiazkotik "prestutasun gutxiago" dioen afixak? Emakumeak ez al dira gizonak bezain produktiboak?**

Hori uste oker bat da: datuek argi erakusten dute emakumeek ez dutela inondik ere gizonen baino emankortasun txikiagoa lanean.

**Eta gizarteari, oro har, nola eragiten dio ama izatean emakume asko lan merkatutik denbora baterako ataratzeko?**

Emakumezkoen talentuaren galera dakarkio gizarteari. Eta, paraleloki, gizonen zaintza-gaitasunen galera ere bai. Esan liteke okupazioa sexu-generoaren arabera erabakitzen dela eta ez gaitasun eta talentu pertsonalen arabera. Bai emakumezkoek eta bai gizonen inposaketa sozial bat jasaten dute generoagatik; beraz, ustez sistemak pribilegiatzen duen subjektuari ere kalte egiten dio egungo lan-banaketak. Sistema honek gizonen gaitasunari aitatasuna ukatzen die, baina askotan eurak ere ez dira hortaz ohartzen. Aitatasun-eredu berriei esker, euren seme-alabak "amek bezala" zaintzen dituzten gizon horiek euren

alderdi emozionala berreskuratzen dute, eta hori ikaragarriko aberastasuna da denontzat.

**Datuekin jarraituz, euskal gizartearen % 96,4k uste ei du gizonen emakumezkoek bezalaxe hartu beharko luketela euren seme-alaben zaintzaren ardura. Zergatik gertatzen da, hortaz, desberdinkeria hori, teoriarantz erantzunkidetasunaren ideia nagusi denean?**

Gauza bat da pentsatzen duguna, eta beste bat gure izatearen parte diren balioen pisua, hau da, gizarteari jaso dugun hori, ikasi dugun arau soziala zein barneratua dugun eta nola eragiten duen gure praktikan. Arau horri dagokionez, etxeak desberdinkeria zabaltzeko eskola gisa funtzionatzen dutela ikusi dugu. Bikote heterosexualen seme-alabek ikusten badute gizonak gauza batzuek eta emakumeak beste batzuek ardura-tzen direla, hori ari dira barneratzen. Nahiz eta buruan beste ideia bat izan, zenbat emakumeri ateratzen zaigu, "utzi, neuk egingo dut, azkarrago egingo dut-eta!".

**Zergatik dauka zaintza-lanak hain prestigio gutxi ongizate gizartearen oinarri baldin bada?**

Zaintzarik gabe ezingo litzateke lan-merkatuan beharrik egin, baina, era berean, zaintzaren alorra erabat pribatizatua dago, etxe barruko arduratza utzi baita, gizartearen ardura ez balitz bezala, ez da aurrekontuetan kontuan izaten, ikusezin bi-

**"Lan-banaketaren sistema honek emakumezkoen talentuaren galera dakarkio gizarteari eta gizonen gaitasunari ukatzen die"**

lakatu baitute. Lan feminizatua da eta emakumei euren nortasunaren parte balitz bezala eskatzen zaie zaintza-lana egiteko.

### **Ondorioz, emakume askok jardunaldi bikoitza egin beharra izaten dute, kanpoan eta etxean lan.**

Bere garaian jardunaldi murriztuak aurrerapauso bat izan ziren, baina gaur egun zama bat bihurtu dira emakumeentzat, andrazkoak rol erreproduktiboetan betikotzeko tranpa bilakatu baitira. Horrek autonomia ekonomikoari kalte egiten dio, baina baita hainbat lanpostutara iristeko oztopo bilakatzen ere. Gaur egun, neurri horiek desberdinkeria betikotzen dute.

Jardunaldi bikoitz hori daramaten emakume askok, gainera, kulpa sentimendu handia bizi izaten dute. Tesian gai hau ikertu nuen, bikote bereko emakume eta gizonezkoen kasuan, paradoxikoki, emakume guztiek kulpa sentimendua izan zuten mintzagai; aldiz, gizonezkoek, nahiz eta denbora gutxiago eskaini euren seme-alaben zaintzari, ez zeukaten kulpa sentimendurik. Amekiko espektatiba oso exijenteak ditugu, ama ona izateak denbora osoa seme-alaben zaintzari eskaintzea esan nahiko balu bezala.

### **Lana eta familia kontziliatzeaz aritu gara, eta zeharka aipatu duzu bizitza pertsonala kontziliatzeko premia. Ez ote dira emakume asko puntu horretaz ahazten?**

**“Gizon batek eta andre batek pentsa dezakete maila berdinean daudela, baina familia bat osatzean sistema publikoak esaten die andreak direla zaintzaz arduratu behar direnak”**

Agindu sozialak, sistemak, onartzen du gizonezkoek, ekoizpen-merkatuan lan egin ondoren, atsedean hartzeko eskubidea dutela, eta eurek ere nahiko barneratua daukate ideia hori. Haatik, emakumeek gaur egun oraindik norbere burua zaintzea baino barneratuago daukate ondokoa zaintzea, eta sistematikoki euren interesen, beharren eta desioen aurretik besteenak jartzen dituzte. Onartzen dugu besteek eurentzako denbora behar dutela, baina kosta egiten zaigu, oraindik ere, geure buruari premia hori aitortzea eta betetzea. Nork bere buruarentzat denbora hartzeko eskubidea duela aitortzea ezarritako genero-arauak iraultzeko bide bat da.

### **Bi gurasoen baimenak berdintzeak lagunduko al luke egoera pareki-deago egiten?**

Gizonezkoek eta emakumezkoek baimen berdinak eta partekaezina dituzten esperientziek erakutsi dute, argiki, neurri garrantzitsua dela. Gizon batek eta andre batek pentsa dezakete maila berdinean daudela, baina familia bat osatzean sistema publikoak esaten die andreak direla zaintzaz arduratu behar direnak nagusiki, eurek duten zaintza-eskubidea luzeagoa baita gizonezkoek dutena baino. Politika publikoek esaten digute zaintzaren ardua emakumezkoena dela bikote heterosexualetan. Hori iraultzea garrantzitsua da gizartearentzat baina baita emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat ere. Azken hauen kasuan, euren seme-alaben zaintzan hasieratik parte hartzen duten gizonezkoek lotura estua eraikitzeke aukera handiagoa izaten dute, eta horrek atxikimendua sortzen laguntzen du. Nik egin nituen elkarrizketetan argi ikusi nuen, zaintza-lanean lehen mailako rola hartzen zuten gizonezkoek —eta ez laguntzailearen bigarren mailakoarena—, atxikimendu lotura

garrantzitsua eta konplizitate handia eraikitzen zuten euren seme-alabekin, eta ondorengo zaintza-jarreretan garrantzia handia zuen lehen momentu horrek. Zuk zure lanaren edo tabernan egotearen aurretik zure seme-alaben zaintza jartzeko, lotura estu bat eta nahikari bat eraiki behar duzu. Haatik, politika publikoek eta inertziek beste aldera jotzen dute.

### **Beste zer neurri zehatz dira balio-garri familia-bizitza, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko?**

Lan jardunaldia modu orokorrean murriztea garrantzitsua iruditzen zait; ez soilik emakumezkoek murriztea, baita gizonezkoek ere, zaindu ahal izateak normala beharko bailuke izan. Ezin dizkiegu egiturazko arazoei soluzio biografikoak bilatu, ezin du norberak bere irtenbidea bilatu, aitonari, amonari deituz... Zaintza-lana posible egingo duen gizarte batean bizi behar dugu, bizitza zaintzeko beharrezkoa baita elkar zaintzea.

Horrez gain, esan dugun bezala, gurasotasun-baimenak parekatzea oso garrantzitsua iruditzen zait, baita noski, sexu bereko gurasoen kasuan ere. Baimenak amak edo aitak har ditzakeenean, ia-ia beti emakumezkoak hartzen ditu; haatik, iparraldeko herrialdeek erakutsi dute aitek ere euren baimen partekaezina dutenean aitatasun-lanetan parte hartze handiagoa dutela. Gainera, bizi dugun egoera hau injustua da gizonezkoentzat: eurak kotizatzen ari dira baina gero ezin dute zaintza-lana benetan ahalbidetuko dien aitatasun baimen batez behar bezala gozatu, ukatzen zaien eskubide bat da. Eta horrek, gainera, desberdinkeria egoera batean ezartzen ditu emakumeak, zamatatu egiten du “prestutasun gutxiago” dioen kartel hori.

Garrantzia ematen diot, baita ere, zaintza-lanak ahalbidetzen dituzten zerbitzu publikoak sustatzeari. Eta hau puntu benetan garrantzitsua iruditzen zait guraso bakarreko familiei begira. Gastu publikoa murrizten duten gizarteek emakumeen egoera kaltetzen dute, estatuak bereak zituen egiteko batzuk —zaintzari, hezkuntzari, osasunari lotuak...— abdikatu baititu. Gaixo bat





erietxetik etxera bidaltzen badute osatu aurretik murrizketen ondorioz, nork zainduko du etxean? Gastu publiko handiagoa duten herrialdeek, eta berriro iparraldeko herrialdeak aipatuko ditugu, emakumeen egoera hobetzen dute, eta gizarte parekideagoak dira.

**Aipatu dituzun neurri gehienak administrazioen esku daude. Eta bitartean, zer egin dezake bakoitzak bere testuinguruan?**

Erantzunkidetasunaren ideia berreskuratu behar da. Zaintza-lanaren arduraren pribatizaturik, ikusezin eta feminizaturik egotetik gizarte arduraren izatera pasa behar da. Horrek gizartearen, enpresen eta, noski, gizonen eta emakumeen parte hartzea eskatzen du. Beraz, bi fronte genituzke zabalik: batetik, eredu sozialaz eztabaidatu behar dugu, bai erakunde mailan eta alderdi politikoen mailan, baina baita gizarte mailan ere, gure

lehenetasunak zeintzuk diren zehaztu behar dugu, hezkuntza, osasuna, zaintza... ala eredu desarrollista bat gura dugun, kontsumitu ezin duena baino gehiago ekoitziko duen gizarte bat nahi dugun. Eztabaida horri heldu behar diogu, gauden lekutik. Egunerokotasunari dagokionez, pertsonok, eraikiak izan garen bezala eta sistema barneratua dugun modu berean, egunerokotasuna aldatzeko eta desobeditzeko boterea daukagu. Nola? Lehenik eta behin, egoeraren kontzientzia hartuz, eta bigarrenik, Erich Frommek dioen bezala, askatasunaren zama astuna asuminutz, hau da, gure gurasotasuna nolakoa izango den erabakiz. Egia da lan-merkatuak presio ikaragarria eragiten digula, baina halaber, inoiz baino aukera handiagoa dugu geure gurasotasuna planteatzeko.

**Ezagutzen al duzu lan ordaindua, familiako lana eta bizitza pertsona-**

**la modu parekidean ahalbidetzen dituen sistema eredugarririk?**

Europa iparraldeko herrialdeetan emakumeentzako baimenak ondo zaintzen hasi ziren, gero baimen horiek aitek edo amek hartzeko aukera ireki zuten, baimen transferigarriak baitziren, eta gero, aitentzako baimenak sortu dituzte, transferiezinak direnak, kuota gisa ezartzen direnak, hau da, edo aitak hartzen ditu edo ez ditu inork hartzen. Azken baimen horrek aldaketa garrantzitsua ekarri du gizonezkoek euren seme-alaben zaintzan duten esku hartzean. Praktikan egiaztatu da baimen horiek zaintza-eredu parekideagoa dakartela, beraz, iparraldeko herrialdeetako ereduak aipatuko nituzke. Islandiak, adibidez, hiru aldi bereizten ditu: baimen transferigarriak, amarena transferiezina eta aitarena transferiezina, eta egiaztatu dute aitek baimen horiek hartzen dituztenean euren parte hartzea zaintzan areagotu egiten dela. Zaintza-baimen transferiezinak eredu garrantzitsua dira, partekagarriak direnean andreek hartzen baitituzte eta sistemaren inertziak betikotzen baitira. Gainera, horrek gurean zera dakar, ama etxean gelditu behar bada seme-alabak zaintzeko, egunerokotasunari aurre egiteko bikotekideak zortzi ordu baino gehiago sartu behar izaten dituela, eta rolen tradizionalizazioa dakar, hau da, haur bat izatean, gizonezkoek lan-jardunaldia luzatzeko joera dute eta emakumeek murriztekoa eta lan erreproduktiboa areagotzekoa. Gakoa emakumeek eta gizonek independentzia ekonomikoa edukitzea ahalbidetuko lukeen gizarte-eredu bat bultzatzea litzateke, zaintza eta hazieraren plazer eta lo-galtzeen arduraren parekidea bermatuko lukeena. Egunerokotasunean norberak duen botereaz jabetzea garrantzitsua da, eta nork bere buruari denbora eskaintzea ere bai. Gure etxean jarrera aldatze hutsa eta parekideago jokatzea gure seme-alabentzat onura da, eta baita ondokoentzat ere, eredu parekideagoa ari baikara eskaintzen. Horretarako, emakumeok ere zaintzaren esparruan izan dezakegun botereari uko egin behar diogu, eta besteari ardurak hartzen utzi behar diogu, "utzi, egingo dut nik" horri galga jarriz.

## AURPEGI ETXEA

Gorputzean gora goaz  
Poliki poliki  
Begira hor aurpegian  
Dagoen etxea  
Goian dago teilatua  
Beherago leihoak  
Atea irekitzeko  
Erabili txirrina  
Txirrin-txirrin, txirrin-txirrin!



### Nola jolasten den

Kilimak eta laztanak egiteko jolasa dugu honakoa. Haurrari oinetatik hasi eta aurpegiraino kilimak eginez, edo hatzekin pausotxoak emanez aurpegiraino iritsiko gara, eta ondoren aurpegiko bere atalak ukituko ditugu etxe batekin parekatuz.

- Teilatua-ilea
- Leihoak-begiak
- Atea-ahoa
- Txirrina-sudurra

Jolasaren kanta, <http://www.urtxintxa.eus/jolasa/aurpegi-etxea/> helbidean ikus eta entzun ditzakegu.

## JOSTAILUA

Jostailu bat neukan  
Erraldoi-erraldoia zan  
Atzo galdu zitzaidan  
Bilatu zure ondoan

Jostailu bat neukan  
Handi-handia zan  
Atzo galdu zitzaidan  
Bilatu zure ondoan

Jostailu bat neukan  
Ertain-ertaina zan  
Atzo galdu zitzaidan  
Bilatu zure ondoan

Jostailu bat neukan  
Txiki-txikia zan  
Atzo galdu zitzaidan  
Bilatu zure ondoan




### Nola jolasten den

Taldean edo binaka egin daitekeen animazio jolasa da, batek dinamizatzen duelarik. Gidatzen duenak esaldi bat esan eta keinuak egingo ditu, eta besteak (edo besteek) errepikatu egingo dute esandakoa eta baita keinuak ere. Bilatu zure ondoan esaterakoan kilimak egingo dizkiogu elkarri, jostailutxoa bilatzen ariko bagina bezala. Hasieratik, dinamizatzaileak eskuan jostailutxo txiki bat ezkutatuta izango du (kanika bat adibidez) eta kanta amaitzerakoan norbaiten gorputzaren txoko batetik aterako balu bezala egingo du.

Jolasaren kanta, <http://www.urtxintxa.eus/jolasa/> helbidean ikus eta entzun ditzakegu.

Kukubiltxori esker barneratu genituen ikastolan azala ukitu ziguten gure mitol



Gotzon  
BARANDIARAN ARTEAGA  
Idazlea

## HERRI KANTAGINTZAREN SUSTRUKUTIK

**K**ukubiltxori esker barneratu genituen ikastolan azala ukitu ziguten gure mitologiaren eta ahozko kontagintza tradizionalen hainbat istorio, pertsonaje eta mundu ikuskera. Azken hauxe da egun umeentzako elikagai intelektuala hautatzeko orduan berez nagusitzen zaigun zentzumena: eskain diezaiela gure umeei mundu ikuskera propioa garatzeko aukera, erakus diezaiola gure ahozko zein idatzizko tradizioetik belaunaldiz belaunaldi transmititu dizkiguten kanta, ipuin eta enparauak, norberaren galbahe-tik garandu daitezkeela, norberaren egunerokora moldatu daitezkeela, norberak bizi duen sasoiraren eguneratu daitezkeela. Horixe egin du Kukubil-

"eskain diezaiela  
gure umeei  
mundu ikuskera  
propioa garatzeko  
aukera, erakus  
diezaiola gure  
ahozko zein  
idatzizko tradizioetik  
transmititu  
dizkiguten kanta,  
ipuin eta enparauak"

txok 1977an sortu zenetik oholtzaratu dituen 30 bat ikuskizunetan, euskal kontagintza tradizionalaren berrikusketa kritikoa.

Laster 40 urte beteko dituen ibilbide horretan, **Oskorrigaz** batera burututako trilogia ezinbesteko erreferentzia iruditzen zait. 1993an plazaratu zuten **Katuen testamentua** bilduman, Bizkaian baserriz baseri jasotako kanta sorta bildumatu zuten, 1997ko **Marijane kanta zan** M.J Minaberriy hegoaldean ezezagunak haurrentzat sortutako testuak, zombait poematzat har ditzakegunak, musikatu zituzten. 2005ean R.M. Azkuek, Manuel Lekuonak eta Aita Donostiak jasotakoez gain, Pili Arin, Leire Ibañez, Juanito Etxetxipia, Daniel Goiburu eta Rosario Izagirri ikasitakoak ere apailatu zituzten. Bai **Katuen testamentua** bilduman baita **Doktor Do Re Mi** sortako kantetan ere, gertakizunen kontraera puztu, arranditsu edo fantastikoak dira nagusi. Itzelak gertatzen zaizkie protagonistei, sinestezinak, entzuleak adi adi mantentzekoak. **Marijane kanta zan** naturari eskainitako ereserkia da, animalia, landare, zuhaitz zein urtaroei buruzko margolan koloretsua. Onomatopeiak, bertsoak, koplak, mikro-ipuinak eta ahozko kontagintza zein kantagintzaren urregorriak Oskorri taldekoek letrekiko mimetikoki musikatu zituztenak. Musikariak ohikoa du lehenik instrumentazioa landurik, berbak gero atxikitzea. Trilogian, ostera, aurrez aukeratutako hitzak izan zituzten abiapuntu Oskorrikoek eta hori igarri egiten da kantetan. Letrak dira zuzendari, berben aldartearen arabera dira kantak dantzarako, irri-rako, gogoetarako, malenkoniarako, sosegurako. Okarinak, panderoa, gitarrak, mandolina, alboka,

...diktadurak hori ere galarazi zigun, haur de

ogiaren eta ahozko kontagintza tradizionalako hainbat istorio, pertsonaje...



flauta, atabala, ttun-ttuna, zapatak, biolina, nyckelharpa, klabezinak, djembea, darbuka, bodhran, guiroa, bateria, toberak, txalaparta, trikitiak, heldu zein haurren ahotsak. Sasoi bateko euskaldunen imaginario askotarikoa.

Hiru kanta bildumok entzungai ez eze, ikusgai ere paratu zituzten Kukubiltxok eta Oskorrik Euskal Herriko hainbat herritan. Emanaldi horietako batzuk grabatu eta DVD eran ere argitaratu zituzten. Oskorrikoez, kanten azalpena barik, kanten interpretazioa egiten zuten, kanten irakurketa dramatikoak. *Katuen testamentuan* galtxagorriak ziren, Marijane kanta zanen otso-otsandak eta *Doktor Do Re Min* Hankoker extralurtarrak. Ahozkoaren transmisioa, irudimena, fantasia, kalitate musikal izugarria, mundu ikuskera propioa. Ez dut miresmena ostenduko, entzunaldi bakoitzeko aberasten nauen trilogia zait, egungo sorkuntzetan kausitzen ez ditudan ezaugarriez beterikoak.

Oharkabean iragan zelako, aipatzekoa iruditzen zait **Kirmen Uribe** **Mikel Zarateren** **Haurgintza minetan** liburuan oinarrituta idatzitako **Ekidazu, lehoiek ez dakite bibolina jotzen** lana. Neoliberalismo basatiaren gehiegikerietako baten testuinguruan, animalien ahotan, gehiegizko kontsumismoaz hausnartzeko gogoeta sano mamitsua izan zen antzezlanak, disko formatoan plazaratu zuten 2003an, arestian aipatu ditugun lan guztiak legez, ELKAR etxeagaz lankidetzan.

Kukubiltxo eta Oskorriren bidetik ez oso urruti, **Josu Zabalak** **Emilio Donadoren** *Canciones*

*populares vascas de Olaeta, Gatzaga, Legutio y Ubidea* liburuetako **Aur kantak** laugarren ataletik jasotakoekin **Otxandioko umeak-Ala Kinkirrinera...** egitasmoa abiatu zuen. Egitasmoa diogu, diskoak argitaratzeaz gain, Josu Zabalak Otxandioko eskolako ume eta irakasleak gogo biziz jardutera bultzatu baitzituen herri-ondarearen eta curriculum propioaren lanketa kolektibo hartan. Egun herriz herriko, tokian tokiko edukiak lantzeko aldarria sakon sustraitzen hasi delarik, ahozko tradizioa, herri kantagintza berreskuratuz, kritikatu eta gaurkotzea ezinbestekoa dela iruditzen zait, are gehiago, aukera izanez gero, Otxandion egin zuten antzera, herriz herriko, tokian tokiko musikari zein kantariekin gauzatzen bada. Kukubiltxokoez Oskorrikoen kantak antzetzuz bazituzten, **Ala Kinkirrinera...** diskoko kantei **Igor Elortza** eta **Unai Iturriagak** ondu zizkieten sarrera kritikoak. Soka salto, txalotruke, biribilketa edo trukemean aritzen dira egun ere gure haurrak, gerra osteko doinuetan, emaztea jo, hil eta zatikatzen duten gizonen ahotsetan. *Ala Kinkirrinera...* sortak erakusten digu espainazaleen diktadurak hori ere galarazi zigula, haur denborako mundu ikuskera ere erauzi zigutela.



denborako mundu ikuskera ere erauzi ziguten.

# "Guk, mundua aldatu nahi baitugu, ahuleneekin egingo dugu iraultza, eskutik helduta



AIORA ZULAIKA  
JOXE MARI AGIRRETXE  
MERTXE RODRIGUEZ

"UMEAREN ASKATASUNETIK ETA HELDUTASUNAREN ABAINTAILEKIN", GOZAMENETIK ETA EUSKARATIK, GAIRIK ZAILENEKIN BARRE ETA DANTZA EGINARAZTEN 25 URTETIK GORA DAMARATZATE PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTSEK.



Aiora Zulaika *Pirritx* (1975), Joxe Mari Agirretxe *Porrotx* (1964) eta Mertxe Rodriguez *Marimotots* (1968). Lasartearrak dira hiru pailazoak.

Euskalgintzatik iritsi ziren pailazogintzara. Ondo pasaraziz, Euskal Herriko etxe gehienetara. Barreak eta hausnarketa ugari zabaldu dituzte, aniztasunaz, euskaraz, hezkuntzaz, sormenaz, askatasunaz... baina letra txikiz, eginez, ekinez, eta batez ere empatiaz eta naturaltasunez.

### **Barrea eragiten duzue, ondo pasatzea ahalbidetzen, gozamina zabalzen... baina ez beti barregarri diren gaien inguruan...**

**JOXE MARI AGIRRETXE:** Hasierako gure esketxak klasikoak ziren, guk ere kopiatu egiten genuen, eta gero, poliki-poliki geuretik sortzen hasi ginenan ikusi genuen beste gai batzuk ere landu zitezkeela umoretik, gure herriak bizi dituen gaiak, eguneroko bizitzarekin, eta irratan entzuten eta egunkarian irakurtzen genuenarekin lotura zuzena zuten gaiak landu zitezkeela, minbizia dela, ijitoak direla, Pirinioetako hartzak direla, Albaola...

**AIORA ZULAIKA:** Kopiatzetik sorkuntzara pasatzean, umoretik errealitateari begiratzen hasi ginen. Ez nuke esango balioak erantsi dizkiogula gure lanari, baizik eta egunerokotasunean umorea bizimodu bilakatu dugula urteen poderioz, eta egunerokotasuna ere filtro horretatik bizitzen ikasi dugula. Eta behin betaurreko horiek jantzen dituzunean, sorkuntza ere desberdina da; umorea jarrera bat da.

### **Abestien, kontakizunen eta ikuskizunen sortze-prozesua nolakoa da?**

**MERTXE RODRIGUEZ:** Umeak bezala gara sortze-prozesuan, jarrera erabat irekia daukagu. Ume txikiek ez daukate aurreiritziarik, errealitatea bizi dute, gaixotasunak, heriotza... Minbiziaren gaia jorratzea, adibidez, bisita baten ondoren erabaki genuen, ez genuen bilerarik ere egin. Ideia daukagunean ideia horren protagonistekin hitz egitera joaten gara, gaixo dauden umeekin, haien familiekin, medikuekin egoteak, mundu horretan murgiltzeak eta beraien egunerokotasunean sartzeak klabe asko ematen dizkizu.

**J.M.A.:** Ikuskizun berriko ardatz Albaola dugu; proiektu iraultzailea da eta oholtzara eramatea erabaki genuen. Horretarako Albaolan izan gara, hango protagonistekin, ezagutu dugu nondik datozen, zertan ari diren, nora doazen... haien asmoak ezagutu ditugu, eta horrez gain, prentsa aztertu

dugu. Prentsan ikusi dugu plastikozko kontinente bat ari dela sortzen munduan. Hori guztia kontuan hartuta historia bat eta abesti batzuk sortu ditugu Jon Maiarekin.

**A.Z.:** Haurrak ere oso informazio-iturri onak dira. Joxe Mariren haurrak txikiak zirenean ni oso harrিতuta uzten ninduten, eta askotan sartzen genituen haien esanak eta ideiak esketxetan. Orain taldeko beste batzuen ume txikiak dira informazio-iturri, bikainak dira, egunero ematen dizkizute ikuskizunetarako aproposak diren egoerak, baldin eta zu haiei entzuteko eta begiratzeko prest baldin bazaude.

**J.M.A.:** Behaketaren jarrera da gurea. Kontatu nahi dugun errealitate hori bizi dutenekin eurekin bizitzen saiatzen gara, euren esperientzia jaso, ulertu eta sentitu eta mahai baten bueltan ideiak botaz hizketan jartzen gara. Hortik ideiak eta barreak sortzen dira.

### **Zuen ikuskizunen abiapuntuan elkarlana dago beti.**

**J.M.A.:** Bai, izan gaixotasun baten gaia jorratu dugunean, edo egoera baztertzaile bat deskribatu dugunean, egoera horiek bizi dituztenekin egon gara, bizipen horiek jaso ditugu, empatizatu eta bere larruan jartzen saiatzen gara itxaropen bat eta irtenbide bat emateko, eta denok nahiko genukeen beste mundu bat egiteko.

**A.Z.:** Esperientzia bizi dutenekin elkarlanean aritzeaz gain, sortze-prozesuan kolaboratzaile askok hartzen dute parte, gidoia idazten, abestiak sortzen... eta polita da sortzaile horiek ere haurrentzako sortze-prozesuan nola murgiltzen diren ikustea. Egunerokotasuneko zurruntasunak alde batera utzi eta eurak ere salto egitera ausartzen dira.

**J.M.A.:** Gehien-gehienok ez gara heziak izan horrela jokatzeko; seriotasun bat eramateko, diziplinatuak izateko, itxura emateko heziak izan gara. Oro har, ez gara izan sormenerako heziak, emozioez aritzeko heziak izan ez garen bezalaxe. Ez etxean eta ez eskolan. Zurruntasuna hausten duzunean, salto egiten duzunean, zeure burua margotzen duzunean, asko gozaten duzu. Zure clown hori sortzea oso dibertigarria da.

### **Zuoi ere pailazo izate horrek ez ote dizuete askatasuna ematen aipatzen**

### **duzuen zurruntasuna hausteko, helduoi gizarte honek ezartzen dizkigun karratutasun horietatik ateratzeko, lotsak, itxurak, mugak...?**

**J.M.A.:** Nire kasuan, gure belaunaldia familia-eredu batetik etorria da, non ama etxean zegoen eta aitak kanpoan lan egiten zuen; aitak diziplina iradokitzen zuen, eta amak goxotasuna, nahiz eta tarteka alpagata pasiatzera ateratzen zuen. Emozioak etxean bertan oso modu gordean transmititu izan dira, sekula ez modu agerian.

Eta zer eskolatatik gatoz? Buruz ikastera eta errepikatzaera behartzen gintuen eskola-eredu batetik gatoz, zigorra jartzen zen eta ehun aldiz kopiatu behar genuen... sormenarekin oso zerikusi gutxi zuen eskola-eredu batetik gatoz, norbera izateko aukera txikia eskaintzen zuena.

**M.R.:** Aiora eta biok beste belaunaldi batekoak gara, baina uste dut eskola berekoak garela eta antzekoa esan dezakegula etxeaz. Mozorroak askatasuna ematen dizu, oholtza gainean izan nahi duzun hori zara. Eta, era berean, babesa ematen dizu. Batzuetan mozorroa jantzen dugu geu izateko.

**A.Z.:** Pertsonaiek ez daukate helduok daukagun motxila hori, aske dira. Umearen askatasun hori dauka pailazoak, baina, era berean, heldutasunaren abantailekin. Gaur 7 urte daukagu, bihar 2, baina nire adina ere badaukat. Oholtzan ez diogu Aiora, Joxe Mari eta Mertxe izateari uzten, pertsonaia bana landu dugu, Pirritx, Porrotx eta Marimototse-na, izaera bana, baina guk geuk ere urteekin asko barneratu dugu gure pertsonaieetatik; pertsonaia eta pertsonaren arteko sinbiosi bat egon da, elkar elikatze bat. Eta, une honetan, oso polita da sentitzea oholtza gainean izan nahi dugun hori garela.

### **Urte asko daramatzazue zuen pertsonaiaren barruan, nolako bilakaera izan du pailazoekin duzuen harremanak?**

**M.R.:** Porrotx oinarritzkoena da, sinpleena da, haurraren begiradatik haurrena; sentimenduak pil-pilean dituen da. Pirritx sofistikatua da, burua da, azkarra. Marimo basatiena da; zuhaitzetan igotzen dena, asko maite du natura, eta nahi duenean gehiago ulertzen du Pirritx, eta ondo pasa nahi duenean Porrotxekin konplizitate handiagoa du.

**J.M.A.:** Porrotx eta biok elkarrekin joan gara aldatzen eta bidea egiten. Porrotx hiruotan oinarritzokoa da Pirritx espresioa da, keinua... Arte Ederretatik dator: koadroak pintatzetik aurpegia pintatzera pasa zen. Marimototsek Mertxetik asko du. Mertxe euskararen mundura etorri da, eta euskararen mundua irabazi du eta euskarak berea. Beretzat euskara ikastea mundu bat deskubritzea izan zen, eta jarrera hori du bizitzan, beti deskubritzen ari da; jolastia da.


**M.R.:** Leiho bat ireki zait euskararen mundura sartzean. 18 urterekin, jende guztia Londresera joaten zen ingelese ikastera, eta ni barnetegira joan nintzen euskara ikastera. Eta barnetegitik bueltan antzerki munduan hasi ginen, eta Lasarteko gaztetxean tailer bat sortu genuen eta hor agertu zen Aiora. Garai horretan euskararen aldeko maratoian sartu zen taldean Aiora. Marimori, niri euskararen mundura sartu nintzenean bezala, dena egiten zaio berria eta ederra bizitza honetan.

**J.M.A.:** Lagunarte bat baino gehiago bigarren familia bat eman digu lan honek. Pentsa urtean zehar zenbat aldiz biluztu garen elkarrekin, kar, kar!!

Hogeita bost urtetik gorako ibilbide hau haurrekin, gurasoekin, aitona-amonekin eta irakasleekin egin dugu, eta gaur egun, Irrien Lagunen barruan dauden gizartegintzako 23 elkarteak bidelagun garrantzitsu ditugu, haiekin ditugun bizipenek asko betetzen gaituzte eta ideologikoki ere markatu gaituzte. Guk, mundua aldatu nahi baitugu, eta iraultza egin nahi baitugu, ahulenekin egingo dugu, eskutik helduta. Bidea elkarrekin egiten badugu —hasi gay eta lesbianetatik eta ijitoetara, hor barruan dagoen amalgama guztiarekin—, baten kontra egiten dutenean denok erantzungo dugu eta gu eta umeak horretan hezten ari gara, euskaratik.

**Hausnarketa handia dago zuen ikusizunaren atzean, adibidez, aniztasunaren inguruan. Baina ez duzue gai hori dogma gisa hartzen, indibiduotik pertsona ikusiz lantzen duzue aniztasuna.**

**M.R.:** Umeak ikusten ditugu, ez ijitoak, etorkinak, gaixoak... baizik eta pertsonak. Ospitalera joaten garenean ez gara gaixo bat ikustera joaten, ume



bat ikustera joaten gara, gaixo dago bai, baina ume bat da, bere beharrek, barre egiteko gogoarekin...

**A.Z.:** Umeek eurek ere hala begiratzen dute. "Ama, nire gelako halako zergatik da marroia?" "Ba, Afrikatik etorri delako"... Adopzioan hartutako gelakide bati buruz ari ziren umeak, baina inongo aurreiritzi eta taburik gabe. Eta horrela galdetzen dute edozein gauzari buruz; aurreiritziak helduon kontuak dira.

**J.M.A.:** Ondoan dituzunen alderdi onei begiratzen jakitea da kontua, ahalegintzea gutxienez.

**Enpatia litzateke zuen arrakastaren giltzarria?**

**A.Z.:** Parean dituzunen aurrean, bai haurren baina baita familien aurrean ere berdinetik berdinerara egotea da gakoa, beraien egoera ulertu eta barneratzea, eta, era berean, beraien zure egoera ulertu eta barneratzea, eta hor sortzen den *feeling* berezi hori da elkarrenganako daukagun xarma. Nik askotan iman-efektua sentitu izan dut publikoarekiko. Guk umeengandik ikaragarritzko maitasuna sentitzen dugu.

**M.R.:** Eta baita aitona-amona, guraso, izebegandik, osabengandik ere. Guk asko jasotzen dugu saioetan. Aurrean daukazuna ulertzen saiatzea da gakoa, eta berak sentitzen duena sentitzen saiatzea eta oholta gai-



nean adieraztea. Zu bestearen tokian jartzen saiatzen bazara, beste horrek ere enpatizatuko du zurekin.

### **Asko aipatzen dituzue aitona-amonak, baina ikuskizunetan ere...**

**A.Z.:** Amonei, eta baina aitonei ere, errekonozitu egin behar zaie egunerorogunero egiten duten lana; seme-alabak zaintzeko dauzkagun baliabide guztiak eskas baitzaizkigu momentu askotan. Gure umeen hezitzaile parte handi-handia dute aitona-amonek; guraso askoren salbatzaileak dira, halaxe bizi dut eta halaxe aitortu behar zaiela uste dut. Gure saioetara aitona-amona asko eta asko etortzen dira bilobekin, eta esker ona ematen diegunean, ikaragarri eskertuak sentitzen dira. Ikuskizunean amonei esaten diet, "joe amona, zu zara nire favorita!", behingoagatik amona lehenetsi da, eta haurrek ere hori ikusten dute.

**J.M.A.:** Desikasteko horretan, aitona-amonei ere, aukera emanez gero, sartzen dira bidera; pentsa haiek ere ze nolako eskola izan duten! Gustura hartzen dute eskemak apurtzea.

### **Beste gakoetako bat naturaltasuna litzateke?**

**A.Z.:** Gure gabezia guztiakin, baina konplexurik gabe, gauzak ondo eta natural egiten saiatzen gara. Ez gara kantariak, baina kantatu egiten dugu; ez gara dantzariak baina dantzatu egiten dugu; ez gara aktoreak baina aktuatu egiten dugu, ez gara ezer eta pixka bat denetik egiten dugu.

**M.R.:** Gu saiatzen gara gauzak txukun egiten, asko entseatzen dugu gauzak ondo egiteko. Baina inperfekzioa ederra da, gozaten duzu, eta gainera jendea animatu egiten da egitera; perfektu egiten duzunean jendea ez da animatzen parte hartzera. Guk ez dugu ikus gaitzaten dantza egiten eta kantatzen, baizik eta umeei, aitona-amonek gurekin dantza eta kanta dezaten. Sorkuntzak badauka inperfekzio; lasaitasuna behar da gauzak egiteko, nahiz eta gaizki egin, egin, saiatu. Beldurretik ezin da ezer sortu.

### **Umeen inguruan hainbeste denbora pasata, hezkuntza-sistemari buelta bat baino gehiago eman dizkiozue...**

**J.M.A.:** Nik magisteritza ikasi nuen, fisika, kimika, matematika ikasi nien... baina eskola batera joan eta

dardarka nengoen umeen aurrean. Zer egin behar dut ume hauekin? Nola harremandu naiteke beraiekin? Nola hazi eta hezi eurekin batera pertsona bezala? Ez neukan galdera horiei erantzuteko tresnarik. Gaur egun badira gauzak bestela egin nahi dituzten irakasleak, asko, eta poztekoa da. Aurrean ditugunekin, umeei zein haien familiekin, ikasteko jarraia edukitzea oso aberatsa da, baina horretarako entzuteko, biluzteko, jolasteako prest egon behar dugu. Urteekin biluzten joaten zara, eta jaso dugun herentzia pisua galtzen joaten da; desikasi egiten duzu, eta egiatik gehiago du bizitzak biluzten zarenean. Ez dugu erraztasunik izan horretan, ez dugulako halako heziketarik jaso. Eta gaur egun ere iruditzen zait, hezkuntza, sistema bezala, ez dagoela egiaz ditugun behar hauei erantzuteko prestatua, bestelako behar batzuei erantzuteko prestatua baizik. Hezkuntza-sistema oraindik ere goitik behera eraikia dago: selektibitate dago, beraz, Batxilergoa selektibitateari begira egin behar da; baina DBHn ere prestatu behar ditugu Batxilergorako, eta Lehen Hezkuntzatik prestatu behar ditugu DBHn ez daitezkeen galdu... Egunean eguneko, etapa bakoitza bizi beharrean, beti hurrena etorriko denerako prestatzen ari gara haurrak, baina bizi, orainean bizi gara, bai helduok baina zeresanik ez haurrak.

**A.Z.:** Haur Hezkuntzan gauzak aldatu dira: bizipenari garrantzia handiagoa ematen zaiola esango nuke, askatasuna, autonomia eta egunerokotasuna zaintzen dira. Baina behin curriculum sartzan denean sei urterekin, jolasa kendu eta bizipena ukatzen zaie umeei eskoletan, eta haurrek eurek ere frustrazioz bizi dute ukazio hori. Haur Hezkuntzan egiten dena zabalduko balitz, pertsonaren eraikuntzari garrantzi handiagoa emango genioke. Pertsona bakoitza desberdina da, eta sistemak, askotan, ez digu hori ikusten uzten.

### **Dena den, hezkuntza ez da eskolara mugatzen; hezkuntza ez formaleko hainbat talderekin elkarlanean diharduzue herri hezitzaileen proiektuan; zertan zabilzate?**

**J.M.A.:** Herri hezitzailea, eskola herri-tarra proiektuaren barruan haurren parte hartzeari, umeen ahotsari eta

haien sormenari garrantzia eta tokia eskainiko zaien bidea ireki nahi dugu. Euskaraz zerbitzuak eskaintzeko lan handia egin izan da, ludotekak behar ziren euskaraz, udalekuak, barnetegiak... orain buelta ematen ari gara, parte hartzeari garrantzia emanaz umeei, elkarrekin zer eta nola nahi dugun ari gara erabakitzen... Agian lana handiagoa izango da, baina emankorragoa izango da, bidea bera baita emaitza.

### **Inongo euskara plan eraginkorrenak baino gehiago lortu duzue zuek. Eremu ez euskaldunetan nahiz familia ez euskaldunen etxetan sartu zarete, euskaraz eta gozamenetik.**

**J.M.A.:** Mundua gaizki dago, Euskal Herrian eta Euskal Herrikan kanpo. Hor bi aukera dituzu, protesta egitea edo proposamena egitea. Guk irtenbide koloretsuak bilatu nahi izan ditugu, kantari, dantzari eta barre eginez, eta horrekin norik ez du bat egiten? Gu saiatzen gara desio dugun eta amesten dugun errealtate hori marrazten, eta jende askok bat egiten du horrekin. Espekto zabalenerako politikariak etorri izan dira gure ikuskizunetara euren seme-alabengatik. Euskara gure hizkuntza da, baina komunikazio tresnatik harago, euskara bada baita guretzat ekologia, hezkidetzat, elkartasuna, ahulenak izan daitezkeenekin egotea, elkarrekin bizipoza sentitzea, justizia... hori guztia ere bada euskara, eta hori guztia den heinean erakarri egiten dugu. Euskara bizitzeko modu bat egiten badugu, etorkizuna ziurtaturik izango du, benetan erakarri baita eta izango baita.

**A.Z.:** Oso ingurune erdaldunetan haurrek euskaraz nola barre egiten duten eta kantatzen duten ikustea gauza handia da, eta baita euren guraso eta aitona-amonek egiten duten ahalegina ikustea ere. Sintzeritatetik, garena ezkutatu gabe egiten dugu, gure akats eta gabeziekin, gu hau gara, hemen dagoena gara. Dena den, masak mugitzea, eragina izatea, arrakasta izatea, ez dago ondo ikusia Euskal Herrian.

**J.M.A.:** Euskarari eta euskal kulturari dagokionez, estrategia baten falta ikusten dugu; ausardia eta argitasun falta handia. Gauza asko egiten dira gure herrian jende ekintzaile asko dagoelako, herri ekimenez eta administrazioen zain egon gabe.



Zihara ENBEITA  
Kazetaria

## NIK BAKARRIK

**U**me bakoitzak nortasun propioa bakarrik ez, erritmo propioa ere badu. Gurasook hala ere, gurago izaten dugu gure diapasoiak markatzen duen erritmopean dantzan hastea gure seme-alabak. Denak erritmo berrera. Eta guk presa dugu, ia denetarako presa. Esertzeko gai ez den umea jesarrita jarriko dugu kuxin artean eta hankak oraindik ere gogortu gabe dituen oinez eramango dugu esku bietatik helduta edota txakurrentzako egokia-goak diruditen soketatik eutsita. Familiko denen txalo eta poz artean. Hori gutxi balitz "zurea hasi da oinez? Nirea bai" lehiaketako parte izango gara familian, auzoan zein eskola atarrietan. Edota ehun aldiz errepikatu araziko diegu haurrei esaten ikasi duten berba edo nobedade den keinu barregarri hori. Tximinoak zirkuant nola. Eta seme-alabekin haserretuko gara guk jarritako pardelak guk nahi dugun momentuan kendu ostean, kaka eta txiza kontrolatzeko gai ez direlako. Edota kosta ala kosta euren parte izatea nahi izan dugun txupetea ezin diegulako kendu guk nahi dugunean. Hori bai, baina janari kontuena beste gauza bat da. Badaezpada ez diegu goizegi eurei bakarrik jaten utziko arropa eta bazterrak zikindu ez ditzan. Lan gehiago baita gurasoentzako eta errezagoa da guk jaten ematea. Azkarrago bukatuko du eta garbiago.

Besterik gabe umeei begira egotea zer den ahaztu dugu, gidatu bai, baina ahal denik eta gutxien esku hartuta. Ahaztu dugu zer den euren garapenaren testigu huts izatea. Guk uste ez izan arren, guk eskutik hartu gabe oi-

nez hasteko gai direlako. Onartzeko gogorra bada ere, guk uste baino gutxiago behar dutelako gure laguntza. Eta behar duten laguntza hori gauzak euren kabuz egiteko da. Eta horrek gauzak txarto egitea esan nahi du, gauzak astiro egitea, zinkintzea esan nahi du. Etengabeko "nik, bakarrik!" eskaera, ohiu, haserre artean. Zabaldu berri duzun gailera kaxa berriro itxi eta etxeko txikiak berak bakarrik noiz zabalduko pazientziaz itxarotea. Uffa, bai uffa. Gure ahotik lehenengo ateratzen den berba "Ez" denean nola egin hori?

Goiko guzti hori onartzeak gauza asko erakutsiko dizkigu, asko ikasiko dugu dudarik gabe, eta harritu egingo gara gure seme-alaben abilitadea ikusita. Hala ere, egia da etxera behin baino gehiagotan norbere buruarekin haserre bueltatzea ekarriko digula; ez baita egun batetik bestera arintzen bizkargainean dugun urteetan pilatutako zama hori. Inguruko ezin ulertua ekarriko du gure jarrerak. Besteak beste, erori berri den zure seme-alabaren bila korrika joan ez zarelako eta beste puntatik gurasoren bat agertu eta zutitu behar izan duelako. Eta gainera ez diozu eskertu egin dizun mesedea? Haurra bera bakarrik zutitzeko gai dela diozunean inork ez dizu entzungo eta alferrik ahaleginduko zara azalpenak ematen. Nahikoa duzu, gainera, putzu eta abarretan jolasean, gustura, goitik behera zikintzen ari den semea ikusi eta errieta eta oihiu ez egiteko zeure buruari eusten. Seme-alabek moduan zuk ere zure kabuz landu behar duzun ikasgaia dela jakinik.

• zauden lekuan  
**jaso**  
gaztezulo  
aldizkaria



@Gaztezulo

**harpidetu**

Tel: 943 457 250  
harpidetza@gaztezulo.eus



urtean  
**22**  
euro



**gaztezulo**  
HI ETA KIRI MURRERAK

2015

# PURRITX, PORROTX & MARI MOTOTS

Aur tengo nobedadeak!!!



Txo, mikmak bakia CD-liburua:  
19 abesti eta 19 ipuinak.



Bizipoza +  
Sentitu... Sinfonikoa  
DVD bikoitza:  
Zuzeneko musikazuzak



Sentituz bilduma  
ipuinak:  
Etxeko bikienentzat  
kartaiko 4 ipuinak.

Biko puzzlea:  
Etxeko bikienentzat,  
erabakiek eta  
perbeniekén jolasteko.



Dominoa:  
Domino klasikoa eta  
gure pertsonen jolasa.



Ongi etorri Pupu eta  
Lore Plaza ipuina:  
Bilduma berria:  
Hirugarren ipuina.

Bizipoza  
Plaza ipuina:  
Bilduma berria:  
Zugarren ipuina.



eskaerak: [www.katxiporreta.com](http://www.katxiporreta.com)

**Katxiporreta**

Oria etorbidea, 10  
Brinet Etxikina 5, E-4  
20160 LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 368 404